Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Haizea Ziarrusta Intxaurtza

October 2018

Integrated analytical approaches to study the adverse effects of pharmaceuticals and personal care products on aquatic ecosystems

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

IBeA
Ikerkuntza eta Berrikuntza Analitikoa

Analytical Chemistry Department

Integrated analytical approaches to study the adverse effects of pharmaceuticals and personal care products on aquatic ecosystems

Haizea Ziarrusta Intxaurtza

2018

A thesis submitted for the international degree of Philosophiae Doctor
in Environmental Contamination and Toxicology

supervised by

Dr. Olatz Zuloaga Zubieta
Dr. Maitane Olivares Zabalandikoetxea

(c)2018 HAIZEA ZIARRUSTA INTXAURTZA

Bekak eta Finantziazioa

Tesi hau Hezkuntza, kultura eta kirol ministerioaren doktore berrien prestakuntzarako diru-laguntzari esker egin da, unibertsitate-irakasleen formaziorako (Formación de Profesorado Universitario, FPU, delakorako) programa nazionalaren barruan. Era berean, Hezkuntza, kultura eta kirol ministerioak doktorego-ikasleei bideraturiko mugikortasun-bekari esker posible izan da Estokolmoko Unibertsitatean (Suedia) 5 hilabeteko egonaldia egitea 2016an, eta bide batez Nazioarteko Tesiaren aipamena eskuratu ahal izatea. Bestalde, Kultur Paisaien eta Ondarearen UNESCO katedrak emandako mugikortasun-bekari esker Kataluniako Unibertsitate Politeknikoan (Bartzelona) 2 hilabeteko egonaldia egin ahal izan da 2017an.

Horretaz gain, tesi honetan bildu diren lanak egin ahal izateko hurrengo ikerketa-proiektuen diru-laguntza eskertu nahi dugu:

(i) Nuevas metodologías para evaluar el impacto de los contaminantes emergentes en ecosistemas marinos y el consumo de alimentos (CTM2014-56628-C3-1-R) 2015-2017. Ikerlari Nagusia: Nestor Etxebarria Loizate.

(ii) A-motako Talde kontsolidatua (IT-742-13) Eusko Jaurlaritza, 2012-2018. Ikerlari Nagusia: Juan Manuel Madariaga Mota.

Esker onak

Aitite-amamak sarriten esan doskue denporea arin pasetan dala… Eta zelan ez, arrazoia! Nire eredu zaren horrek, eskutxotik hartute, bideak zabaldu jostezuzen oin dala zazpi bet urte eta ez dekot esperientzi zoragarri hau biziteko aukerea aprobetxau izinen damurik! Hainbeste aholku, eta beste horrenbeste ebatzi. Gauze asko ezin leiz diruegaz pagau. Eta, hamaika abenturen ostean, honaino punturaino heldute… zuri eta beste guztiori eskerrak emotea baino ez jata gelditan.

Lehenengo ta behin, zuzendarieri, eskerrak nigez batera *montaña rusa* honetara igoten animetearren. Ez dau modurik, arlo pertsonalean zein akademikoan, in dozuezan zuzendari, zientzialari, psikologo, lagun, guraso eta beste infinito roletan zuokandik jaso doten laguntasune eta babesa eskertuteko. Txikitetik, barneratute dekot, ekinde lortuten direla gauzek; eskerrik asko talde-lana errealidade bihurtuteagaitik.

Praktiketan batu ginenetik, beti inguruen egon zarien beste hirurori be milesker! Oingoan be, argi gelditu de, danok apurtxu bet emonda lortuten dala gitxi batzuk dana emon behar ez izitea. Eskerrik asko, arrain handiaua zein txikiaua izitea, ez dozuelako gehau edo gitxiau iziteagaz lotuten. Eta hemen be, arkalengandik hur gu! Urrin egon arren, ederto akordetan naz klaseko lehenengo egunegaz! Eskerrik asko juerga, bije eta terapia guztiekaitik!

IBeA taldeko beste kide guztiori be, eskerrik asko aholku guztiekaitik. Laborategien zein laborategitik kanpo, danokandik jaso dot zeozer lehenengo “egun on”-etik azken txanpako proposamenetaraino. Eta mintegi people! Zorragarrie da horrenbeste persona eta personaje ezetuteko aukerea aukitea. Betidanik hor egon dan saltseratik hasi eta etorri barrietaraino. Erdi ahiztute deku zer dan sardinek latan moduen egotea, eh? Eskerrik asko barrealdi guztiekaitik! Nozko hurrungo *social activity*? Gure hizkuntzeari bere lekutxue iten lagundu dostezuenori zein dekanotzako arbelari begire palmeratxuek nigez batera jan dozuezenori, besarkada fuerte bana. Mosu bana PiE-tar danori be, eta eskerrik asko esperimentuekaz eta disekziñoakaz esku bet bota dostezuen danori. Danok barik ez dauelako osorik.

Atzerriko bi estantziekaitik be, zer esan! It was a stressful but at the same time very enriching experience! Tack ACES people and Skarpnäck family! Y qué decir a los de big bang theory… Moltes gràcies frikis de s2lab por vuestra paciencia con la novata de R!

Unibersidadean zein unibersidadetik kanpo, bidean in dodazen laguneri be mosu handi bana! Ez noa izenak banan banan esaten, bea eskerrik asko aloha, friemly, la banda del terror eta konpañia, kontinental, ex“milan-paeshi basqui”… Garbikerrekoakaz, giputxilandiako bulegokoakaz, papelak inprimidu edo eskaneu dostezuezenokaz, kirola ereinazo dostezuenokaz, muskuloak soltauostezuenokaz, eta auzokoakaz be izin ahiztu! Auzolanean beste gauze batzun artean nire

n-garren etxeari bizie emon dotsezuenok be bazarie honen parte. Eskerrik asko irribarrea zein negarra ataratearren, aterrizetan lagundutearren eta batzutan burue beste mundu batera eroanazotearren. Zuotako bakotzan begiradeak itzelezko energie emoten dau… Eta zuon laguntasun barik, batzutan ez zan posible izingo gauze ez hain onari alde positiboa topetea.

Eta zelan ez, etxeko danantzat, eta etxeko moduen sentiduazo nozuen danontzat besarkada beroenak Makaztuire, Urkuzure, Munetxara, Altzustera, eta teilatupe bardine nigez konpartidu dozuenokana. Istori honen parte zarien danori ez jatsuez helduko eskerrok, bea danon *maitasunegaz, epeltasunegaz, errespetuegaz, esker onagaz, laguntasunegaz* eta *gozotasunegaz* gelditan naz. Eskerrik asko kendu dotsuodazen minutu guztiekaitik, zuon pazientziegaitik, eta begiek zabaltan lagunduteagaitik. Eskerrik asko emoneko bazkari guztiekaitik! Ogie emoten doskun hori zelan itzi aititu barik! Bea zuok emoneko energie janetik harau doa!

Munduen pazientzi gehien dekon horreri zelan eskertu beti hor egotea! Ia, tesie akabaute gero, azeitunetxoak ze atxaki topetan dauen. Eta zer esan zuokaitik biokatik? Lurpean egon arren eguzki izpiek ikusi leiz kartetan zein kantetan! Ez daigun umorea galdu! Bizie emon eta mundu zoro honetara ekarri nozuenori be eskerrik asko, berbaz zein begiradeagaz emoneko babesagaitik. Edozeinek ez dauz holango eredu bi aukin. Hau ez zan bardine izingo zuokandik barneratu dodazen balore barik, ezinbestekoak diren gauze batzuk ez dire tesi beten ikisten eta. Ikisi beharrean, aplikau iten dire. Eta zenbet sensaziño, emoziño... batzutan kanpoan, ta beste askotan ondiño barruen!

Ta batan bat ez bada identifikaute sentidu ilada honeitan, lasai! Nire espresiño faltea da, idaztea ez da danon puntu fuerteena-eta.... Eskerrik asko zuri be! Duderik ez, testu honen irakurle hutse baino gehau zarela nitzako! Eta, momenturen baten, ez badotsuet behadan beste kasu in, parkatu!

Asko ikisi doten arren, askoz gehau ikisteko gogoagaz segitan dot, kuriosidadeak dakarrelako jakiturie, eta alrebes. Beti ikisten da zeozer, eta etapa honetatik argi gelditu jatana hauxe da, gatza gatzau bihurtuteak ez dekola zentsurik… eta *gatza bada, ez dala ezinezkoa*! Ekine baragarrie da, ta urrintxuau ikusi arren, beste gauze batzuk be lortukoguz herri honetan: "*Bihotza, Burue, Eskue! Sentitu, Pentsatu, Ekin!*".

Ba horixe, eskerrik asko danori eta batuko gara mendien, etxean, laborategien, herriko plazan zein munduko beste punten! Eta momentuz, ez dakit arrainek zoriontsuek diren Euskal Herriko erreketan, bea ni zuori danori esker, bai! Asko gure zaituziet!

Diman, 2018ko Irailaren 7an

Aurkibidea / Table of contents

Abbreviations / Laburdurak

A

ACN	acetonitrile / *azetonitriloa*
AIF	all ion fragmentation / *ioi guztien apurketa*
AMI	amitriptyline / *amitriptilina*
ANOVA	analysis of variance / *bariantza-analisia*
AOP	adverse outcome pathway / *ondorio kaltegarrien bidea*
APCI	atmospheric pressure chemical ionization / *presio atmosferikoko ionizazio kimikoa*
ASCA	analysis of variance-simultaneous component analysis / *bariantza-analisia - aldibereko osagaien analisia*
au	arbitrary units / *unitate arbitrarioak*

B

BCF	bioconcentration factor / *biokontzentrazio-faktorea*
BPs	by-products / *azpiproduktuak*

C

C_{18}	octadecylsilyl / *oktadezilsilil*
CCD	central composite design / *diseinu konposatu zentrala*
CID	collision induced dissociation / *talkak bultzatutako disoziazioa*
CIPRO	ciprofloxacin / *ciprofloxacin*
CLO	clomipramine / *klomipramina*
CPCA	common principal components analysis / *osagai nagusi komunen analisia*
CX	cation exchanger / *katio-trukatzaile*

D

DANO	danofloxacin / *danofloxacin*
ddMS2	data dependent MS/MS / *datuen menpeko MS/MS ekorketa*

D (Continuation / Jarraipena)

DHB	2,4-dihydroxybenzophenone / *2,4-dihidroxibenzofenona*
DHMB	2,2'-dihydroxy-4-methoxybenzophenone / *2,2'-dihidroxi-4-metoxibenzofenona*
DIA	data independent acquisition / *datuen menpekotasunik gabeko eskuratze-modua*
DIMS	direct infusion mass spectrometry / *sarrera zuzeneko masa-espektrometria*

E

EDA	effect-directed analysis / *efektuek bideratutako analisia*
EDCs	endocrine disruptor compounds / *disruptore endokrinoak*
EDTA	ethylendiaminetetraacetic acid / *azido etilendiaminotetraazetikoa*
EMEA	European Medicine Evaluation Agency / *medikamentuen ebaluaziorako europar agentzia*
ENO	enoxacin / *enoxacin*
ENRO	enrofloxacin / *enrofloxacin*
EQSs	environmental quality standards / *ingurumeneko kalitate-arauak*
ERA	environmental risk assessment / *ingurumenerako arriskuen ebaluazioa*
ESI	electrospray ionization / *elektroesprai-ionizazioa*
EtOAc	ethyl acetate / *etil azetatoa*
EtOH	ethanol / *etanola*

F

FBSC	feature-based signal correction / *elementuetan oinarritutako seinale-zuzenketa*
FC	fold-change / *aldaketa-maila*
FDR	false discovery rate / *aurkikuntza faltsuen tasa*
FQs	fluoroquinolones / *fluorokinolonak*
Full MS-ddMS2	full scan – data dependant MS/MS / *ekorketa osoa - datuen menpeko MS/MS*
FUSLE	focused ultrasound solid–liquid extraction / *ultrasoinu fokatuen bidezko solido-likido erauzketa*

G

GABA	gamma-aminobutyric acid / *gamma-aminobutiriko azidoa*
GC	gas chromatography / *gas-kromatografia*
GC-MS	gas chromatography coupled to mass spectrometry / *masa-espektrometriari akoplatutako gas-kromatografia*

H

HCD	higher-energy collisional dissociation / *energia altuko talka-disoziazioa*
HESI	heated electrospray ionization / *elektroesprai-ionizazio berotua*
HILIC	hydrophilic interaction liquid chromatography / *elkarrekintza hidrofilikoan oinarritutako likido-kromatografia*
HLB	hydrophilic–lipophilic balanced / *hidrofiliko-lipofiliko orekatua*
HOAc	acetic acid / *azido azetikoa*
HRMS	high resolution mass spectrometry / *bereizmen altuko masa-espektrometria*
HSI	hepatic somatic index / *indize hepatosomatikoa*

I

IMI	imipramine / *imipramina*

K

K	condition factor / *egoera-faktorea*
KNN	k-nearest neighbor / *k-nearest neighbor*

L

LC	liquid chromatography / *likido-kromatografia*
LC-FLD	liquid chromatography coupled to fluorescence detector / *likido-kromatografia - fluoreszentzia-detektagailua*
LC-MS	liquid chromatography - mass spectrometry / *masa-espektrometriari akoplatutako likido-kromatografia*

L (Continuation / Jarraipena)

LC-MS/MS	liquid chromatography – tandem mass spectrometry *likido-kromatografia tandem masa-espektrometria*
LC-QqQ	liquid chromatography - triple quadrupole mass spectrometry / *likido-kromatografia kuadrupolo hirukoitzeko masa-espektrometria*
LEVO	levofloxacin / *levofloxacin*
LLE	liquid-liquid extraction / *likido-likido erauzketa*
LOD	limit of detection / *detekzio-muga*
LOME	lomefloxacin / *lomefloxacin*
LOQ	limit of quantification / *kuantifikazio-muga*
LOQ_{proc}	procedural limit of quantification / *kuantifikazio-muga prozedurala*

M

MAE	microwave-assisted extraction / *mikrouhinen bidezko erauzketa*
MDL	method detection limit / *metodoaren detekzio-muga*
MeOH	methanol / *metanola*
MEW	mass extraction-window / *masaren erauzketa-leihoa*
MIP	molecularly imprinted polymer / *molekularki inprimatutako polimeroa*
MLR	multiple linear regression / *aldagai askotariko erregresio lineala*
MoA	mode of action / *ekintza-modua*
MS	mass spectrometry / *masa-espektrometria*
MS/MS	tandem mass spectrometry / *tandem masa-espektrometria*
MSPD	matrix solid-phase dispersion / *fase solidoan dispertsatutako matrizearen bidezko erauzketa*

N

NCE	normalized collision energy / *normalizatutako talka-energia*
NMDAR	N-methyl-D-aspartate receptor / *N-metil-D-aspartato errezeptorea*
NMR	nuclear magnetic resonance / *errezonantzia magnetiko nuklearra*
NOR	nortriptyline / *nortriptilina*
NORF	norfloxacin / *norfloxacin*
NP-SPE	normal-phase solid phase extraction/*fase normaleko fase solidoko erauzketa*

O

OECD	Organization for Economic Co-operation and Development / *Lankidetza eta Garapen Ekonomikorako Erakundea*
OFLO	ofloxacin / *ofloxacin*
OXY	oxybenzone / *oxibenzona*

P

PA	polyamide / *poliamida*
PCA	principal component analysis / *osagai nagusien analisia*
PCPs	personal care products / *zaintza pertsonalerako produktuak*
PEC	predicted environmental concentration / *aurresandako ingurumeneko kontzentrazioa*
PEFLO	pefloxacin / *pefloxacin*
PhACs	pharmaceutical active compounds / *farmakologikoki aktiboak diren konposatuak*
PhCs	pharmaceutical compounds / *farmakoak*
PLE	pressurized liquid extraction / *presiopeko likidoen bidezko erauzketa*
PLS-DA	partial least squares-discriminant analysis / *karratu txiki partzialen bidezko analisi diskriminatzailea*
PNEC	predicted no effect concentration / *aurresandako efektu gabeko kontzentrazioa*
POPs	persistent organic pollutants / *kutsatzaile organiko iraunkorrak*
PP	polypropylene / *polipropilenoa*
PPCPs	pharmaceuticals and personal care products / *farmakoak eta zaintza pertsonalerako produktuak*

Q

QC	quality control / *kalitate-kontrola*
QC_{ext}	extraction quality control sample / *erauzketaren kalitate-kontrolerako lagina*
QC_{seq}	sequence quality control sample / *sekuentziaren kalitate-kontrolerako lagina*
QOrbitrap	quadrupole-Orbitrap mass spectrometer/ *kuadrupolo-Orbitrap masa-analizatzailea*
QqQ	triple quadrupole mass spectrometry/ *kuadrupolo hirukoitzeko masa-espektrometria*

R

RF	radio frequency / *irrati-frekuentzia*
ROS	reactive oxygen species / *oxigenoaren espezie erreaktiboak*
RP-SPE	reverse-phase solid phase extraction / *alderantzizko faseko fase solidoko erauzketa*
RSD	relative standard deviation / *desbiderazio estandar erlatiboa*

S

S/N	signal to noise ratio / *seinale-zarata erlazioa*
SPAR	sparfloxacin / *sparfloxacin*
SPE	solid phase extraction / *fase solidoko erauzketa*
SRM	selected reaction monitoring / *ioi aitzindarietatik apurketa-ioietarako trantsizioen jarraipena*
SSRIs	selective serotonin reuptake inhibitors / *serotoninaren xurgapen selektiboaren inhibitzaileak*

T

TCAs	tricyclic antidepressants / *antidepresibo triziklikoak*
THB	2,3,4-trihydroxybenzophenone / *2,3,4-trihidroxibenzofenona*
TOC	total organic content / *materia organiko osoa*
TOF	time-of-flight / *hegaldi-denbora*
TPs	transformation products / *transformazio-produktuak*

U

UHPLC	ultrahigh performance liquid chromatographic / *ultra-bereizmen altuko likido-kromatografia*
UHPLC-qOrbitrap	ultra high performance liquid chromatography coupled to tandem quadrupole-Orbitrap / *ultra-bereizmen altuko likido-kromatografia - tandem kuadrupolo-Orbitrap*
UHPLC-QqQ-MS/MS	ultra high performance liquid chromatography coupled to triple quadrupole mass spectrometry / *kuadrupolo hirukoitzeko masa-espektrometriari akoplatutako ultra-bereizmen altuko likido-kromatografia*

U (Continuation / Jarraipena)

US EPA	United States Environmental Protection Agency / *Ameriketako Estatu Batuetako Ingurumenaren Babeserako Agentzia*
USE	ultrasound extraction / *ultrasoinuen bidezko erauzketa*

V

VIP	variables importance on projection / *aldagaiek proiekzioan duten garrantzia*

W

WFD	Water Framework Directive / *Ur-Esparru Zuzentaraua*
USE	World Health Organization / *Munduko Osasunaren Erakundea*
WWTP	wastewater treatment plant / *ur-araztegi*

X

XIC	extracted ion chromatogram / *erauzitako ioien kromatograma*

1. Kapitulua

Sarrera

1.1 Farmakoak eta zaintza pertsonalerako produktuak ur-ingurumenean

Farmakoak eta zaintza pertsonalerako produktuak (*pharmaceuticals and personal care products*, PPCP, delakoak) funtzionalitate, propietate fisiko-kimiko eta aktibitate biologiko desberdinak dituzten molekula konplexuak dira [1]. Farmakoak giza zein animalia-gaixotasunak saihesteko edo tratatzeko kontsumitzen diren konposatuak diren bitartean, zaintza pertsonalerako produktuak bizi-kalitatea hobetzeko erabiltzen dira [2]. PPCP-en ekoizpena mundu mailan $2{\cdot}10^7$ tonara hel daiteke urtero [3]. Konposatu horien erabilera zabalak, batez ere herrialde garatuetan, PPCP-ak ur-ingurumenerako kutsadura-iturri nagusienetako bat bilakatzea eragin du [4–8]. PPCP-ak kutsatzaile iraunkor gisa sailkatzen ez diren arren, haien isuria ur-ingurumenera etengabekoa da, eta ng/L-µg/L kontzentrazio-mailan detektatzen dira sarri. Ondorioz, kutsatzaile iraunkorrak bailiran jokatzen dute [5] eta, beraien kontzentrazioak maila kaltegarriak izateraino heltzen badira, uretako organismoetan albo-ondorioak sor ditzakete [9–15]. Hori dela eta, azken urteotan, arazo horren inguruko kezka zientifikoa eta soziala areagotu egin da.

PPCP-en ingurumeneko agerpen zabalak sortutako kezka zenbait legeditan islatzen da ere. Farmakoen ingurumeneko arautzearen lehen urratsak Europar Batasunak (EB-ak) eman zituen. Alde batetik, hiru farmako (17-α-etinilestradiol eta 17-β-estradiol hormonak eta minaren kontrako diklofenak konposatua) "zaintza-zerrenda" delakoan sartu zituen [16]. Beste alde batetik, Europako Ur-Esparru Zuzentarauan (*Water Framework Directive*, WFD, delakoan) PPCP batzuk etorkizuneko lehentasunezko hautagai emergente gisa izendatu zituzten [17]. Esaterako, karbamazepina, iopamidola eta musketa sintetikoak. Horrez gain, WFD-eko orientazio teknikoko dokumentuak biota urtarrean ingurumeneko kalitate-mailak emateko jarraitu beharreko prozedura azaltzen du [18]. Prozedura horrek organismo urtarrentzako eta giza osasunerako arriskuak kontuan hartzen ditu. Aldi berean, Ameriketako Estatu Batuetako Ingurumenaren Babeserako Agentziak (*Environmental Protection Agency*, EPA, delakoak) 14 farmako gehitu zituen hirugarren kutsadura-hautagaien zerrendan [19]. Gainera, PPCP batzuk disruptore endokrino gisa sailkatuta daude [12]. Munduko Osasunaren Erakundearen (*World Health Organization*, WHO, delakoaren) arabera, disruptore endokrinoak sistema endokrinoko funtzioak aztoratzen dituzten substantzia exogenoak edo euren nahasteak dira eta, ondorioz, organismoetan, haien ondorengoetan edo azpi-

biztanlerian albo-ondorioak dituzte. Bestalde, Europako sendagaien ebaluazio-agentziak ezarritako jarraibideetan PPCP-en ingurumenerako arriskuen ebaluazioa aipatzen da [20]. Bertan, izaera kimiko anitzeko konposatuei beraien arrisku-ratioetan oinarritutako lehentasuna nola ezarri deskribatzen da. Hala ere, ratio horiek kalkulatzeko eskuragarri dauden PPCP-en inguruko datu ekotoxikologikoak oso mugatuak dira. Hortaz, PPCP-en erabilera zabala eta ingurumeneko presentzia kontuan izanda, segimendua egiteko planteamendu berriak garatzea beharrezkoa da legedi berrietan aurkeztu ahal izateko. EPA-ren arabera [21], PPCP-en arautzea bermatzeko ezinbesteko baldintza da haien ingurumeneko agerraldiaren eta arriskuen inguruko informazio nahikoa izatea. Izan ere, arriskuen ebaluazio-prozesuan, politikoki bideratutako arrisku-kudeaketa burutu edo neurri arautzaileak ezarri ahal izateko, beharrezkoa da arriskuen azterketa zientifikoa egitea (arriskuen identifikazioa, efektuen ebaluazioa, esposizioaren ebaluazioa eta arriskuen karakterizazioa, besteak beste) [22].

PPCP-ak, dagokien erabileraren ondoren, ur-hondakinetan isuri eta, ur-araztegietako ohiko tratamenduetan guztiz eliminatzen ez direnez, ur-ekosistemetan nonahi agertzen dira [3–5,7,12,23]. Arestian esan bezala, PPCP-en taldea konposatu organikoen hainbat familia desberdinek osatzen dute [5]. Farmakoen artean antibiotikoak, antidepresiboak, hormonak, antiinflamatorioak, epilepsiaren kontrako konposatuak, odoleko lipidoen erregulatzaileak, β-blokeatzaileak eta droga zitostatikoak aurki ditzakegu. Eta zaintza pertsonalerako produktuei dagokienez, antimikrobianoak, musketa sintetikoak, intsektuen aurkako konposatuak, kontserbatzaileak eta ultramore (UM) iragazkiak aipa ditzakegu, besteak beste.

Farmakoen artean, arreta berezia jarri izan zaie antibiotikoei, 90. hamarkadaren amaieratik behatu izan den antibiotikoekiko erresistentziaren areagotze azkarra dela eta [2,24–26]. Ingurumenean nagusiki detektatzen diren antibiotikoen artean fluorokinolonak daude [27,28]. Ur-ekosistemetan ng/L-µg/L kontzentrazio-mailan aurki ditzakegun konposatu horiek arnas-aparatuko gaixotasunen eta bakterio-infekzioen aurka erabiltzen dira medikuntzan zein albaitaritzan. Bestalde, antidepresiboak ere, ingurumenean sarri agertzen diren farmakoak, bereziki kezkagarriak dira espezie urtar ez-zuzenduen portaera alda dezaketelako [10]. Luzaroan depresioa eta buruko gaitzak (adibidez, antsietatea eta fobia) tratatzeko erabili izan diren antidepresibo triziklikoak ingurumenean aurkitu izan dira [29]. Antidepresibo trizikliko batzuk serotoninaren xurgapen

selektiboaren inhibitzaile (*selective serotonin reuptake inhibitor*, SSRI, delako) gisa jokatzen dute eta, nahiz eta ez dagoen guztiz argituta SSRI-ekiko uretako organismoen erantzuna zein den, hainbat ikerketek albo-ondorioak eragiten dituztela baieztatu dute. Besteak beste, agresibitatearen gutxitzea, elikadura-erantzunen inhibizioa, ugalketaren murriztea, enbrioien garapenaren anomaliak eta garapen fisiologikoaren eta sexu-heldutasunaren atzeratzea [10,30].

Farmakoekin erkatuta, zaintza pertsonalerako produktuak kontzentrazio-maila altuagoan aurkitu ohi dira ingurumenean [31] igeri egitean edota bainu bat hartzean zuzenean ur-azalera isurtzen direlako [32]. Adibidez, UM iragazkiek eguneroko bizitzan erabilera anitz dituzte, hala nola eguzki-babeseko produktuetako, larruazaleko kremetako, ileko espraietako eta tintetako eta gainontzeko kosmetikoetako osagai garrantzitsuak baitira [32,33]. Konposatu horiek arreta zientifiko handia bereganatu dute organismo urtarren sistema endokrinoa oztopatzen dutelako [31,34].

PPCP-en ingurumeneko agerpenaren ikerlan gehienak ur-hondakinen araztegietako isurietan eta azaleko uretan fokatzen dira [1,4,7,14,23,35] eta biotan metatzearen inguruko ikerketa gutxi daude eskuragarri [13,15,36–38]. Hala eta guztiz ere, nahiz eta aztarna-mailan egon, beraien etengabeko isuria mehatxu izan liteke uretako organismo ez-zuzenduentzat [38]. Izan ere, esposizioaren eraginak ebaluatzeko ohiko modua da organismoetan kutsatzaileen biometatzea aztertzea. Orokorrean, arrainak, hauen ingurumeneko nonahikotasunagatik, organismo bideragarritzat hartzen dira biometatze-azterketetarako edota ur-sistemen segimendua egiten duten programetarako [39]. Arrainetan, zein beste organismo urtar batzuetan, PPCP-en presentziaren inguruan eskuragarri dagoen informazioa PPCP-ek duten biometatze-gaitasunaren adierazgarri da [5,9,12,15,35–37,40].

Testuinguru honetan, PPCP-en segimendua egitean, kutsatzaileen analisia ur-laginetara mugatu beharrean, lagin biologikoetara ere hedatzen da gaur egun. Horrek, aztarna-mailan dauden PPCP-ak matrize desberdinetan kuantifikatu ahal izateko metodo analitiko sendoak eta sentikorrak garatzeko beharra sortzen du [41]. Gainera, PPCP-en metatzea eta ehun-distribuzioa sakon aztertu ahal izateko, arrain osoa batera bere osotasunean aztertu edo soilik ehun bakarrera mugatu beharrean, aipatutako metodoak ehun eta jariakin biologiko desberdinetara zabaldu beharko lirateke. Izan ere, PPCP-ak askotan mintz biologikoak zeharkatzeko diseinatuta daude eta,

ondorioz, euren metatzea ehunekiko espezifikoa izan daiteke [13].

1.1.1 Metodo analitikoen garapena

Kutsatzaile organiko iraunkorrekin alderatuta PPCP-ak polarragoak izanik, normalean kontzentrazio baxuagotan aurkitzen dira [41]. Azken urteotan PPCP-ak aztarna-mailan detektatzeko metodo analitikoak nabarmen aurreratu diren arren, oraindik gainditu gabe daude erronka analitiko batzuk, besteak beste, biota bezalako ingurumeneko matrizeen konplexutasunarekin loturikoak. Ondorioz, matrize konplexuetako PPCP-en analisian beharrezkoak izan ohi dira laginaren aurretratamendu egokia egin eta sentikortasun altuko detektagailu selektiboak erabiltzea [5,6,36,42]. Azken urteotan, ingurumeneko laginak aztertzeko hainbat aztarna anitzen analisi-metodo garatu dira [23,40,41,43–46]. Hala ere, erauzketaren eraginkortasun falta nabari daiteke, konposatu batzuentzat aztergai diren laginak konplexuak izateaz gain, aztergai diren konposatuen propietate fisiko-kimikoak (polaritatea, disolbakortasuna, eta egonkortasuna, adibidez) oso ezberdinak baitira [6,42]. Ondorioz, metodo analitiko gehienak konposatu bakarraren edo familia bakarreko konposatuen azterketan oinarritzen dira [36].

Ingurumeneko matrizeetako konposatu organikoen analisian, laginaren prestaketa edo aurretratamendua urrats garrantzitsuenetakoa da [6,47,48]. Orokorrean, erauzketa- eta garbiketa-urratsek osatzen dute laginaren prestaketa. Bibliografiaren arabera, PPCP-ak lagin solidoetatik erauzteko erabilitako erauzketa-metodo nagusienak hurrengoak dira: ohiko solido-likido erauzketa-teknikak, ultrasoinuen bidezko erauzketa, mikrouhinen bidezko erauzketa, presiopeko likidoen bidezko erauzketa eta fase solidoan dispertsatutako matrizearen bidezko erauzketa [36,41,42,49]. Erauzketaren eraginkortasuna hobetzeko asmoz, ultrasoinu fokatuen bidezko solido-likido erauzketa (*focused ultrasound solid-liquid extraction*, FUSLE, delakoa) nabarmendu da biotatik konposatu organikoak erauzteko ahalezko teknika gisa [50,51]. FUSLE-ren eraginkortasuna kabitazio-fenomenoaren bidez lortutako presio eta tenperatura altuen ondorioz lortzen da. Hain zuzen, titaniozko mikropunta zuzenean erauzian murgilduta eratzen diren ahalmen handiko ultrasoinu-uhinetan datza FUSLE. Horrez gain, erauzketa-teknika horrek lagin- eta disolbatzaile-kantitate txikiak behar ditu analitoak kuantitatiboki erauzteko prozesu errazaren, azkarraren eta errepikakorraren bidez.

Arestian deskribatutako erauzketa-metodo gehienen selektibitate falta dela eta, erauzketaren ondoren, garbiketa-urratsa behar izaten da orokorrean. Garbiketa-metodo ohikoena fase solidoko erauzketa (*solid phase extraction*, SPE, delakoa) da. Teknika horrek PPCP-en isolamendua edota aurrekontzentrazioa baimentzen ditu ingurumeneko ur-lagin zein biota bezalako matrize desberdinetan [4,23,41,47–49]. Bibliografian, ur-lagin/erauzien garbiketarako gehien aplikatzen diren hurbilketek alderantzizko faseko fase geldikorrak erabiltzen dituzte, beti ere, aurretiaz laginaren pH-a egokituta konposatu azidoen edo basikoen desprotonazioa edo protonazioa, hurrenez hurren, ekiditeko [41,48]. Egun, dibinilbentzenoz eta binilpirrolidonaz osatutako kopolimeroa da alderantzizko faseko fase geldikor erabiliena [41,49]. Hala ere, kasu batzuetan modu mistoko anioi- edo ioi-trukatzaileak eta molekularki inprimatutako polimeroak (*molecularly imprinted polymers*, MIPs, delakoak) aurki daitezke [41,48]. Izan ere, fase geldikor horiek duten erretentzio-mekanismo selektiboagoak erauzi garbiagoak lortzea ahalbidetzen du. Bestalde, gantz ugari dituzten laginen kasuan, lipido eta beste interferentzia ez-polarrak kentzeko, fase normalean burutu ohi da SPE [36]. Horretarako, Florisil, silika edo alumina bezalako fase geldikor polarrak erabiltzen dira.

PPCP-en analisian sarri erabiltzen diren teknika analitikoak likido- (LC) edo gas-kromatografia (GC) dira, biak ala biak detektagailu desberdinei lotuta [23,36,47,49]. Dena den, nagusiki LC erabiltzen da, konposatu polarrekin eta ez-hegazkorrekin duen bateragarritasunagatik [6,42,52]. Aurrerapen teknologiko desberdinek, PPCP-en banaketa nabarmenki hobetu dute matrize konplexutan, besteak beste, ohiko instrumentazioek baino presio altuagotan lan egitea baimendu dute 2 µm azpiko partikulaz paketatutako zutabeen eskuragarritasunaren handitzeak eta hardware-aren hobetzeak [41].

Nahiz eta frogatuta dagoen LC-ri lotuta UM absorbantzia- edo fluoreszentzia-detektagailuak teknika errentagarriak direla, PPCP-en analisian hobetsita dago masa-espektrometria (MS) [23,36,41]. Izan ere, LC-MS metodoak dituen selektibitate, zehaztasun eta sentikortasun altuek matrize konplexuetan aztarna-mailan dauden PPCP-en analisia laguntzen dute. Gainera, PPCP-en analisian erabilitako fluoreszentzia bezalako beste detektagailu batzuekin alderatuta, nahiz eta kromatografikoki banatzea ezinezkoa izan, MS-ak isotopikoki markatutako analogoak erabiltzea ahalbidetzen du emaitza zehatzak lortzeko. MS-ak barne hartzen dituen teknologia desberdinen

artean, azken hamarkadetan tandem masa-espektrometriak (MS/MS) arrakasta handia lortu du [36,43–45,49]. Hurbilketa horrek matrize-interferentziak gutxitzeko edo ezabatzeko gaitasuna du ioi aitzindari eta apurketa-ioi egokiak aukeratuta. Hala ere, LC-MS/MS teknikaren desabantaila nagusia, bereziki elektroesprai-ionizazioa (*electrospray ionization*, ESI, delakoa) erabilita, matrize-interferentziek analitoekin batera eluitzeagatik gertatu daitekeen kromatografia-seinalearen txikitzea/handitzea da [6,41,42,49,52]. Detekzioko matrize-efektua zuzentzeko estrategia ezagunena barne-estandarrak erabiltzea da [36] baina batzuetan ez daude merkatuan eskuragarri edo garestiak dira. Barne-estandarrak erabiltzearen alternatiba gehitze estandarrak dira, nahiz eta hurbilketa horrekin nabarmen handitzen den analisi-denbora [41]. Ondorioz, ionizazio eskasak, hondoaren zaratak eta LC sistemako akatsek eragindako okerreko emaitzak saihestu nahi badira, beharrezkoa izan ohi da interferentziak gutxitzeko prozeduran garbiketa-urratsak sartzea [23].

MS detektagailuen funtzionamenduan ematen ari diren hobekuntzek ere eragin handia dute laginaren aurretratamendu/aurrekontzentrazio prozeduretan [41]. Egungoekin alderatuta, prozedurak askoz sinpleagoak eta laburragoak izan daitezke. Esate baterako, bereizmen altuko masa-espektrometriako (*high resolution MS*, HRMS, delako) analizatzaileak dituzten masa-espektrometro hibridoen erabilerak selektibitatea hobetzen du eta positibo faltsuak saihesten ditu [53]. Gainera, HRMS analisian, erreferentziazko estandarrak erabilita egindako analisi bideratuaz gain, erreferentziazko estandarrak erabili gabeko hurbilketak egitea ere posible da, hots, susmagarrien analisia eta analisi ez-bideratua [54,55]. Susmagarrien analisian, identifikazio tentagarria burutu ahal izateko, espero diren konposatuen (“susmagarrien”) inguruko informazio espezifikoa eskuragarri dago. Bestalde, analisi ez-bideratua aldez-aurretiko inongo informaziorik gabe hasten da.

1.2 Farmakoen eta zaintza pertsonalerako produktuen esposizioa organismo urtar ez-zuzenduetan

Biotaren segimenduaz gain, *in vivo* esposizio-esperimentuak beharrezkoak dira organismo urtarretan PPCP-en metatzea, ehunen arteko banaketa, metabolizazioa eta kanporatzea ulertzeko. Uretako organismo ornodunen artean, arrainak dira PPCP-en eraginak pairatzeko arrisku handiena

dutenak, ekosisteman duten tokiaz gain, ugaztunekin prozesu fisiologiko askotan dituzten antzekotasunengatik [11]. Kutsatzaileak arrainetara sartzeko bide desberdinak daude: PPCP-ak dituen ura zein sedimentuak arrainaren azalarekin eta zakatzekin kontaktuan jarrita, dietaren bidez ahoratuta, edo amarengandik arrautzetako lipidoetan kutsatzaileak transferituta [11]. Biometatze terminoa zehaztasunez definitu gabe egon arren, biota-lagineko eta azken hori inguratzen duen eremuko konposatu kimikoaren kontzentrazioen arteko zatiketatik kalkulatzen da [15,37]. Kutsatzaileak ingurumeneko uretan disolbatuta dauden kasuan, arrainen ehunetan gertatzen den biometatzea biokontzentrazio-faktorearen (*bioconcentration factor*, BCF, delakoaren) bidez adierazi ohi da [15]. BCF-a organismoko eta orekan dagoen uretako konposatu kimikoaren kontzentrazioen arteko erlazioa da. Horrez gain, kutsatzaileen biometatzea eta xedea hobeto ulertzeko, BCF proportzionalak kalkula daitezke organismoaren ehun/organo desberdinak kontuan hartuta [15]. Izan ere, hainbat arrazoi daude ehunetan biometatze espezifikoa behatzeko. Esate baterako, farmako jakin batzuk organo/ehun espezifiko batzuetara iristeko diseinatuta daude. Hala nola, antidepresiboek burmuinean dituzte euren helburu molekularrak [13]. Hori dela eta, ahal den heinean, kutsatzaileak duen ehunen arteko banaketa espezifikoa zehaztu behar da. Izan ere, organismo guztia batera bere osotasunean aztertuta, edo soilik ehun bakarrera mugatuta, kontzentrazio osoa gutxiesteko arriskua dago eta ondorio lokalizatuek eragindako arriskuen okerreko ebaluazioa egin daiteke [13].

Lankidetza eta Garapen Ekonomikorako Erakundearen (*Organisation for Economic Co-operation and Development*, OECD, delakoaren) arabera, ehun biologikoetan biometatzeko gaitasun handia dute ur-oktanol banaketa-koefizientearen (log K_{OW}-aren) balioa 3 edo handiagoa duten substantziek (hau da, konposatu hidrofobikoek) [37]. Hala eta guztiz ere, ohiko konposatu organikoekin alderatuta, PPCP-ak nahiko hidrofilikoak dira eta, ondorioz, OECD-ak proposatutako metatze-irizpideak ez du egokitasunez azaltzen PPCP-en biometatzeko-gaitasuna [15,38]. Hori dela eta, PPCP-en biometatzea soilik euren lipofilikotasunaren bidez azaldu beharrean, bestelako prozesuak izan behar dira kontuan [9,36,39], besteak beste, animalia-homeostasia, arnasketa-esposizioa, metabolizazioa eta iraizketa-zinetika. Gainera, kutsatutako organismoetatik PPCP-en hondakinak ez dira soilik euren polaritateagatik kanporatzen [15], iraizketaren bidez ere azkar kanporatzen dira jatorrizko forman edo organismoak biotransformatuta [39].

Egun organismo ez-zuzenduetan PPCP-en biotransformazioaren eta biodegradazioaren inguruko ezagutza eza funtsezko arazoa da eta informazioa oso mugatua. Izatez, oso lan gutxi daude PPCP-en biometatzea ikertu dutenean metabolitoak eta transformazio-produktuak (TP-ak) ere kontuan hartu dituztenak [15,36]. Egoera horretan, gai horren inguruan azterketa zabalagoa egitea beharrezkoa da. PPCP-en metabolitoek eta TP-ek konposatu aitzindariak bestekoa edo handiagoa den arriskua sor dezaketenez, garrantzitsua da euren eraketa ebaluatzea esposizioaren benetako eragin osoa ez gutxiesteko [2,39,54,56]. Europako REACH konposatu kimikoen araudiaren arabera, substantzia kimikoetatik eratorritako degradazio-produktuen edo azpiproduktuen (*by-products* delakoen) iraunkortasuna eta toxikotasuna aztertu eta ebaluatu behar dira efektu toxikoak eta biometatze-gaitasuna kontuan hartuta [56].

1.2.1 Azpiproduktuen karakterizazioa

Metabolito edo TP garrantzitsuak identifikatu eta karakterizatzeko beharrizana Europako zenbait zuzentarautan eta gidaliburutan ere aipatzen da. Horren adibide da giza erabilerarako medikuntza-produktuen ingurumeneko arriskuen ebaluazioaren inguruko gidaliburua [20]. Dena den, irizpide zehatz gutxi ematen dira azpiproduktu garrantzitsuenak identifikatzeko [57] eta, PPCP-en ingurumeneko analisian, ahalegin gehienak oraindik ere konposatu aitzindarien detekzioan fokatzen dira, aldibereko metabolitoen edo TP-en analisian fokatu beharrean [45]. Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da prozesu desberdinen bidez konposatu aitzindaria apurtzeak edo ezabatzeak ez duela bermatzen toxikotasuna desagertzea, oraindik ur-ingurumenean toxikotasun eta iraunkortasun ezezaguneko azpiproduktu asko daudela uste baita. Hori dela eta, ikerketa berri asko hasi dira PPCP-en egitura-eraldaketa horiek eta degradazio-bide konplexuak karakterizatzeko asmotan.

Konposatu kimiko jakin batetik abiatuta azpiproduktuen eratzea aitzindariaren egitura kimikoaren menpekoa izateaz gain, bere ingurumeneko konpartimentu desberdinetako banaketaren eta ingurumeneko baldintza nagusien menpekoa ere bada [56]. PPCP-en degradazio-ikerketa gehienak araztegietako eta azaleko uretako prozesu espezifiko jakinetan (adibidez, oxidazioan, hidrolisian, erredox erreakzioetan, fotolisian eta mikrobioen degradazioan) eratutako TP-ak karakterizatzera mugatzen dira [7,54,56,58]. Kontrara, PPCP-ek arrainen gisako organismo

ez-zuzendutan jasan dezaketen metabolizazioaren inguruko informazioa urria da. Dena den, txosten desberdinek argi adierazten dute PPCP-ak potentzialki bioaktiboak diren metabolito desberdinetara zeharo metabolizatzen direla [2,7,59]. Metabolito terminoa giza edo animalia-gorputzean emandako PPCP-en egitura-aldaketaren ondorioz sortutako konposatuak definitzeko erabiltzen da [7], prozesu horretan gertatutako erreakzio biokimikoa edozein dela ere. Ornodunetan PPCP-en metabolizazioa, neurri handi batean, 1. Faseko eta 2. Faseko erreakzioek gidatzen dute [5]. 1. Faseak monooxigenasak (adibidez, P450 zitokromoak), erreduktasak eta hidrolasak erabiltzen ditu molekuletan funtzio-talde erreaktiboak gehitzeko. Bestalde, 2. Faseko erreakzioak glikosiltransferasen, sulfotransferasen, glutation S-transferasen, azetiltransferasen eta aminoaziltransferasen bidez katalizatzen dira. 2. Faseak konposatu aitzindaria baino polarragoa den metabolitoa eratu eta iraizketa laguntzeko glukuronidazioa bezalako konjokazio kobalentea erabiltzen du.

Bestalde, beharrezkoa da espezieen arteko aldakortasuna kontuan hartzea PPCP-en metabolizazioan [5,60,61]. Kasu batzuetan soilik espezieen menpeko aldaketa kuantitatiboak behatzen diren arren, konposatu askorentzat aldaketa kualitatiboak erakusten dituzte, baita bi ugaztunen (gizakiaren eta arratoiaren) arteko erkaketan ere [61]. Horrez gain, ikerlari batzuren esanetan, aurreikusteko zailak diren ondorio farmakologikoak edota toxikologikoak izan ditzake espezieen arteko aldakortasun horrek [61]. Gainera, *in vitro* ikerketetatik ondorioztatutako degradazio-bide guztiak ez dira *in vivo* esperimentuen adierazgarri [60,62]. *In vitro* esperimentuen arazoetako bat inkubazioaren prestaketa da, non entzima-iturria hautatu behar den. Adibidez, konposatu batzuren egonkortasuna eta metabolizazioa aztertzeko, mikrosomak eta homogeneizatuak egokiak izan daitezke. Hala eta guztiz ere, mikrosomek, entzima-iturri gisa, ez dituzte 2. Faseko metabolitoen gehiengoa sortzen [61]. Beraz, entzima-iturri gisa homogeneizatuen ordez mikrosomak aukeratzeak ondorio okerretara eraman gaitzake, eta ondorio oker horien neurria eta garrantzia aurresatea zaila da. Horregatik, garrantzitsua da esperimentuak ingurumen-baldintza desberdinetan gauzatzea, horrek ahalbidetuko baitu inoiz deskribatu gabeko azpiproduktu espezifiko posibleak detektatzea. Gainera, azpiproduktu horiek toxikotasunean eragin dezaketenez, arriskuen ebaluaziorako datu fidagarrienak eskaintzeko beharrezkoa da azken froga *in vivo* izatea [63].

Oro har, azpiproduktuen ur-ingurumeneko presentzia ez da arbuiagarria eta azpiproduktuek zeresan nabarmena dute PPCP-en ingurumeneko arriskuetan [54,56,64]. Horrenbestez, ingurumenean PPCP-en iturriak, garraioa, patua eta efektuak finkatzeko, ezinbestekoa da, azpiproduktuak karakterizatzearekin batera, ingurumen-baldintza desberdinetan esposizio-ebaluazioak egitea. Horrela, "ezezagunak" detektatu, identifikatu eta gaur egun segimendua egiten zaien azpiproduktu “ezagunen” zerrenda luzatzea posible izango da.

Dena den, gerta daitezkeen degradazio-erreakzio kopuru izugarria kontuan izanik, ingurumen-analisian azpiproduktuen identifikazioak erronka nagusienetakoa izaten jarraitzen du [54]. Gainera, analisi bideratua burutzeko erreferentziazko estandarrak eskuragarri ez egoteak are zailago bilakatzen du aipatutako erronka. Hori dela eta, azpiproduktu berrien karakterizazioan HRMS-ak indar handia hartu du. Izan ere, kuadrupolo hirukoitzeko (QqQ) masa-espektrometria bezalako bereizmen baxuko masa-espektrometriarekin erkatuta, HRMS-ak gaitasun handia du ezezagunak detektatu eta egiturak karakterizatzeko [55,64–66].

1.2.1.1 Bereizmen altuko masa-espektrometria

Ingurumeneko mikrokutsatzaile polarren analisian eta azpiproduktuen karakterizazio-ikerketetan, LC-HRMS teknika analitikoa hobetsia da [55,64]. HRMS-aren bidezko neurketen bereizmen eta masa-zehaztasun altuek, masa zehatzak eta profil isotopikoak konposatuaren zalantzarik gabeko formula molekularra ondorioztatzea ahalbidetzen dute [55,57]. Aurreko datuak masa-espektrometro hibridoetan lortutako MS/MS espektroarekin osatuta, azpiproduktuentzako hautagai tentagarriak proposatu daitezke, MS/MS espektroek egituraren inguruko informazioa ematen baitute [66]. Erreferentziazko estandarrak erabilita burutzen den analisi bideratuaren ordez, azpiproduktu berrien karakterizazioan susmagarrien analisia eta analisi ez-bideratua dira hurbilketa ohikoenak [54,55]. Lehenengo hurbilketan, susmagarriaren formula molekularrak masa/karga *(m/z)* erlazio zehatza kalkulatzea posible egiten du eta, ondoren, egiaztatze-urrats desberdinak erabili daitezke: lortutako MS espektroak profil isotopikoarekin bat egiten duen ziurtatu eta MS/MS espektrotik eratorritako egitura-informazioa egiaztatzea. Gainera, molekularen egituratik propietate fisiko-kimikoak eta, ondorioz, erretentzio-denbora kromatografikoa aurreikus daitezke. Susmagarrien analisiarekin erkatuta, analisi ez-bideratuan, masa ez-bideratuaren identifikazio osoa sarritan zaila da eta emaitza arrakastatsua ez dago beti bermatuta. Horregatik,

analisi ez-bideratua analisi bideratuaren edo susmagarrien analisiaren osagarri gisa hartzen da sarritan [64]. Analisi ez-bideratuan, intentsitate altuenekoak izan ez arren, garrantzitsuak diren gailurrak aztertzen dira. Beraz, testuinguru honetan, bibliografiako ikerketa asko bi kategoria horien (susmagarrien analisiaren eta analisi ez-bideratuaren) artean kokatzen dira. Erdibideko egoera horren adibide argia da, esaterako, baldintza kontrolatuetan diseinatutako eta burututako esperimentuetan eratzen diren azpiproduktuen identifikazioa [58,64]. Egoera mugatu horretan, gailur ezezagunen karakterizazioa konposatu aitzindariarekiko (esposizioko konposatuarekiko) antzekotasunak erakusten dituzten egitura kimikoetara mugatuta dago [55,64]. Gainera, kontroleko laginak eta denbora-serieak eskuragarri egoteak, ezezagunaren identifikazioa errazago bilakatzen du.

Egungo HRMS-ko instrumentazio modernoen artean hegaldi-denbora (*time-of-flight*, TOF, delakoa) eta Orbitrap masa-analizatzaileak aurkitzen dira [58]. Kuadrupolo masa-analizatzailearekin alderatuta, TOF eta Orbitrap analizatzaileen baitan dagoen teknologiak nabarmen hobetzen du bereizmen-ahalmena eta masa-zehaztasuna [57]. Kuadrupoloek, eremu elektriko eta magnetiko oszilakorrak erabiltzen dituzte ioiak haien *m/z* erlazioaren arabera egonkortu zein desegonkortu eta irrati-frekuentzia kuadrupolo-eremuan zehar bideratzeko. Bestalde, TOF eta Orbitrap masa-analizatzaileak ioiek eremu elektrostatikoetan duten higiduran oinarritzen dira eta ioietan eragiten duten indarrek ez dute *m/z*-rekiko menpekotasunik [67]. Horren ondorioz, oszilazio- edo hegaldi-denborak *m/z*-rekiko menpekotasun erlatibo txikia erakusten dute. TOF masa-espektrometrian, ioiak eremu elektrikoan azeleratzen dira energia zinetiko berarekin [57]. Ioiaren abiadura bere *m/z*-rekiko menpekoa denez, *m/z* determinatzeko ioiak detektagailura heltzeko behar duten denbora erabiltzen da [57]. Orbitrap analizatzailean, aldiz, ioiak elektrostatikoki harrapatzen dira orbita batean [57]. Ioien maiztasunek euren *m/z* erlazioarekiko duten menpekotasuna kontuan hartuta, ioi bakoitzaren *m/z* kalkulatzen du behin eremu elektrikoan ioi bakoitzak eratzen duen korrontea neurtuta [57]. TOF eta Orbitrap analizatzaileen arteko desberdintasun fisiko horien ondorioz, bakoitzak bere abantailak eta mugak ditu.

TOF instrumentuek masa-espektro osoak lortu ditzakete sentikortasun eta masa-bereizmen altuekin (10.000–100.000 FWHM balioekin, instrumentuaren arabera) eta masa-zehaztasun altuekin (normalean 5 ppm baino txikiagoak) [58]. TOF analizatzaile berrien ekorketa-denbora

10-100 ekorketa/s tartean dago. Balio hori nahikoa eta soberazkoa da ultra-bereizmen altuko likido-kromatografia (*ultra-high-performance liquid chromatography*, UHPLC) banaketaren bidez lortutako gailur kromatografiko estuak jarraitzeko, masa-bereizmena eta sentikortasuna kolokan jarri gabe [58,65]. Dena den, TOF analizatzaileek orokorrean bigarren mailako elektroi-biderkatzaileen bidezko detekzioa erabiltzen dute eta azken horiek detekzio-eraginkortasun maximoa ioien energia zinetiko oso altuetan lortzen dute. Zentzu horretan, nahiz eta bereizmen-ahalmena detekzio-denborarekiko edo *m/z*-rekiko independentea izan, espektroaren tarte dinamikoa detekzio-denborarekiko zuzenki menpekoa da [67]. Izatez, zenbat eta eskuratze-denbora laburragoa edo espektroaren eskuratze-abiadura azkarragoa izan, orduan eta estuagoa da tarte dinamikoa TOF masa-analizatzaileetan. Kontrara, Orbitrap masa-analizatzaileetan bereizmen-ahalmena detekzio-denboraren eta oszilazio nagusien periodoaren arteko erlazioarekiko proportzionala da [67]. Ondorioz, detekzio-denboraren eta tarte dinamikoaren arteko menpekotasuna xamurragoa da, eta Orbitrap masa-analizatzaileak TOF masa-analizatzailearen mugarik garrantzitsuena (detekziorako tarte dinamikoa) gainditzen du. Horrez gain, azken Orbitrap masa-analizatzaileek bereizmen-ahalmen handieneko TOF masa-analizatzaileek baino bereizmen altuagoa eskaini ohi dute (>100.000 FWHM) [58,67]. Hori gutxi balitz, TOF masa-analizatzaileekin erkatuta, Orbitrap instrumentuetan masa-zehaztasuna bermatzeko kanpo-kalibrazioa erabil daiteke eta honek operazio-protokoloa sinplifikatzen du [68]. Dena den, Orbitrap masa-analizatzaileak duen desabantailarik garrantzitsuena masa-bereizmenarekiko alderantziz proportzionala den bere ekorketa-abiadura luzea da [58,65,67]. Nahiz eta Orbitrap masa-analizatzailearen teknologia aurreratzen ari den eskuratze-abiadura azkarragoak lortuz, arreta ezarri behar da kromatografian. Izan ere, gailur-zabalerak segundo gutxi batzutakoak badira, gailurra definitzen duten puntu-kopurua nahikoa ez izatea gerta daiteke [58].

Bai TOF eta bai Orbitrap masa-analizatzaileetan ioien injekzioak edo sarrerak azelerazio bortitza ekartzen duenez, analizatzaileko energia zinetiko altuak ioien apurketa eragin dezake MS^n espektroen kalitatea kaltetuz. Horrek azaltzen du zergatik erabiltzen diren TOF eta Orbitrap masa-analizatzaile gehienak modu hibridoan, bakarkako konfigurazioan beharrean [67]. Bi MS teknika (bata bereizmen altukoa eta bestea baxukoa) konbinatzen dituzten tandem MS hibridoek matrize desberdinetan masa molekular txikiko konposatuen detekzio eta identifikazio azkarra, sentikorra eta fidagarria bermatzen dute [23,55,58]. Esate baterako, kuadrupolo-Orbitrap masa-

espektrometroa oso tresna erabilgarria bilakatu da azpiproduktuen karakterizazioan eta ingurumeneko ikerketetan [59], batik bat, masa zehatzeko neurketaren eta datuen menpeko MS/MS ekorketaren (*data dependent MS/MS*, ddMS2, delako ekorketaren) arteko konbinazioan oinarritutako eskuratze-modua erabilita. Aipatutako ddMS2 eskuratze-moduan, MS/MS espektroa lortzeko apurketa jasango duten ioi aitzindariak aurrez definitutako irizpideak erabilita (ioien ugaritasuna edo lehentasunezko ioi-zerrenda) hautatutako ioiak dira. Bestalde, ioi guztien apurketa (*all ion fragmentation*, AIF, delako) eskuratze-moduan, inongo ioi aitzindarien isolatzerik gabe ioi guztiak apurketa-ekintza bakarrean apurtu eta apurketa-ioi guztiak gordetzen dira espektro misto bakarrean. AIF eskuratze-moduaren abantaila konposatu guztien MS eta MS/MS datu guztiak neurketa bakarrean biltzeko gaitasuna da, laginen injekzio gehigarrien beharrik gabe. Hala ere, aldibereko kromatografia-eluzioak daudenean, datuen interpretazioa asko zailtzen da, apurketa-ioiak batera eluitzen duten ioi aitzindari desberdinen eratorriak izan daitezkeelako. AIF eskuratze-moduarekin alderatuta, datuen menpekotasunik gabeko eskuratze-moduan (*data independent acquisition*, DIA, delakoan), apurketa-ioiak ioi aitzindarien masa-tarte txikiagotik eratorritakoak direnez, selektibitatea hobetzen da. Dena den, datuen interpretazioa oraindik ere ddMS2 eskuratze-moduan baino konplexuagoa da.

HRMS-an erabilitako hurbilketa eta eskuratze-modua edozein direla ere, azpiproduktuen edo beste konposatuen identifikazio bakoitzaren konfiantza-maila desberdina da. Hori adierazteko irizpideak bateratu nahian, Schymanski-k eta lankideek maila desberdinetan antolatutako identifikazio-sistema proposatu dute [66]. Maila baxuena 5. maila da, eta konposatu ezezagunaren masa zehatza soilik ematen du. 4. mailak, 5. mailak ez bezala, informazio nahikoa dauka formula molekularra adierazteko. 3. mailan, aldiz, behin behineko hautagaiak proposatzen dira. Izan ere, egitura posibleak proposatzeko ebidentziak egon arren, eskuragarri dagoen informazioa ez da nahikoa egitura zehatz jakin bat lortzeko. Kontrara, 1.go eta 2. mailetan egitura zehazten da. 1.go mailan egitura erreferentziazko estandarra erabilita egiaztatzen da MS, MS/MS eta erretentzio-denborak bat egiten duela baieztatuz. Bestalde, 2. mailan egitura probablea proposatzeko, erreferentziazko estandarra erabili beharrean, baliabide desberdinak erabiltzen dira: liburutegiekiko konparaketa (2a maila) edo diagnostikatutako MS/MS zatikatzea (2b maila) datu bibliografikorik eskuragarri ez dagoenean.

1.2.2 Metabolomika albo-ondorioen ikerketan

Ingurumenean PPCPen eragina ebaluatzean, ez da nahikoa konposatuen biometatzea aztertzearekin, esposizioak organismoetan dituen efektuak ere kontuan izan behar dira [69]. Azpimarratu beharra dago ikerketa gutxik lotu dituztela organismo ez-zuzenduetako PPCP-en biometatzea eta horrek izan ditzakeen albo-ondorioak. Azken ikerketetako emaitzen arabera, PPCP-en toxikotasunean aldagai desberdinek dute eragina, hala nola kutsatutako organismoak, esposizioko unean organismoaren garapen-mailak, esposizio-denborak eta dosiak [10–15]. Ondorioz, metatze- eta biotransformazio-lanekin batera, zeharo garrantzitsua da PPCP-ek uretako organismoetan sor ditzaketen albo-ondorioak ebaluatzea.

PPCP-ak funtzio jakin baterako diseinatzen dira eta hauek ez-zuzendutako organismoetan duten ekintza-moduaren inguruan informazio gutxi dago eskuragarri. Esate baterako, farmakoak dosi baxuetan beraien aktibitate biologikoa handitzeko diseinatzen dira, zenbait helburu metabolikotara eta entzimatikotara, zein seinaleztapen zelularreko mekanismotara, bideratuta. Aipatutako helburu molekular horietako asko espezie desberdinetan berdinak direnez, PPCP-ak ez-zuzendutako organismoetan farmakologikoki aktiboak izateko aukera nabarmen handitzen da. Beraz, PPCP-en ekintza-modua ez-zuzendutako organismo urtarretara hedatu eta horrek konposatu horien arrisku ekotoxikologikoak handitu ditzake [35]. Hala ere, PPCP batek espezie batean sor ditzakeen eraginak ezin dira zuzenean beste espezie ez-zuzenduetara estrapolatu, desberdintasunak izan ditzaketelako bai PPCP-en biometatze-gaitasunean eta baita espezie/organismo/ehun desberdinetan PPCP-ek duten selektibitatean ere. Hortaz, PPCP-en patuaren eta eraginen arteko korrelazioaren inguruan dagoen informazio-hutsunea osatzeko, beharrezkoa da esposizio-ikerketa gehiago burutzea [31].

Araztegietako PPCP-en isurketen eraginei buruzko ingurumen-ikerketak mugatuak diren arren, adibideek argi uzten dute kutsatzaile horiek oso arriskutsuak izan daitezkeela organismo urtarrentzat [2,5,10,11]. Jadanik deskribatutako albo-ondorioen artean ditugu aldaketa histologikoak, jokabide-efektuak, erantzun biokimikoak eta geneen gorako zein beherako erregulazioa. Erantzun horiek, oro har, ez dira arrisku-ebaluazioko egungo hurbilketetan sartzen, nahiz eta kutsatzaileen oso kontzentrazio baxuetan behatu daitezkeen albo-ondorioak izan. Aldiz, egun araututako azterketekin ebaluatzen diren efektuak behatzeko beharrezkoak diren

kontzentrazioak magnitude-ordena handiagokoetakoak izan daitezke [2]. Ohiko azterketa arautu horien artean aurki ditzakegu hilkortasunean duen eragina behatzen duten azterketa akutuak edo ugaltze- eta hazkuntza-efektuak ebaluatzen dituzten azterketa kronikoak. Dena den, azken ebidentziek egungo jarraibideetan aplikatzen diren azterketa estandarrak eta ebaluatutako parametro estandarrak ezegokiak izan daitezkeela frogatzen dute [70]. Ondorioz, PPCP-en ingurumeneko kontzentrazio baxuek organismo urtarretan eragiten dituzten albo-ondorioak ebaluatzeko, erantzun sentikorragoak erabiltzearen beharra azpimarragarria da.

Horretarako, azken hamarkadetan, teknika "omikoak" oso erabilgarriak bilakatu dira ingurumenean agertzen diren kutsatzaileek maila ez-hilgarrietan eragiten dituzten efektuak ikertu eta beraien ekintza-modua ulertzeko [71]. Teknologia “omikoek” lagin biologiko jakin batean geneak (genomika), RNAm (transkriptomika), proteinak (proteomika) eta metabolitoak (metabolomika) jarraitzen dituzte eta euren helburua zelula, ehuna edo organismoa osatzen duten molekulen ikuspegi holistikoa ematea da [72]. Genomikak eta transkriptomikak organismoaren genoma (DNA osoa) eta transkriptoma (RNAm osoa) sistematikoki ikertzen dute, hurrenez hurren. Izan ere, transkriptomak edozein une jakinetan modu aktiboan adierazita dauden geneak islatzen ditu, eta gene-aktibitatearen laburpen gisa gene-adierazpenerako mikromatrizeen bidez paketatutako RNAm neurtzen da. Nahiz eta genomikak eta transkriptomikak interes berezia sortzen duten determinazio genetikoarekin lotutako gaixotasunen aurrean, badute muga garrantzitsu bat. Gene-adierazpenerako mikromatrizearen bidez ez dira proteinak neurtzen, RNAm ugaritasun-aldaketak baizik eta, horrek, datuen interpretazioan desadostasunak sortzen ditu. Bestalde, proteomikaren helburua zelularen eta organismoaren informazio-fluxua karakterizatzea da, proteina-bideen eta sareen bidez. Proteina-adierazpena aztertuta, proteomikak proteinen garrantzia funtzionala ulertzen laguntzen du, baina oso zaila da bere domeinu-tamaina (100.000 proteina baino gehiagokoa) oso handia delako eta ugaritasun txikiko proteinak ezin direlako zehaztasunez detektatu. Aldiz, metabolomak domeinu txikiena (5000 metabolito inguru) dauka. Metabolomika ikerketa-arloak, oro har, baldintza batzuetan sistemaren (zelularen, ehunaren edo organismoaren) metabolitoen profil orokorrak aztertzen ditu. Izatez, metabolomikak saiakuntza toxikologiko estandarrak maiz detektatzeko gai ez diren maila molekularreko aldaketak antzematen ditu [73–77]. Gainera, metabolitoak adierazle sentikor bihurtzen dira, maila hierarkiko altuagotako (zelula-, ehun-, organismo- edo biztanleria-mailako) eraginen aurretik beti gertatzen

direlako aldaketak prozesu biomolekularretan [78]. Ildo beretik, metaboloma gene-transkripzioaren azken urratseko produktua denez, metabolomako aldaketak areagotu egiten dira, transkriptomako eta proteomako aldaketekin erkatuta [72]. Azken hau, metabolomikaren beste abantaila argia da gainontzeko hurbilketa "omikoekiko". Gainera, metaboloma, produktu eratorri gisa, aztertutako sistema biologikoaren fenotipotik hurbilen dagoena da. Testuinguru horretan, oso esparru erabilgarria da ondorio kaltegarrien bidea (*adverse outcome pathway*, AOP, delakoa). AOP delakoaren helburua ekintza abiarazle molekularraren eta arrisku ekologikorako esanguratsua den organismo mailako behaketen arteko lotura frogatzea da [79]. Arrisku ekologiko horien artean ditugu biziraupeneko, garapeneko, zein ugalketako albo-ondorioak, banakoei eragiteaz gain, populazio-mailara heda daitezkeenak.

Guzti hori dela eta, metabolomika hurbilketa eraginkorra da natura- eta bizitza-zientzien arloko ikerketetan [77]. Metabolomikaren bidez, zelula, ehun zein jariakin desberdinak aztertuta, barneko edo kanpoko estimuluen erantzun gisa espezie desberdinetan gertatzen diren metabolito-mailako (oro har, <1000 Da) aldaketa biologikoak azal daitezke. Esate baterako, gaixotasunen diagnostikorako onarpen zabala lortu du metabolomika klinikoak, ezinbesteko doitasun-baliabide bilakatzeraino [80]. Bestalde, ingurumeneko kutsatzaileen agerpena aurretiaz aipatutako kanpoko estimuluaren adibide argia den arren, oraindik ingurumeneko metabolomikan lan asko dago burutu gabe. Nahiz eta ingurumeneko metabolomikaren aplikazioak zeharo hedatu eta ugaritu diren [81], arlo honetan oraindik erronka izaten jarraitzen dute laginaren prestatzeak, erauzien analisiak eta datuen tratamenduak.

1.2.2.1 Laginaren prestatzea eta analisia metabolomikan

Metabolomikak, profil metabolikoak eratzeko, ehunetatik edo jariakinetatik molekula txiki ugariren erauzketa eta neurketa hartzen ditu bere baitan. Prozedura horren baitan, urrats neketsuena eta denbora aldetik mugatzaileena, ehunetatik edo jariakinetatik metabolitoak erauztea da [82]. Kasu batzuetan, metabolito edo familia konkretu bateko metabolito jakin batzuk aztertzen dira. Baina beste batzuetan, polaritate-tarte zabala duten metabolitoak dira erauzi beharrekoak eta, kasu horietan, zaila da analito guztientzat erauzketaren kuantitatibotasuna bermatzea. Alde batetik, aminoazidoen gisako metabolito hidrofilikoak erauzteko disolbatzaile organiko polarrak (hau da, metanola) erabiltzen dira, normalean urarekin nahastuta. Bestalde,

lipido asko bezalako metabolito hidrofobikoak hobeto erauzteko disolbatzaile ez-polarrekin (hau da, kloroformoa) lan egin behar da [83]. Ildo horretan, metabolomikarako funtsezko metodo bat ezarri nahian, hainbat ikerketek ebaluatu dituzte disolbatzaile desberdinen arteko konbinazioen egokitasuna, eta baita ehunak birrintzeko eta disolbatzailea gehitzeko estrategien eraginkortasuna ere [82,84]. Hala eta guztiz ere, ehunetan propietate fisiko-kimiko oso desberdinak dituzten metabolito asko daudenez, ez dago metodo perfekturik metabolito mota guztiak modu eraginkorrean eta errepikakorrean aldi berean erauzteko [83]. Horrenbestez, garrantzitsua da kasu jakin bakoitzerako metodo egokiena aukeratzea. Gainera, ondorengo neurketan arazoak gutxitu eta emaitza okerrak saihesteko, aldagai desberdinak kontuan izatea komenigarria da, hala nola aztertuko den laginaren izaera edo erabiliko den analisi-hurbilketa (bideratua edo ez-bideratua).

Erauzien analisiari dagokionez, erresonantzia magnetiko nuklearra izan den arren analitoen maila neurtzeko tresna nagusia, ingurumeneko metabolomikan sentikortasun altuagoa duten MS hurbilketek ospea irabazi dute azken urteotan [83,85,86]. Ingurumeneko metabolomikan teknika analitiko erabilienak ondorengoak dira: sarrera zuzeneko MS (*flow injection* edo *direct infusion MS*, DIMS, delakoa) eta GC eta LC, biak MS-ra akoplatuta. DIMS metodoan lagina zuzenean sartzen da masa-espektrometroko ionizazio-iturrira, aldez aurretiko metabolitoen banaketa kromatografikorik gabe. Teknika horretan, nahiz eta lagin-kopuru txikiak sentikortasun altuarekin neurtu daitezkeen, badaude banaketa-urratsaren gabeziak sortutako bi muga nagusi: seinalearen txikitzea/handitzea eta ekidin ezin den metabolitoen gainezarpen isobarikoa [83,85,86]. MS-ari akoplatutako kromatografia-tekniken artean, LC-MS da ohikoena, GC-MS erabili ahal izateko aurretiazko metabolito polarren deribatizazio-urratsa beharrezkoa izan ohi delako [83,85,86]. LC-an, metabolitoen banaketa hobetu nahian, zutabea eta disolbatzaileak aukeratuko dira [85,86]. Normalean, metabolito ez-polarrenen banaketarako alderantzizko faseko LC hobea den bitartean, metabolito polarren banaketarako elkarrekintza hidrofilikoan oinarritutako LC (*hydrophilic interaction liquid-chromatography*, HILIC, delakoa) aukeratzen da [85]. Azken hori, fase normalaren alternatiba da, eta errepikakortasun eta sendotasun hobeak bermatzen ditu.

Metabolomikako lanetan hurbilketa bideratuak zein ez-bideratuak erabiltzen dira [83,86,87]. Hurbilketa bideratuetan, erreferentziazko estandarrak erabilita, metabolito ezagunen analisia burutzen da eta, ondorioz, okerreko bide-metabolikoak interpretatzera eraman

gaitzaketen positibo faltsuak saihesten dira. Aldez aurretik aukeratutako metabolito ezagunen identifikazio eta kuantifikazio fidagarria burutu nahi den kasuetan, MS bideratua da aukeratu ohi den teknika [86]. Gainera, isotopikoki markatutako barne-estandarren erabilerak ere lagundu dezake zehaztasun eta doitasun analitikoan eragin dezakeen matrize-efektua zuzentzen [88]. Zuzenketa horren ondorioz, erantzun biologikoa detektatzeko saiakuntzaren sentikortasuna hobetu egiten da [88]. Analisi bideratuak duen desabantaila nagusiena metabolomaren estaldura mugatua da eta, horrek, interesa duen erantzun metabolikoren bat aintzakotzat ez hartzeko arriskua handitzen du. Analisi bideratuan ez bezala, hurbilketa ez-bideratuen xedea analisi bakarrean ahalik eta metabolito gehien detektatzea da, xenobiotikoen arriskuak ulertzera eraman gaitzaketen metabolito berriak aurkitzeko ahalmena bermatuta [73,83,87]. Metabolito asko polaritate-modu bakarrean ionizatzen direnez, estaldura metabolikoa handitu ahal izateko, datuak ionizazio positiboan eta negatiboan eskuratu behar dira eta analisi kopurua bikoiztu egiten da. Alternatiba gisa, polaritate-aldatze azkarra burutzeko gai diren masa-espektrometroak erabil daitezke, zeintzuk, datuak bi polaritate-moduetan aldi berean eskuratuta, analisi-denbora osoa bi aldiz murriztu dezaketen. Hala eta guztiz ere, polaritate-aldatze modua erabiltzeak baditu desabantailak, hala nola neurketa-ziklo mugatua eta konposatu batzuen sentikortasun-jaitsiera [83]. Azken hori polaritate-aldatze modua erabiltzerakoan metabolito guztientzat (azidoak zein baseak) fase mugikor bera erabiltzearekin lotuta dago, metabolitoak ionizatzeko eraginkortasuna murrizten baita.

Hurbilketa ez-bideratuetan, erreferentziazko estandarren faltan metabolitoen identifikazioan positibo faltsuak saihesteko, oso gomendagarria da arestian aipatutako HRMS erabiltzea [83]. Gainera, azken HRMS hibridoak analisi ez-bideraturako erabiltzeaz gain, kuantifikaziorako ere baliagarriak dira [87]. Hau da, HRMS hibridoen moldakortasunak LC-MS analisi guztietarako MS teknologia bera erabiltzea ahalbidetzen du, lan-prozedurak sinplifikatuta eta produktibitatea hobetuta [87]. Horregatik, metabolomikaren arloan lan egiten duten laborategi gehienetan funtsezko tresna bihurtzen ari da.

Oro har, hurbilketa bideratuak zein ez-bideratuak baliagarriak dira ingurumeneko kutsatzaileek organismoetan eragiten dituzten erantzun azpihilgarriak ebaluatzeko [83,86,87]. Erabiltzen den analisirako hurbilketa edozein dela ere, emaitzak eskuratu ondorengo lehen urrats

garrantzitsua datu gordinak prozesatzea da. Orokorrean, dimentsio askotariko eta korrelazio anitzeko datuak lortzen direnez lagin errepikatu gutxi batzuentzat, datuak prozesatu ondoren, beharrezkoa da datuen tratamendu estatistiko egokia burutzea [89,90].

1.2.2.2 Datuen tratamendua metabolomikan

1.2.2.2.1 Datuen prozesatzea

Datu gordinen prozesatzea software libretan edo komertzialetan garatutako lan-fluxu desberdinen bitartez aurrera eraman daiteke eta ondorengo urratsak izaten dituzte bere baitan: datuen iragazketa, gailurren detekzioa, falta diren balioen inputazioa, gailurren lerrokatzea eta datuen normalizazioa, besteak beste [85,91]. Iragazte-metodoek seinale gordina prozesatzen dute zarata eta oin-lerroa ezabatuta eta, jarraian, gailurrak detektatzen dira benetako ioiek sortutako seinale guztiak identifikatu eta positibo faltsuen detekzioa saihestuz. Gainera, datu-multzoak hutsuneak dituen kasuetan, datuen prozesatzeko urrats oso garrantzitsua bihurtzen da "hutsune-betetze" algoritmoa ere [89,92]. Falta diren balioak inputatzeko metodoen artean, *k-nearest neighbor* (KNN) delako metodoak sendotasun onenetarikoa erakutsi du metabolomikako datuentzat [93]. Bestalde, lerrokatze-metodoak beharrezkoak dira injekzio desberdinen arteko erretentzio-denboraren aldaketak zuzendu eta lagin desberdinen neurketen datuak bateratzeko. Azkenik, normalizazio-urratsean desbiderazio edo alboratze sistematikoak sortzen dituzten faktoreak ezabatzen dira. Zuzenketa hori aplikatu ezean, emaitza estatistiko okerretara hel gaitezke joera-efektu horiek datuen aldakortasunaren iturri nagusi izan daitezkeelako [94–96]. Besteak beste, joera horiek laginaren prestatzetik edo neurketa desberdinen artean sor daitekeen ioi-intentsitate aldaketetatik etor daitezke, azken hau ohikoena delarik. Metabolomikako lanetan seinaleen joera horiek gutxitu edo ezabatzeko estrategia erabilgarri desberdinak daude, hala nola kalitate-kontrolerako (*quality control*, QC, delakorako) laginak erabili eta laginen analisia zoriz burutzea [83,85,96,97]. QC laginei dagokienez, esperimentuan aztertuko diren laginekiko biologikoki berdin-berdinak izan beharko lirateke, konposizio metaboliko eta matrize antzekoarekin [97].

Ikerketan QC laginak erabiltzeak datuen kalitatearen jarraipena egitea bermatzen duen bitartean, auzi biologiko jakina erantzuteko datuak lortu ahal izateko beharrezkoa da diseinu

esperimental egokia ezartzea [97]. Adibidez, lagin-kopurua diseinu esperimentalean zehaztu beharreko ezaugarri garrantzitsua da [96]. Izan ere, ikerketaren oinarrian dagoen auzi biologikoari buruzko ebidentzia fidagarriak ematerako orduan porrot egiteko arrazoi desberdinak daude. Arrazoi horietako bat aztertutako lagin-kopuru murritza izan daiteke. Ondorioz, ikerketa zientifiko on bat beti diseinu esperimental zorrotz batekin hasi beharko litzateke [89]. Garrantzitsua da, adibidez, kobarianterik edo nahaste-faktorerik ez egotea edo, behintzat, horiek ondo karakterizatuta egotea. Horrela ez bada, ezin da ziurtatu behaketa biologikoekin erlazionatutako bariantza ikerketa burutzean sortu dugun bariantza baino nabarmenki handiagoa denik. Gainera, analisi estatistikoan, nahaste-faktoreekin lortutako informazioa kontuan izan behar da ondorio biologiko faltsuak ekiditeko [97].

Helburu esperimentalek gidatu beharko lukete diseinu esperimentala eta, lortutako emaitzekin batera, diseinu esperimentalak baldintzatuko luke jarraitu beharreko analisi estatistikorako hurbilketa [98,99]. Datuen egituraren eta banaketaren arabera, beharrezkoak izan daitezke normalizazio- eta eskalatze-urratsak baliabide estatistiko batzuk aplikatu aurretik [89,92]. Eskalatzeak neurtutako erantzunen aldakortasunaren desberdintasun handiek sortutako metabolitoen arteko aldaketa-mailen desberdintasunak doitu ditzake [92]. Eskalatze-metodoen artean Pareto eta autoeskalatzea delakoak aurki ditzakegu [90,92]. Autoeskalatzea da metabolomikan gehien erabiltzen den metodoetako bat, eta metodo horretan aldagaiaren ugaritasunak ez du eraginik. Izan ere, metabolito bakoitzaren desbideratze estandarra 1 bihurtzen du gailur bakoitza batezbestekora erdiratu eta zutabeko desbideratze estandarrarekin zatituta [92].

1.2.2.2.2 Analisi estatistikoa

Datuen analisi estatistikoan, aldagai bakarreko [90,96] zein aldagai anitzeko [75,88,90,99,100] hurbilketak aplikatu izan dira ikerketa-auzia kontrolekotik bereizten duten metabolitoak identifikatu eta begi bistaz datuak analizatzeko. Metabolomikako datu-multzoek izan ohi dituzten dimentsio handiak direla eta, ikerketa gehienek aldagai anitzeko ereduak erabiltzen dituzte aurkikuntza nagusiak azaltzeko. Hala eta guztiz ere, metabolomikako datu-multzoetan aldagai-kopurua lagin-kopuruarekin erkatuta oso handia izan ohi da eta horrek datuen tratamenduan arazoak sortzen ditu [91,96,99]. Horrek funtsezko akatsak sor ditzake, ereduen aurresateko gaitasuna murriztuz [96]. Ondorioz, kasu batzuetan egokiagoa izan daiteke aldagai

bakarreko analisian oinarritutako baliabide estatistikoak aukeratzea. Gainera, hurbilketa bat erabiltzeak ez du zertan bestea kanpoan utzi behar eta ikertzaile batzuk aldagai bakarreko eta aldagai anitzeko hurbilketak konbinatzea gomendatzen dute metabolomikako datu-multzoetatik informazio garrantzitsua hobeto ateratzeko [89,96]. Izatez, aldagaiak hautatzeko eta arestian aipatutako aldagai-kopuru handia nabarmenki murrizteko, sarritan erabiltzen dira aldagai bakarreko metodoak iragazki gisa aldagai anitzeko ereduekin batera [101,102]. Oro har, aldagaien hautatze horrek berebiziko eginkizuna du metabolomikan eta bioadierazleen miaketa gisa ere ezaguna da. Laburki, bioadierazleen miaketa metabolomikako datu-multzotik metabolito garrantzitsuenak ateratzean datza eta metabolito horiek ikerketaren oinarrian dagoen galdera biologikoa erantzuten lagunduko digute [90]. Bioadierazleak, definizioz, zelulak, ehunak edo organismoak egoera osasuntsuan edo asaldatuan dauden adierazteko erabil daitezkeen entitate biologikoak dira [90]. Beraz, bioadierazleek kontrol- eta auzi-laginak bereizten dituzte euren kontzentrazio-mailari erreparatuta. Hala eta guztiz ere, zoritxarrez, nahiko erraza da esanguratsuak iruditu arren okerrekoak diren adierazleak aurkitzea [90]. Hori dela eta, datuen tratamenduan erabilitako baliabide estatistikoa edozein dela, garrantzitsua da I. motako erroreak (positibo faltsuak) kontrolatzea tratamenduen arteko aldibereko erkatze anitz egiten diren datu-multzoetan [88,96].

- **Aldagai bakarreko datuen analisia**

Aldaketak jasan dituzten metabolitoak hautatzeko aldagai bakarreko analisia erabiltzen denean, hipotesi-froga estatistikoak aplika daitezke [90,96], beti ere diseinu esperimentalaren eta datuen banaketaren ezaugarriak kontuan hartuta. Esate baterako, datuek banaketa normala badute, t-froga edo bariantza-analisia (*analysis of variance*, ANOVA, delakoa) bezalako froga parametrikoak erabili ohi dira. Dena den, erregresio-analisia ere erabil daiteke eta, besterik esan ezean, erregresio linealtzat ulertzen da [103]. Nahiz eta ANOVA eta erregresio-analisia funtsean ez diren analisi-mota desberdinak, erregresio-analisian beharrezkoa da aldagai askea(k) aldagai jarrai gisa hartzea.

Erregresio-analisiarekin datuak malda eta ordenatu parametroekin azaltzen direnez, muga nagusiena aldagaien eta erantzunen arteko erlazioa ahalik eta zuzenena izatea da [103], horrela izango ez balitz ahalmen estatistikoa galtzen baita. Hala ere, ANOVA-rekin erkatuta, erregresio-

analisian ereduaren bi parametro bakarrik (ordenatua eta malda) determinatzen direnez, ANOVA-k baino askatasun-gradu gehiago ditu eta, ondorioz, ahalmen estatistiko handiagoa du [103]. Horrez gain, aldagai aske bat baino gehiago dituzten diseinu esperimentalen kasuan, banatutako erregresio-zuzen bat eratzen da bigarren aldagai askeko talde bakoitzarentzat [103]. Esate baterako, kontroleko eta kutsatutako taldeen metabolismoaren erantzuna denboran zehar kontrolatzen duten metabolomikako esperimentuetan, kontrol-taldeak erregresio-zuzen bat izango luke eta kutsatutako-taldeak beste erregresio-zuzen bat. Gainera, erregresio-analisiak aldagai azaltzaileen arteko elkarrekintzak ere kontuan har ditzake [98]. Aldagai askotariko erregresio linealeko (*multiple linear regression*, MLR, delako) ekuazioan, elkarrekintza aurreko aldagaien produktua den aldagai berri bat bailitzan gehitzen da. Arestian aipatutako adibidean, aurresate-erregresioaren ekuazioa ondorengoan bilakatzen da: "Y(denbora,dosia) = β_0 + $\beta_{denbora}$·denbora + β_{dosia}·dosia + $\beta_{denbora·dosia}$denbora·dosia". Dosi-taldea finkatuta dagoenean (α), ekuazioa ondorengora sinplifikatzen da: "Y(denbora,α) = (β_0 + α·β_{dosia}) + ($\beta_{denbora}$ + α·$\beta_{denbora·dosia}$)·denbora". Hortaz, erantzuna denborarekiko lerro zuzena da eta, denbora·dosia elkarrekintzaren gakoa, talde bakoitzak (kontrolak eta kutsatuak) malda desberdina izatean dago [98]. Elkarrekintza horren p-balioa esanguratsua denean (orokorrean p-balioa < 0,05), aldagai horrek erantzunean duen eraginak beste aldagaiaren balioarekiko menpekotasuna duela esan nahi du.

Aurrez aipatu bezala, aldagai bakarreko hipotesi-froga edozein dela, hipotesi nulua zoriz oker baztertzeko (I. motako errorea) probabilitatea handitu egiten da hipotesi-froga kopurua handitzean, eta garrantzitsua da positibo faltsuak kontrolatzea [88,96]. Argitaratutako "omikako" ikerlanen arabera, froga anizkoitzen arazoa kudeatzeko modu ohikoena aurkikuntza faltsuen tasa (*false discovery rate*, FDR, delakoa) kalkulatzea da [88]. Badira beste aukera batzuk ere, hala nola FDR-a baino zorrotzagoa den Bonferroni-ren zuzenketa [96]. Ildo horretan, FDR metodoak oreka bilatzen du emaitza faltsu gehiegi egitearen eta benetako aldaketak aurkitzeko aukera galtzearen artean. FDR zuzenketak p-balio zuzendua edo q-balioa kalkulatzen ditu aztertutako aldagai metaboliko bakoitzarentzat. Aldagai bakoitzari dagokion q-balioak, aldagai hori esanguratsua dela esatean espero daitekeen positibo faltsuen proportzioa adierazten du. Oro har, errore-tasa % 5ean (q-balioa 0,05) finkatzen den arren, hurbilketa honek, errore-tasa ikertzaileak berak ikerketaren eskakizunen arabera hautatzeko aukera ematen du [96].

Aldagai esanguratsuak identifikatzeko beste modua aldagaiaren aldaketa-mailaren (*fold change*, FC, delakoaren) arabera sailkatzea da. FC-aren mozketa-balioa ikerketaren arabera ezartzen den arren, 1,5 balioa nahiko ohikoa da bibliografian [96]. Horrek esan nahi du erkatzen diren bi taldeen artean gutxienez % 50eko aldaketa gertatu dela.

- **Aldagai anitzeko datuen analisia**

Aldagai bakarreko hurbilketak ez direnez gai aldagaien arteko kobariantza kontuan hartzeko, metabolomikako lan askotan aldagai anitzeko analisi estatistikoa burutzen da. Datuen azpian dauden joerak bilatzeko, aldagai anitzeko analisiak aldagai guztiak aldi berean hartzen ditu kontuan eta, datuen interpretazioa errazteko, sarritan patroien antzemate-metodoetan oinarritzen dira [75,81,88,99]. Izatez, datu-multzoen dimentsioak ehundaka aldagaietatik bi edo hiru osagaietara murrizteko gai dira. Metabolomikako datuen tratamenduan erabiltzen diren aldagai anitzeko hurbilketa estatistiko ohikoenak osagai nagusien analisia (*principal component analysis*, PCA, delakoa) eta karratu txiki partzialen bidezko analisi diskriminatzailea (*partial least squares-discriminant analysis*, PLS-DA, delakoa) dira [75,90].

Zalantzarik gabe, PCA da metabolomikan gehien erabiltzen den aldagai anitzeko hurbilketa [75,91,99]. PCA gainbegiratu gabeko metodoa da, hau da, ereduan ez da sartzen laginen klaseari buruzko informaziorik [75]. Beraz, laginetan behatzen diren joerak edo multzokatzeak beraien profil metabolikoen arteko antzekotasunean oinarrituko dira nagusiki. Joera edo multzokatze horiek PCA-ko *scores* grafikoetan behatu eta horietan laginak osagai nagusiek definitutako planoetan kokatuta daude. Hain zuzen, grafiko hori bazterreko balioak edo *outlier-ak* deritzen ez-ohiko balioak detektatzeko ere erabil daiteke, beste estrategia batzuekin batera. Bazterreko puntuak identifikatzea oso garrantzitsua da datu-multzoan adierazgarria ez den aldakortasun handia sartu eta, ondorioz, esanguratsuak diren erantzunen identifikazioa lausotu dezaketelako [75,88,89]. Bestalde, PCA-ko *loadings* grafikoek aldagaiek laginen banaketa horretan duten eraginaren inguruko informazioa ematen dute. Hala ere, objektuen multzokatzeak agerian geratu daitezen, talde barneko aldakortasuna taldeen artekoa baino esanguratsuki txikiagoa izan behar da [99].

Hori dela eta, metabokomikako datuen tratamenduaren hasierako urrats gisa erabiltzen den

gainbegiratu gabeko aldagai anitzeko metodoen adibide da PCA, datu-multzoaren egiturari eta taldeen arteko harremanei lehen begiratua emateko. Ondoren, laginak sailkatzeko eta bioadierazleak aurkitzeko, gainbegiratutako metodoak (hau da, PLS-DA) erabili ohi dira, ereduak eratzeko behaketa bakoitzaren identitatean oinarritzen direnak [75,88,91,99]. PLS-DA hurbilketan, klaseen arteko banaketa handitu eta klaseen banaketarekin zerikusia duten metabolitoen bilaketa errazten da. Aldagaiek proiekzioan duten garrantzian (*variables importance on projection*, VIP, delakoan) oinarritutako metodoa oso hurbilketa erabilia bihurtu da bioadierazle izan daitezkeen konposatuak zehazteko [90,99]. Orokorrean, VIP-aren balioa 1 baino handiago duten hautagaiak aukeratzen dira [90]. Dena den, gainbegiratutako ereduen funtzionamendu egokia bermatzeko eta datuen gehiegizko doitzea saihesteko, beharrezkoa da ereduaren berrespen estatistikoa egitea [75,88,90,99]. Berrespen horren baitan daude zeharkako berrespena eta permutazio-frogak. Zeharkako berrespen metodoak PLS erregresio-ereduko osagai kopuru optimoa zehaztu eta aldagai bakoitzaren ziurgabetasuna estimatzeko erabiltzen dira [90]. Horrez gain, definitutako taldeen arteko bereizmena edo diskriminazioa zein esanguratsua den zehazteko permutazio-frogak erabiltzen dira. Oro har, gainbegiratutako metodoa berretsita egon arren, azpimarratzekoa da egokiagoa dela PLS-DA ereduan agerian geratutako sailkapena PCA-n ere aurreikusi izana [99]. Izan ere, PCA joera gabeko metodoa denez eta zorizko banaketak baztertzen dituenez, beti izango ditu biologikoko esanguratsuak diren emaitzak emateko aukera gehiago.

Hala ere, aldagai anitzeko metodoen muga azpimarragarriena ikerketaren oinarrian dagoen diseinu esperimentala kudeatzeko edo kontuan hartzeko ezintasuna da [90,104]. Arazo horri aurre egin nahian ANOVA-aldibereko osagaien analisia (ANOVA-*simultaneous component analysis*, ASCA, delakoa) garatu da [104]. ASCA erabilita, diseinu esperimentalak sortutako aldakortasuna edo ereduen lausotzea ekiditeaz gain, aldagai bakarreko hurbilketen mugak (aldagaien arteko kobariantza kontuan hartu ezina) ere gaindi daitezke. Aldagai anitzeko hurbilketa horrek kontuan hartzen dituenez diseinu esperimentalaren inguruko informazioa eta datu-multzoen egitura, informazio biologikoa hobeto ulertzeko aukera ematen du [104]. Guzti hori dela eta, ASCA ANOVA-ren orokortze gisa uler daiteke eta, denbora, dosia edo haien konbinazioen gisako faktoreak dituzten esperimentuen datuak tratatzeko erabiltzen da. Hala ere, ASCA-ren muga bat da estimatutako ereduaren parametroen konfiantza-tarteak balioztatzeko metodoaren falta [104].

1.2.2.2.3 Metabolitoen identifikazioa

Analisi estatistikoa metabolitoen kuantifikazioarekin eta identifikazioarekin batera egin ohi da [75]. Analisi bideratuan, oro har, metabolitoen kuantifikazioa analisi estatistikoaren aurretik egiten da. Analisi ez bideratuan, aldiz, metabolitoen identifikazio-urratsa behin aldagai interesgarriak hautatu ondoren egin ohi da [96], metabolomika ez-bideratuko lan-fluxuan denbora gehien kontsumitzen duen urrats neketsuena delako. Hori dela eta, funtsezkoa da datu gordinetatik lehentasuna ematea aldagai-zerrenda bati, aurretiaz aipatutako irizpide estatistiko desberdinetan oinarrituta [96]. Metabolomika ez-bideratuko metabolitoen aniztasun biokimiko zabala medio, MS espektroetatik metabolitoak ziurtasunez identifikatzea erronka esanguratsua da [91,105]; bereziki, LC-MS analisian, non kromatografia-baldintzak eta masa-espektrometriako parametroak nabarmen aldatzen diren esperimentutik esperimentura. Oro har, metabolitoen identifikazioa MS eta MS/MS espektroak aztertuta egiten da, masa zehatza, banaketa isotopikoa eta apurketa-ioiak bezalako ezaugarrietan oinarrituta [105]. Gainera, informazio hori babesteko hainbat metabolitoen identifikazio-baliabide eta datu-base erabil daitezke. Gaur egun metabolomikaren esparruan erabiltzen diren konposatuen datu-baseek egitura kimikoei, propietate fisiko-kimikoei, espektro-profilei, funtzio biologikoei eta metabolito-bideei buruzko informazioa eskaintzen dute [105]. Informazio horren arabera, datu-base horiek bi kategoriatan sailkatzen dira: (i) bide biologikoetan fokatzen diren KEGG [106] bezalako datu-baseak, eta (ii) konposatuetara mugatzen diren giza metabolomaren datu-basea [107], LipidMaps [108] edo mzCloud [109] bezalako datu-baseak. Gainera, mzCloud datu-basea erreferentziazko estandarrekin lortutako MS/MS eta MS^n espektroen informazioarekin aberastuta dago eta, horrek, metabolito ezezagunen identifikazioan asko laguntzen du [105]. Izan ere, aukera ematen du lortutako espektroen eta mzCloud datu-baseko espektroen arteko adostasun-maila erkatzeko. Hala ere, aipatu beharra dago MS/MS eta MS^n liburutegiak oso urrun daudela konposatu kimiko eta metabolito guztien inguruko informazioa izatetik. Ondorioz, liburutegietan hutsuneak dauden kasuetan, Metfrag [110] bezalako baliabideak erabili daitezke, *in silico* apurketek ere lagundu baitezakete metabolitoen masa-espektroak interpretatzen [111].

1.2.2.2.4 Bide metabolikoen aberastea

Metabolomikako lanetako azken urratsa datuen interpretazio biologikoa da, non helburua

kanpoko estimuluaren eta organismoren erantzun metabolikoaren arteko lotura egitea den [75,90]. Horren baitan dago, KEGG bezalako datu-baseak kontsultatuta, identifikatutako metabolitoei edo bioadierazleei lotutako bide metabolikoak zeintzuk diren argitzea [90]. Ildo horretan, bide metabolikoen aberastea lagungarria izan daiteke alterazio metabolikoentzat azalpen biologiko onargarriak aurkitzeko [112]. Bide metabolikoen aberastea burutzeko dauden baliabideek KEGG bezalako datu-baseetan dauden konposatuak, moduluak, entzimak, erreakzioak eta bide metabolikoak hartu ohi dituzte kontuan, eta analisi estatistikoa eta eskema bisualak konbinatzen dituzte. Modu horretan, ikertzaileek errazago identifika ditzakete aztertutako baldintzetan asaldatutako bide metaboliko esanguratsuak. Oro har, bide metaboliko jakin baten eragina handiagoa da zenbat eta bide metaboliko horretan nabarmenki alteratuta dagoen metabolito gehiago egon. Bestalde, nodo batek sare-antolakuntzan duen garrantzia erlatiboa edo rola estimatuta, metabolito baten garrantzia kalkulatzen da sare metaboliko jakinean konposatuak duen zentralitate-neurrietan oinarrituta [113].

1.3 Erreferentziak

1. Brooks Bryan W., Huggett Duane B., Boxall Alistair B. A. 2010. Pharmaceuticals and personal care products: Research needs for the next decade. *Environ. Toxicol. Chem.* 28:2469–2472.
2. Boxall ABA, Rudd MA, Brooks BW, Caldwell DJ, Choi K, Hickmann S, Innes E, Ostapyk K, Staveley JP, Verslycke T, Ankley GT, Beazley KF, Belanger SE, Berninger JP, Carriquiriborde P, Coors A, DeLeo PC, Dyer SD, Ericson JF, Gagné F, Giesy JP, Gouin T, Hallstrom L, Karlsson MV, Larsson DGJ, Lazorchak JM, Mastrocco F, McLaughlin A, McMaster ME, Meyerhoff RD, Moore R, Parrott JL, Snape JR, Murray-Smith R, Servos MR, Sibley PK, Straub JO, Szabo ND, Topp E, Tetreault GR, Trudeau VL, Van Der Kraak G. 2012. Pharmaceuticals and Personal Care Products in the Environment: What Are the Big Questions? *Environ. Health Perspect.* 120:1221–1229.
3. Wang J, Wang S. 2016. Removal of pharmaceuticals and personal care products (PPCPs) from wastewater: A review. *J. Environ. Manage.* 182:620–640.
4. Arpin-Pont L, Bueno MJM, Gomez E, Fenet H. 2016. Occurrence of PPCPs in the marine environment: a review. *Environ. Sci. Pollut. Res.* 23:4978–4991.
5. Daughton CG, Ternes TA. 1999. Pharmaceuticals and personal care products in the environment: agents of subtle change? *Environ. Health Perspect.* 107:907–938.

6. Kot-Wasik A, Dębska J, Namieśnik J. 2007. Analytical techniques in studies of the environmental fate of pharmaceuticals and personal-care products. *TrAC Trends Anal. Chem.* 26:557–568.

7. Kümmerer K. 2009. The presence of pharmaceuticals in the environment due to human use – present knowledge and future challenges. *J. Environ. Manage.* 90:2354–2366.

8. Wilkinson J, Hooda PS, Barker J, Barton S, Swinden J. 2017. Occurrence, fate and transformation of emerging contaminants in water: An overarching review of the field. *Environ. Pollut.* 231:954–970.

9. Ali AM, Rønning HT, Sydnes LK, Alarif WM, Kallenborn R, Al-Lihaibi SS. 2018. Detection of PPCPs in marine organisms from contaminated coastal waters of the Saudi Red Sea. *Sci. Total Environ.* 621:654–662.

10. Brodin T, Piovano S, Fick J, Klaminder J, Heynen M, Jonsson M. 2014. Ecological effects of pharmaceuticals in aquatic systems—impacts through behavioural alterations. *Philos. Trans. R. Soc. B Biol. Sci.* 369.

11. Corcoran J, Winter MJ, Tyler CR. 2010. Pharmaceuticals in the aquatic environment: A critical review of the evidence for health effects in fish. *Crit. Rev. Toxicol.* 40:287–304.

12. Ebele AJ, Abou-Elwafa Abdallah M, Harrad S. 2017. Pharmaceuticals and personal care products (PPCPs) in the freshwater aquatic environment. *Emerg. Contam.* 3:1–16.

13. Miller TH, Bury NR, Owen SF, MacRae JI, Barron LP. 2018. A review of the pharmaceutical exposome in aquatic fauna. *Environ. Pollut.* 239:129–146.

14. Montes-Grajales D, Fennix-Agudelo M, Miranda-Castro W. 2017. Occurrence of personal care products as emerging chemicals of concern in water resources: A review. *Sci. Total Environ.* 595:601–614.

15. Zenker A, Cicero MR, Prestinaci F, Bottoni P, Carere M. 2014. Bioaccumulation and biomagnification potential of pharmaceuticals with a focus to the aquatic environment. *J. Environ. Manage.* 133:378–387.

16. European Commission. 2013. Surface waters: 12 new controlled chemicals, three pharmaceuticals on watch list. [cited 22 April 2018]. Available from http://www.europarl.europa.eu/news/en/press-room/20130701IPR14760/surface-waters-12-new-controlled-chemicals-three-pharmaceuticals-on-watch-list.

17. Water Framework Directive. 2013. *Directive 2013/39/EU*.

18. European Commission. 2011. *WFD-CIS Guidance Document No. 27 Technical Guidance for Deriving Environmental Quality Standards.*

19. USEPA O. 2009. *Contaminant Candidate List (CCL3) and Regulatory Determination*.:51850–51862. [cited 21 April 2018]. Available from https://www.epa.gov/ccl/contaminant-candidate-list-3-ccl-3.

20. EMEA. 2006. *European Medicine Agency Guideline on the Environmental Risk Assessment of Medicinal Products for Human Use. EMEA/CHMP/SWP/4447/00.*

21. USEPA. 2002. *Frequently Asked Questions: PPCPs as Environmental Pollutants. About the National Exposure Research Laboratory (NERL)*. [cited 23 April 2018]. Available from https://www.epa.gov/aboutepa/about-national-exposure-research-laboratory-nerl.

22. Leeuwen CJ van, Hermens JLM. 1995. *Risk Assessment of Chemicals: An Introduction*. Springer Netherlands. [cited 22 April 2018]. Available from //www.springer.com/us/book/9789401585200.

23. Fatta-Kassinos D, Meric S, Nikolaou A. 2011. Pharmaceutical residues in environmental waters and wastewater: current state of knowledge and future research. *Anal. Bioanal. Chem.* 399:251–275.

24. Aryal S. 2001. Antibiotic Resistance: A Concern to Veterinary and Human Medicine. *Nepal Agric. Res. J.* 4:66–70.

25. Carvalho IT, Santos L. 2016. Antibiotics in the aquatic environments: A review of the European scenario. *Environ. Int.* 94:736–757.

26. Levy SB. 2002. Factors impacting on the problem of antibiotic resistance. *J. Antimicrob. Chemother.* 49:25–30.

27. Ashfaq M, Khan KN, Rasool S, Mustafa G, Saif-Ur-Rehman M, Nazar MF, Sun Q, Yu C-P. 2016. Occurrence and ecological risk assessment of fluoroquinolone antibiotics in hospital waste of Lahore, Pakistan. *Environ. Toxicol. Pharmacol.* 42:16–22.

28. Van Doorslaer X, Dewulf J, Van Langenhove H, Demeestere K. 2014. Fluoroquinolone antibiotics: An emerging class of environmental micropollutants. *Sci. Total Environ.* 500–501:250–269.

29. Calisto V, Esteves VI. 2009. Psychiatric pharmaceuticals in the environment. *Chemosphere*. 77:1257–1274.

30. Silva LJG, Lino CM, Meisel LM, Pena A. 2012. Selective serotonin re-uptake inhibitors (SSRIs) in the aquatic environment: An ecopharmacovigilance approach. *Sci. Total Environ.* 437:185–195.

31. Brausch JM, Rand GM. 2011. A review of personal care products in the aquatic environment: Environmental concentrations and toxicity. *Chemosphere*. 82:1518–1532.

32. Balmer ME, Buser H-R, Müller MD, Poiger T. 2005. Occurrence of Some Organic UV Filters in Wastewater, in Surface Waters, and in Fish from Swiss Lakes. *Environ. Sci. Technol.* 39:953–962.

33. Ramos S, Homem V, Alves A, Santos L. 2015. Advances in analytical methods and occurrence of organic UV-filters in the environment — A review. *Sci. Total Environ.* 526:278–311.

34. Kim S, Choi K. 2014. Occurrences, toxicities, and ecological risks of benzophenone-3, a common component of organic sunscreen products: A mini-review. *Environ. Int.* 70:143–157.

35. Fabbri E, Franzellitti S. 2016. Human pharmaceuticals in the marine environment: Focus on exposure and biological effects in animal species. *Environ. Toxicol. Chem.* 35:799–812.

36. Huerta B, Rodríguez-Mozaz S, Barceló D. 2012. Pharmaceuticals in biota in the aquatic environment: analytical methods and environmental implications. *Anal. Bioanal. Chem.* 404:2611–2624.

37. Puckowski A, Mioduszewska K, Łukaszewicz P, Borecka M, Caban M, Maszkowska J, Stepnowski P. 2016. Bioaccumulation and analytics of pharmaceutical residues in the environment: A review. *J. Pharm. Biomed. Anal.* 127:232–255.

38. Ramirez AJ, Brain RA, Usenko S, Mottaleb MA, O'Donnell JG, Stahl LL, Wathen JB, Snyder BD, Pitt JL, Perez-Hurtado P, Dobbins LL, Brooks BW, Chambliss CK. 2009. Occurrence of pharmaceuticals and personal care products in fish: results of a national pilot study in the United States. *Environ. Toxicol. Chem.* 28:2587–2597.

39. van der Oost R, Beyer J, Vermeulen NPE. 2003. Fish bioaccumulation and biomarkers in environmental risk assessment: a review. *Environ. Toxicol. Pharmacol.* 13:57–149.

40. Klosterhaus SL, Grace R, Hamilton MC, Yee D. 2013. Method validation and reconnaissance of pharmaceuticals, personal care products, and alkylphenols in surface waters, sediments, and mussels in an urban estuary. *Environ. Int.* 54:92–99.

41. Buchberger WW. 2011. Current approaches to trace analysis of pharmaceuticals and personal care products in the environment. *J. Chromatogr. A*. 1218:603–618.

42. Vazquez-Roig P, Blasco C, Picó Y. 2013. Advances in the analysis of legal and illegal drugs in the aquatic environment. *TrAC Trends Anal. Chem.* 50:65–77.

43. Baker DR, Kasprzyk-Hordern B. 2011. Multi-residue determination of the sorption of illicit drugs and pharmaceuticals to wastewater suspended particulate matter using pressurised liquid extraction, solid phase extraction and liquid chromatography coupled with tandem mass spectrometry. *J. Chromatogr. A*. 1218:7901–7913.

44. Grabic R, Fick J, Lindberg RH, Fedorova G, Tysklind M. 2012. Multi-residue method for trace level determination of pharmaceuticals in environmental samples using liquid

chromatography coupled to triple quadrupole mass spectrometry. *Talanta*. 100:183–195.

45. Gros M, Petrović M, Barceló D. 2006. Multi-residue analytical methods using LC-tandem MS for the determination of pharmaceuticals in environmental and wastewater samples: a review. *Anal. Bioanal. Chem.* 386:941–952.

46. Togola A, Budzinski H. 2008. Multi-residue analysis of pharmaceutical compounds in aqueous samples. *J. Chromatogr. A*. 1177:150–158.

47. Fatta D, Achilleos A, Nikolaou A, Meriç S. 2007. Analytical methods for tracing pharmaceutical residues in water and wastewater. *TrAC Trends Anal. Chem.* 26:515–533.

48. Pavlović DM, Babić S, Horvat AJM, Kaštelan-Macan M. 2007. Sample preparation in analysis of pharmaceuticals. *TrAC Trends Anal. Chem.* 26:1062–1075.

49. Hao C, Zhao X, Yang P. 2007. GC-MS and HPLC-MS analysis of bioactive pharmaceuticals and personal-care products in environmental matrices. *TrAC Trends Anal. Chem.* 26:569–580.

50. Sanz-Landaluze J, Bartolome L, Zuloaga O, González L, Dietz C, Cámara C. 2006. Accelerated extraction for determination of polycyclic aromatic hydrocarbons in marine biota. *Anal. Bioanal. Chem.* 384:1331–1340.

51. Zabaleta I, Bizkarguenaga E, Iparragirre A, Navarro P, Prieto A, Fernández LÁ, Zuloaga O. 2014. Focused ultrasound solid–liquid extraction for the determination of perfluorinated compounds in fish, vegetables and amended soil. *J. Chromatogr. A*. 1331:27–37.

52. Petrović M, Hernando MD, Díaz-Cruz MS, Barceló D. 2005. Liquid chromatography–tandem mass spectrometry for the analysis of pharmaceutical residues in environmental samples: a review. *J. Chromatogr. A*. 1067:1–14.

53. Wille K, De Brabander HF, Vanhaecke L, De Wulf E, Van Caeter P, Janssen CR. 2012. Coupled chromatographic and mass-spectrometric techniques for the analysis of emerging pollutants in the aquatic environment. *TrAC Trends Anal. Chem.* 35:87–108.

54. Evgenidou EN, Konstantinou IK, Lambropoulou DA. 2015. Occurrence and removal of transformation products of PPCPs and illicit drugs in wastewaters: A review. *Sci. Total Environ.* 505:905–926.

55. Krauss M, Singer H, Hollender J. 2010. LC–high resolution MS in environmental analysis: from target screening to the identification of unknowns. *Anal. Bioanal. Chem.* 397:943–951.

56. Escher BI, Fenner K. 2011. Recent Advances in Environmental Risk Assessment of Transformation Products. *Environ. Sci. Technol.* 45:3835–3847.

57. Hollender J, Singer H, Hernando D, Kosjek T, Heath E. 2010. The Challenge of the Identification and Quantification of Transformation Products in the Aquatic Environment Using High

Resolution Mass Spectrometry. *Xenobiotics Urban Water Cycle*. Springer, Dordrecht, pp 195–211. doi:10.1007/978-90-481-3509-7_11.

58. Hernández F, Ibáñez M, Bade R, Bijlsma L, Sancho JV. 2014. Investigation of pharmaceuticals and illicit drugs in waters by liquid chromatography-high-resolution mass spectrometry. *TrAC Trends Anal. Chem.* 63:140–157.

59. Wang J, Gardinali PR. 2014. Identification of phase II pharmaceutical metabolites in reclaimed water using high resolution benchtop Orbitrap mass spectrometry. *Chemosphere*. 107:65–73.

60. Chiu S-HL, Huskey S-EW. 1998. Species Differences in N-Glucuronidation 1996 ASPET N-Glucuronidation of Xenobiotics Symposium. *Drug Metab. Dispos.* 26:838–847.

61. Pelkonen O, Tolonen A, Rousu T, Tursas L, Turpeinen M, Hokkanen J, Uusitalo J, Bouvier d'Yvoire M, Coecke S. 2009. Comparison of metabolic stability and metabolite identification of 55 ECVAM/ICCVAM validation compounds between human and rat liver homogenates and microsomes - a preliminary analysis. *ALTEX*. 26:214–222.

62. Zhou X, Chen C, Zhang F, Zhang Y, Feng Y, Ouyang H, Xu Y, Jiang H. 2016. Metabolism and bioactivation of the tricyclic antidepressant amitriptyline in human liver microsomes and human urine. *Bioanalysis*. 8:1365–1381.

63. Díaz-Cruz MS, Barceló D. 2009. Chemical analysis and ecotoxicological effects of organic UV-absorbing compounds in aquatic ecosystems. *TrAC Trends Anal. Chem.* 28:708–717.

64. Bletsou AA, Jeon J, Hollender J, Archontaki E, Thomaidis NS. 2015. Targeted and non-targeted liquid chromatography-mass spectrometric workflows for identification of transformation products of emerging pollutants in the aquatic environment. *TrAC Trends Anal. Chem.* 66:32–44.

65. Rousu T, Herttuainen J, Tolonen A. 2010. Comparison of triple quadrupole, hybrid linear ion trap triple quadrupole, time-of-flight and LTQ-Orbitrap mass spectrometers in drug discovery phase metabolite screening and identification in vitro – amitriptyline and verapamil as model compounds. *Rapid Commun. Mass Spectrom.* 24:939–957.

66. Schymanski EL, Jeon J, Gulde R, Fenner K, Ruff M, Singer HP, Hollender J. 2014. Identifying Small Molecules via High Resolution Mass Spectrometry: Communicating Confidence. *Environ. Sci. Technol.* 48:2097–2098.

67. Zubarev RA, Makarov A. 2013. Orbitrap Mass Spectrometry. *Anal. Chem.* 85:5288–5296.

68. Lim H-K, Chen J, Sensenhauser C, Cook K, Subrahmanyam V. 2007. Metabolite identification by data-dependent accurate mass spectrometric analysis at resolving power of 60 000 in external calibration mode using an LTQ/Orbitrap. *Rapid Commun. Mass Spectrom.* 21:1821–1832.

69. World Health Organization, International Programme on ChemicalSafety. 1993. Biomarkers and risk assessment : concepts and principles. [cited 22 April 2018]. Available from http://apps.who.int/iris/handle/10665/39037.

70. Aguirre-Martínez GV, Owuor MA, Garrido-Pérez C, Salamanca MJ, Del Valls TA, Martín-Díaz ML. 2015. Are standard tests sensitive enough to evaluate effects of human pharmaceuticals in aquatic biota? Facing changes in research approaches when performing risk assessment of drugs. *Chemosphere*. 120:75–85.

71. Ge Y, Wang D-Z, Chiu J-F, Cristobal S, Sheehan D, Silvestre F, Peng X, Li H, Gong Z, Lam SH, Wentao H, Iwahashi H, Liu J, Mei N, Shi L, Bruno M, Foth H, Teichman K. 2013. Environmental OMICS: Current Status and Future Directions. *J. Integr. OMICS*. 3:75–87.

72. Horgan RP, Kenny LC. 2011. 'Omic' technologies: genomics, transcriptomics, proteomics and metabolomics. *Obstet. Gynaecol.* 13:189–195.

73. Al-Salhi R, Abdul-Sada A, Lange A, Tyler CR, Hill EM. 2012. The Xenometabolome and Novel Contaminant Markers in Fish Exposed to a Wastewater Treatment Works Effluent. *Environ. Sci. Technol.* 46:9080–9088.

74. Bundy JG, Davey MP, Viant MR. 2008. Environmental metabolomics: a critical review and future perspectives. *Metabolomics*. 5:3–21.

75. Lankadurai BP, Nagato EG, Simpson MJ. 2013. Environmental metabolomics: an emerging approach to study organism responses to environmental stressors. *Environ. Rev.* 21:180–205.

76. Lin CY, Viant MR, Tjeerdema RS. 2006. Metabolomics: Methodologies and applications in the environmental sciences. *J. Pestic. Sci.* 31:245–251.

77. Viant MR. 2008. Recent developments in environmental metabolomics. *Mol. Biosyst.* 4:980–986.

78. Bayne BL. 1985. *The Effects of Stress and Pollution on Marine Animals*. Praeger.

79. Ankley GT, Bennett RS, Erickson RJ, Hoff DJ, Hornung MW, Johnson RD, Mount DR, Nichols JW, Russom CL, Schmieder PK, Serrrano JA, Tietge JE, Villeneuve DL. 2010. Adverse outcome pathways: A conceptual framework to support ecotoxicology research and risk assessment. *Environ. Toxicol. Chem.* 29:730–741.

80. Tolstikov V, Akmaev VR, Sarangarajan R, Narain NR, Kiebish MA. 2017. Clinical metabolomics: a pivotal tool for companion diagnostic development and precision medicine. *Expert Rev. Mol. Diagn.* 17:411–413.

81. Samuelsson LM, Larsson DGJ. 2008. Contributions from metabolomics to fish research. *Mol. Biosyst.* 4:974–979.

82. Wu H, Southam AD, Hines A, Viant MR. 2008. High-throughput tissue extraction protocol for NMR- and MS-based metabolomics. *Anal. Biochem.* 372:204–212.

83. Cajka T, Fiehn O. 2016. Toward Merging Untargeted and Targeted Methods in Mass Spectrometry-Based Metabolomics and Lipidomics. *Anal. Chem.* 88:524–545.

84. Lin CY, Wu H, Tjeerdema RS, Viant MR. 2007. Evaluation of metabolite extraction strategies from tissue samples using NMR metabolomics. *Metabolomics*. 3:55–67.

85. Cajka T, Fiehn O. 2014. Comprehensive analysis of lipids in biological systems by liquid chromatography-mass spectrometry. *TrAC Trends Anal. Chem.* 61:192–206.

86. Viant MR, Sommer U. 2012. Mass spectrometry based environmental metabolomics: a primer and review. *Metabolomics*. 9:144–158.

87. Rochat B. 2016. From targeted quantification to untargeted metabolomics: Why LC-high-resolution-MS will become a key instrument in clinical labs. *TrAC Trends Anal. Chem.* 84:151–164.

88. Simmons DBD, Benskin JP, Cosgrove JR, Duncker BP, Ekman DR, Martyniuk CJ, Sherry JP. 2015. Omics for aquatic ecotoxicology: Control of extraneous variability to enhance the analysis of environmental effects. *Environ. Toxicol. Chem.* 34:1693–1704.

89. Goodacre R, Broadhurst D, Smilde AK, Kristal BS, Baker JD, Beger R, Bessant C, Connor S, Capuani G, Craig A, Ebbels T, Kell DB, Manetti C, Newton J, Paternostro G, Somorjai R, Sjöström M, Trygg J, Wulfert F. 2007. Proposed minimum reporting standards for data analysis in metabolomics. *Metabolomics*. 3:231–241.

90. Gorrochategui E, Jaumot J, Lacorte S, Tauler R. 2016. Data analysis strategies for targeted and untargeted LC-MS metabolomic studies: Overview and workflow. *TrAC Trends Anal. Chem.* 82:425–442.

91. Yi L, Dong N, Yun Y, Deng B, Ren D, Liu S, Liang Y. 2016. Chemometric methods in data processing of mass spectrometry-based metabolomics: A review. *Anal. Chim. Acta*. 914:17–34.

92. Di Guida R, Engel J, Allwood JW, Weber RJM, Jones MR, Sommer U, Viant MR, Dunn WB. 2016. Non-targeted UHPLC-MS metabolomic data processing methods: a comparative investigation of normalisation, missing value imputation, transformation and scaling. *Metabolomics*. 12.

93. Hrydziuszko O, Viant MR. 2012. Missing values in mass spectrometry based metabolomics: an undervalued step in the data processing pipeline. *Metabolomics*. 8:161–174.

94. Dubin E, Spiteri M, Dumas A-S, Ginet J, Lees M, Rutledge DN. 2016. Common components and specific weights analysis: A tool for metabolomic data pre-processing. *Chemom. Intell. Lab.*

Syst. 150:41–50.

95. Fernández-Albert F, Llorach R, Garcia-Aloy M, Ziyatdinov A, Andres-Lacueva C, Perera A. 2014. Intensity drift removal in LC/MS metabolomics by common variance compensation. *Bioinformatics*. 30:2899–2905.

96. Vinaixa M, Samino S, Saez I, Duran J, Guinovart JJ, Yanes O. 2012. A Guideline to Univariate Statistical Analysis for LC/MS-Based Untargeted Metabolomics-Derived Data. *Metabolites*. 2:775–795.

97. Dunn WB, Wilson ID, Nicholls AW, Broadhurst D. 2012. The importance of experimental design and QC samples in large-scale and MS-driven untargeted metabolomic studies of humans. *Bioanalysis*. 4:2249–2264.

98. Seltman HJ. 2015. *Experimental Design and Analysis*.

99. Worley B, Powers R. 2013. Multivariate Analysis in Metabolomics. *Curr. Metabolomics*. 1:92–107.

100. Huang SSY, Benskin JP, Chandramouli B, Butler H, Helbing CC, Cosgrove JR. 2016. Xenobiotics Produce Distinct Metabolomic Responses in Zebrafish Larvae (Danio rerio). *Environ. Sci. Technol.* 50:6526–6535.

101. Kenny LC, Broadhurst DI, Dunn W, Brown M, North RA, McCowan L, Roberts C, Cooper GJS, Kell DB, Baker PN. 2010. Robust Early Pregnancy Prediction of Later Preeclampsia Using Metabolomic Biomarkers. *Hypertension*. 56:741–749.

102. Shi B, Tian J, Xiang H, Guo X, Zhang L, Du G, Qin X. 2013. A 1H-NMR plasma metabonomic study of acute and chronic stress models of depression in rats. *Behav. Brain Res.* 241:86–91.

103. Lazic SE. 2008. Why we should use simpler models if the data allow this: relevance for ANOVA designs in experimental biology. *BMC Physiol.* 8:16.

104. Jansen JJ, Hoefsloot HCJ, van der Greef J, Timmerman ME, Westerhuis JA, Smilde AK. 2005. ASCA: analysis of multivariate data obtained from an experimental design. *J. Chemom.* 19:469–481.

105. Vinaixa M, Schymanski EL, Neumann S, Navarro M, Salek RM, Yanes O. 2016. Mass spectral databases for LC/MS- and GC/MS-based metabolomics: State of the field and future prospects. *TrAC Trends Anal. Chem.* 78:23–35.

106. http://www.kegg.jp/kegg/. 2018. KEGG_.

107. http://www.hmdb.ca/metabolites/. 2018. HMDB_.

108. http://www.lipidmaps.org/. 2018. LipidMaps_.

109. https://www.mzcloud.org/. 2018. mzCloud_.

110. https://msbi.ipb-halle.de/MetFragBeta/. 2018. MetFrag_.

111. Wolf S, Schmidt S, Müller-Hannemann M, Neumann S. 2010. In silico fragmentation for computer assisted identification of metabolite mass spectra. *BMC Bioinformatics*. 11:148.

112. Picart-Armada S, Fernández-Albert F, Vinaixa M, Rodríguez MA, Aivio S, Stracker TH, Yanes O, Perera-Lluna A. 2017. Null diffusion-based enrichment for metabolomics data. *PLOS ONE*. 12:e0189012.

113. Xia J, Wishart DS. 2010. MetPA: a web-based metabolomics tool for pathway analysis and visualization. *Bioinformatics*. 26:2342–2344.

2. Kapitulua

Helburuak

Farmakoen eta zaintza pertsonalerako produktuen (*pharmaceuticals and personal care products*, PPCP, direlakoen) ur-ekosistemetako agerpen zabalak eta horiek organismo ez-zuzenduetan eragin ditzaketen albo-ondorioek kezka zientifikoa eta soziala areagotu dute. Orain arte, PPCP-ak eta euren azpiproduktuak identifikatu eta agerpena kontrolatzeko ahalegin handiak egin dira ur-araztegietako isurietan eta ingurumeneko azaleko uretan. Hala ere, PPCP-en presentziaren ebaluazioak erronka izaten jarraitzen du biotan. Izatez, PPCP-ek arrainak bezalako organismo urtarretan biometatzeko gaitasuna dutela frogatu da ingurumeneko biomonitorizazioen bidez. Dena den, PPCP-en metatzearen, ehunen arteko banaketaren, metabolizazioaren eta kanporatzearen ulermena bermatzeko oraindik informazio gutxiegi dago eskuragarri. Esate baterako, PPCP-en transformazioaren eta biodegradazioaren inguruko ezagutza-faltak esposizioaren benetako neurria gutxiestea eragin dezake. Izan ere, PPCP-en azpiproduktuek (transformazio-produktuek eta metabolitoek, konkretuki) konposatu aitzindariek besteko arriskua edo handiagoa sor dezakete. Horrez gain, ingurumenerako arriskuen ebaluazioari dagokionez, oso garrantzitsua da PPCP-ek organismo urtarretan eragin ditzakeen albo-ondorioak ebaluatzea, urriak baitira metatzea eta albo-ondorioak aldi berean aztertu dituzten ikerketak. Azken urteotan, metabolomika teknika oso erabilgarria eta sentikorra bilakatu da ingurumenean maila ez-hilgarrietan agertzen diren kutsatzaileen albo-ondorioak ikertzeko.

Testuinguru horretan, doktorego-tesi honen helburu nagusia ondokoa da: ***PPCP-ek ur-ekosistemetan duten patua eta jokabidea ebaluatzeko hurbilketa holistikoa garatzea, zeinak barne hartzen dituen organismo urtarretako PPCP-en determinazioa, biometatzea, biotransformazioa eta albo-ondorioak***. Helburu nagusi hori lortzeko, ondorengo azpihelburuak definitu dira:

1. Metodo analitiko sendoak eta fidagarriak optimizatu PPCP-ak ingurumeneko matrize desberdinetan determinatzeko eta metodo horiek Bizkaiko kostaldeko lagin errealetan aplikatzea. Ingurumenean aurkitu ohi diren kutsatzaileen adierazgarri diren antidepresibo triziklikoak eta fluorokinolonak aztertu dira uretan (estuarioko, itsasoko eta araztegien irteerako uretan) eta biotan (muskuiluetan eta arrainen ehunetan/jariakinetan).

2. Urraburu arrain (*Sparus aurata*) gazteen ehunak (burmuina, gibela, zakatzak, muskulua) eta jariakinak (plasma, behazuna) aztertuta, amitriptilina antidepresiboaren, *ciprofloxacin* antibiotikoaren eta oxibenzona ultramore iragazkiaren biometatzea eta ehunen arteko banaketa ebaluatu, eta konposatu horien azpiproduktuak karakterizatzea.
3. Maila ez-hilgarrietan amitriptilinaren eta oxibenzonaren *in vivo* esposizioek urraburu arrain gazteen burmuinean, gibelean eta plasman eragin ditzaketen albo-ondorioak ikertzea.

Helburu horiek erdiesteko, beharrezkoa da honako metodologiak garatzea:

i. Metodo bideratuak, instrumentazio analitiko sentikorra (LC-QqQ-MS/MS) erabilita kutsatzaileak kuantifikatzeko ingurumeneko uretan eta ehun/jariakin biologikoetan.
ii. Susmagarrien analisirako estrategiak, bereizmen altuko masa-espektrometria (LC-qOrbitrap) erabilita azpiproduktuak karakterizatzeko itsasoko uretan eta arrainen ehunetan/jariakinetan.
iii. Metabolomikako hurbilketa bideratuak eta ez-bideratuak, PPCP-ek arrainetan eragindako albo-ondorioak azaltzen dituzten profil metabolikoko aldaketak ikertzeko.

Datozen kapituluetan aipatutako helburuen garapena eta lorpena deskribatzen dira.

3. Kapitulua

Antidepresibo triziklikoen determinazioa biotan eta ingurumeneko uretan tandem masa-espektrometriari akoplatutako likido-kromatografiaren bidez

Analytical and Bioanalytical Chemistry

408 (2015) 1205-1216

3.1 Sarrera

Azken hamarkadetan, farmakoak eta zaintza pertsonalerako produktuak ur-ingurumeneko kutsadura iturri garrantzitsu gisa aitortu dira [1] eta, 1990eko hamarkada geroztik, konposatu aktibo batzuk kontzentrazio baxuetan ere (ng/L-an) ekosistemak oztopatzeko gaitasuna dutela dakigu [2]. Ingurunean detektatu diren konposatu farmakologikoki aktiboen artean antidepresibo triziklikoak (*tricyclic antidepressant*, TCA, delakoak) aurkitzen dira, zeinak depresioaren eta gaixotasun psikiatrikoen tratamenduan erabiliak diren [3–12]. TCA-ek neurotransmisore desberdinen xurgapen selektiboaren inhibitzaile gisa jokatzen dute nerbio-sistema zentralean [13]. Nortriptilina amina sekundarioak norepinefrinaren xurgapen selektiboa inhibitzen duen bitartean, amitriptilina, imipramina eta klomipramina amina tertziarioek serotoninaren xurgapena eragozten dute. Farmako horiek oso erabiliak dira, bereziki herrialde garatuetan, eta ur-ingurumenean sartzen dira, batez ere giza iraizketatik [2]. TCA asko ez dira guztiz degradatzen edo ezabatzen araztegietako tratamenduetan eta, nahiz eta 1 ng/mL kontzentraziora arteko mailan aurkitu [5,6,8–11], euren uretarako etengabeko isuria mehatxu bihurtzen da organismo urtar ez-zuzenduentzat bizitza osoko esposizioa pairatzen baitute. Ondorioz, farmakoak sistema biologikoekin elkarreragiteko diseinatzen direnez, ez da harritzekoa immunitatean, ugalketan, garapenean, zein hazkuntzan eragina duten albo-ondorioak plazaratzen dituzten ikerketa-lanak aurkitzea [14,15].

TCA-k ur-araztegietako isurietan [4,6,8,11,12] eta ingurumeneko azaleko uretan detektatu dira [5]. Gainera, konposatu horien ur-oktanol banaketa-koefiziente altuaren (log K_{ow} > 3) ondorioz, TCA-k biotan ere metatu daitezke [7,16,17]. Izatez, intereseko konposatuek organismoetan duten biometatzea aztertzea ohiko prozedura da kutsatzaileen esposizioaren eragina ebaluatzeko. Hala ere, oraindik informazio gutxi dago eskuragarri biotan detekta daitezkeen farmakoen inguruan eta, dakigunaren arabera, ez dago organismo urtarretan TCA-en metatzea aztertzen duen ikerketarik [18]. Organismo urtarren artean, arrainak ur-ingurumenean nonahi aurki daitezkeenez, organismo bideragarritzat hartzen dira farmakoen biometatze-ikerketetarako zein ur-sistemen segimendua egiten duten programetarako [16,18].

Testuinguru horretan, nahiz eta ingurumeneko matrizeetan TCA-en agerpena araututa ez egon, garrantzitsua da ingurumeneko laginetarako, eta bereziki biotarako, haiek determinatzeko

metodo sendoak eta sentikorrak garatzea. Instrumentazio analitiko berriek kutsatzaile askoren segimendua egitea ahalbideratzen duten arren, oraindik badaude TCA-en detekzioarekin eta kuantifikazioarekin lotutako bi zailtasun nagusi, hala nola euren itsas-ingurumeneko kontzentrazio baxuak eta ingurumeneko matrizeen konplexutasuna [3].

TCA-en analisian sarri erabiltzen den teknika analitikoa masa-espektrometriari akoplatutako gas-kromatografia (GC-MS) [6,19] den arren, likido-kromatografia erabiliagoa da, bereziki tandem masa-espektrometriari akoplatuta (LC–MS/MS), aztarna-mailako ingurumeneko farmakoen analisian erakusten dituen fidagarritasuna eta sentsibilitatea direla eta [4,5,7–9,11,12,16,20]. Izan ere, MS/MS hurbilketak, ioi aitzindari eta apurketa-ioi egokiak aukeratuta, matrize-interferentziak minimizatu edo kentzeko gaitasuna du. Hala ere, LC-MS/MS teknikaren desabantaila nagusia, bereziki elektroesprai-ionizazioa (*electrospray ionization*, ESI, delakoa) erabilita, matrize-interferentziek eragindako seinale kromatografikoaren txikitzea/handitzea da [21]. Hori dela eta, emaitza okerrak ekidin nahian, teknika hori erabiltzean, matrize-efektuen aurretiazko azterketa beharrezkoa da [3]. Horrez gain, ingurumeneko matrize konplexuen analisian funtsezkoa da laginaren prestatze egokia burutzea. Hortaz, erauzketa- eta garbiketa-urrats eraginkorrak ezinbestekoak dira ionizazio eskasa, hondoaren zarata eta LC sistemako akatsak ekiditeko.

Bibliografiaren arabera, TCA-k lagin solidoetatik erauzteko erabilitako teknika nagusienak ohiko solido-likido erauzketa-teknikak [7,16], ultrasoinuen bidezko erauzketa [22], presiopeko likidoen bidezko erauzketa [4] eta QuEChERS (*Quick, Easy, Cheap, Effective, Rugged and Safe* delakoa) dira [12,23]. Ohiko ultrasoinu-bainuekin alderatuta, ultrasoinu fokatuen bidezko solido-likido erauzketa (*focused ultrasound solid-liquid extraction*, FUSLE) sinpleak ezaugarri nabarmenak ditu, hala nola erauzketa-denbora laburrak eta lagin- eta disolbatzaile-kantitate txikien beharrizana (0,01–1,0 g eta 5–15 mL, hurrenez hurren). FUSLE-ren eraginkortasuna kabitazio-fenomenoaren bidez lortutako presio eta tenperatura altuen ondorioz lortzen da. Hain zuzen, titaniozko mikropunta zuzenean erauzian murgilduta eratzen diren ahalmen handiko ultrasoinu-uhinetan datza FUSLE. Teknika hori arrakastaz aplikatu den arren biotatik kutsatzaile organiko desberdinak erauzteko [24,25], lan honetan aztertutako matrizeetatik (arrainen gibeletik eta muskulutik eta muskuiluetatik) TCA-k erauzteko ez da inoiz FUSLE erabili.

Aipatutako erauzketa-metodoen selektibitate falta dela eta, beharrezkoa izan ohi da

garbiketa-urratsa. Garbiketarako prozesu ohikoena fase solidoko erauzketa (*solid phase extraction*, SPE, delakoa) da. Teknika horrek TCA-en isolamendua edota aurrekontzentrazioa baimentzen ditu ingurumeneko ur-lagin zein biota bezalako matrize desberdinetan. Nagusiki erabiltzen diren fase geldikorren artean, dibinilbentzenoz eta binilpirrolidonaz osatutako kopolimeroa (*hydrophilic–lipophilic balanced*, HLB, delakoa) [11,20] eta modu mistoko katioi-trukatzaile (*cation exchanger*, CX, delako) sendoak edo ahulak aurki daitezke [5,6,8–10]. Azken horiek erauzi garbiagoak lortzeko abantaila eskaintzen dute erretentzio-mekanismo desberdinen konbinazioagatik.

Esparru horretan, lan honen helburua metodo zehatzak eta doiak garatzea da amitriptilina, nortiptilina, imipramina eta klomipramina antidepresibo triziklikoak determinatzeko ingurumeneko matrize desberdinetan, hala nola uretan (estuarioko, itsasoko eta araztegien irteerako uretan) eta biotan (arrainen gibelean eta muskuluan eta muskuiluetan). Horretarako, intereseko konposatuak lagin solidoetatik erauzteko FUSLE-ren eraginkortasuna ebaluatu da eta garbiketarako SPE modu desberdinak (alderantzizko fasea eta modu mistoa) aztertu dira. Era berean, ur-laginetarako ere SPE prozedura osotasunean optimizatu da. Bai garbiketa-urratseko bai LC-MS/MS (kuadrupolo hirukoitza) analisiko matrize-efektua ere guztiz arakatu da. Azkenik, garatutako metodoak Bizkaiko kostaldeko lagin errealak analizatzeko erabili dira.

3.2 Materiala eta metodoak

3.2.1 Erreaktiboak eta materialak

Imipramina hidrokloruroa (% 99), amitriptilina hidrokloruroa (98 %), nortriptilina hidrokloruroa (98 %) eta klomipramina hidrokloruroa (98 %), eta trazagarri gisa erabiltzeko isotopikoki markatutako $^{2}H_{3}$-amitriptilina hidrokloruroa ($^{2}H_{3}$-AMI; erreferentziazko estandar zertifikatua) eta $^{2}H_{3}$-nortriptilina hidrokloruroa ($^{2}H_{3}$-NOR; erreferentziazko estandar zertifikatua) Sigma-Aldrich (St. Louis, MO, AEB) merkataritza-etxean erosi dira. TCA-en eta trazagarrien egitura kimikoa, ur-oktanol banaketa-koefizientea (log K_{ow}) eta azidotasun-konstantea (pK_a) 3.1 taulan ageri dira.

Amitriptilina, nortiptilina, imipramina eta klomipramina analitoen disoluzio bakunak metanoletan (Fisher Scientific, Loughborough, Erresuma Batua) prestatu dira gutxi gorabehera

5000 mg/L-ko kontzentrazio-mailan. Bestalde, 100 mg/L-ko eta maila baxuagoko diluzioak metanoletan prestatu dira hilabetero eta egunero, hurrenez hurren. $^{2}H_3$-AMI eta $^{2}H_3$-NOR trazagarrien disoluzio bakunak 100 mg/L kontzentrazioan prestatu dira metanoletan. Disoluzio guztiak −20°C-an gorde dira.

3.1 taula: *Intereseko analitoen egitura kimikoak, log K_{ow} eta pK_a balioak* [26].

Analitoa	**Egitura**	**Log K_{ow}**	**pK_a**
Imipramina (IMI)		4,28	9,20
Amitriptilina (AMI)		4,81	9,76
Nortriptilina (NOR)		4,43	10,47
Klomipramina (CLO)		4,88	9,20

Metanola (HPLC kalitatea, % 99,9) eta azetona (HPLC kalitatea, % 99,8) LabScan (Dublin, Irlanda) merkataritza-etxekoak dira, azetonitriloa (HPLC kalitatea, % 99,9) eta amonio azetatoa (NH_4OAc, ≥ % 99) Sigma-Aldrich (Steinheim, Alemania) merkataritza-etxekoak, sodio hidroxidoa (NaOH, ≥ % 99) Merck-ekoa (Darmstadt, Alemania), azido formikoa (HCOOH, ≥ % 98) Scharlau (Bartzelona, Espainia) merkataritza-etxekoa eta amonio hidroxidoa (NH_4OH, % 25) Panreac-ekoa (Bartzelona, Espainia). Ur ultra-purua (Milli-Q ura) ura purifikatzeko sistema (< 0.05 S/cm, Milli-Q 185 modeloa, Millipore, Bedford, MA, AEB) erabilita lortu da.

Lagin solidoak liofilizatzeko Cryodos-50 liofilizatzailea (Telstar Instrument, Sant Cugat del Valles, Bartzelona, Espainia) erabili da eta TCA-k lagin solidoetatik erauzteko 3 mm-ko titaniozko mikropunta duen ultrasoinu-homogeneizatzailea (100 W, 20 kHz; Bandelin Sonopuls HD 3100 sonikatzailea, Bandelin electronic, Berlin, Alemania). Erauzketak Deltalab (Bartzelona, Espainia) merkataritza-etxeko 50 mL-ko polipropilenozko ontzi konikoetan (barne-diametroa 27,2 mm-ko barne-diametroa eta 117,5 mm-ko luzera) egin dira eta erauziak poliamidazko iragazkien (0,45 μm, 25 mm, Macherey-Nagel, Alemania) bidez iragazi dira. Nitrogenoaren (> % 99,999; Messer, Tarragona, Espainia) korrontearen bidez disolbatzailea lurruntzeko Turbo Vap LV lurrungailua (Zymark, Hopkinton, MA, AEB) erabili da.

Garbiketa-urratsean erabilitako SPE egiteko hodi hutsak eta Envi-Carb grafitozko karbonoa (100 m^2/g azalera espezifikoa, 120/400 sare-begia) Supelco (Bellefonte, PA, AEB) merkataritza-etxean erosi dira, Plexa (550 m^2/g azalera espezifikoa, 320 sare-begia) Agilent Technologies merkataritza-etxean eta Evolute-CX (200 mg, 6 mL) SPE kartutxoak Biotage (Uppsala, Suedia) merkataritza-etxean.

Ur-laginak iragazteko Whatman (Maidstone, Erresuma Batua) merkataritza-etxeko bi iragazki-mota aztertu dira: 1,2 μm-ko (90 mm-ko diametroa) beirazko mikrozuntzezkoak eta 0,45 μm-ko (47 mm-ko diametroa) zelulosa nitratozko mintzekin egindakoak.

Lagin guztien erauziak LC-MS/MS-aren bidez analizatu aurretiko iragazketarako iragazki desberdinak frogatu dira: Pall (0,2 μm, 13 mm, AEB) eta Membrane Solutions (0,22 μm, 13 mm, Simplepure, AEB) merkataritza-etxeetako polipropilenozko, Teknokroma-ko (AEB) politetrafluoroetileno (PTFE) hidrofilikozko (0,2 μm, 13 mm) eta Membrane Solutions merkataritza-etxeko polibinilideno polifluorurozko (0,22 μm, 13 mm) iragazkiak.

Fase mugikor gisa, Milli-Q ura eta metanola (Fisher Scientific, Loughborough, Erresuma Batua) erabili dira azido formikoarekin (HCOOH, Formic acid Optima, Fischer Scientific, Gell, Belgika) batera. Talka-gas gisa erabilitako purutasun altuko nitrogenoa (> % 99,999) Messer (Tarragona, Espainia) merkataritza-etxekoa izan da, eta lehortze- eta lainoztatze-gas gisa erabilitako nitrogenoa (% 99,999) AIR Liquide-koa (Madril, Espainia).

3.2.2 Laginak eta laginen prestatzea

Metodoen optimizaziorako eta berrespenerako liofilizatutako arrain-haztegiko muskuiluak, itsas-zapoaren (*Lophius piscatorius*) gibela eta bertako merkatuan lortutako panga arrainaren (*Pangasius hypophthalmus*) muskulua erabili dira, baita Gernikan (Euskal Herria) bildutako ur-laginak (estuarioko, itsasoko eta araztegien irteerako urak) ere. Bestalde, garatutako metodoak 2015eko ekainean Gernikan bildutako ondorengo laginetan aplikatu dira: araztegiko (43,323985 N; -2,674143 W) irteerako uretan, estuarioko (araztegiko irteeratik errekan behera; 43,324036 N; -2,673611 W) uretan eta korrokoien (*Chelon labrosus*) gibeletan eta Laida hondartzako (43,399241 N; -2,685750 W; Ibarrangelu, Euskal Herria) itsasoko uretan eta muskuiluetan (*Mytilus galloprovincialis*).

Analisirako muskuilu-ehuna, arrain-gibela eta arrain-muskulua bereizi eta prestatu dira. Muskuiluetan ehun biguna ozkoletik banatu, eta korrokoi bakoitzetik gibela eta muskulua bereizteko, disekzioa eskalpelo garbia erabilita burutu da. Behin 5 indibiduoren ehunak batu, homogeneizatu, liofilizatu eta anbarrezko ontzietan gorde dira analisira arte -20°C-an. Bestalde, ur-laginak aurretiaz garbitutako anbarrezko beirazko ontzietan bildu eta kutxa hotzetan garraiatu dira laborategira analisia 24 h pasatu baino lehen burutzeko.

3.2.3 Lagin solidoen erauzketa

Lagin solidoetatik TCA-k erauzteko FUSLE-ren baldintzen optimizazioan TCA-ekin indartutako arrain-muskulua (panga-xerra) erabili da. Horretarako, liofilizatutako matrizearen kantitate ezaguna almaizean homogeneizatu, pisatu eta azetonarekin estali ostean, intereseko analitoekin 100 ng/g kontzentrazioan dopatu eta 24 orduz irabiatu da. Ondoren, azetona lurrundu eta lagina aste betez zaharkitu da.

Baldintza optimoetan, 40 mL-ko ontzian lagin liofilizatuaren 0,5 g eta azetonitrilo:Milli-Q ur (95:5, bol/bol) nahastearen 7 mL gehitu ondoren, isotopikoki markatutako estandarrak ($^{2}H_{3}$-AMI eta $^{2}H_{3}$-NOR) gehitu dira (50 ng/mL-ko disoluzioaren 100 μL) trazagarri gisa. FUSLE 30 s-tan gauzatu da (0,8 s-ko pultsu-denborarekin eta 0,2 s-ko pultsu-geldialdiekin), % 10-eko potentziarekin eta izotz-bainuan. Behin erauzita, gaineko likidoa 0,45 μm-ko poliamidazko iragazkien bidez iragazi, nitrogeno-korrontearekin ~1 mL-ra lurrundu eta lortutako erauzia garbiketa-urratsera bideratu da.

3.2.4 Lagin solidoen garbiketa

Matrize-efektua saihesteko, SPE-n oinarritutako garbiketa-modu desberdinak aztertu dira, hala nola alderantzizko fasea (Envi-carb eta Plexa) eta modu mistoa (Evolute-CX modu mistoko katioi-trukatzaile sendoa). Esperimentu guztietan, garbiketa-urratsaren aurretik, dopatu gabeko arrain-muskuluen laginek FUSLE-ren bidez erauzi ostean, erauziak metanoletan dagoen TCA-en (amitriptilinaren, nortiptilinaren, imipraminaren eta klomipraminaren) 2 µg/mL-ko disoluzioaren 25 µL-rekin dopatu dira. Amaieran, LC-MS/MS analisira orduko, garbiketa-urratseko eluzio-disoluzioa nitrogeno-korrontearen laguntzarekin 35°C-an lehorrera eraman, metanol:Milli-Q ur (90:10, bol/bol) nahastearen 200 µL-an berriz disolbatu eta 0,22 µm-ko polipropilenozko iragazkietatik iragazi da.

3.2.4.1 Alderantzizko fasea

FUSLE erauzketaren ondoren, ~1 mL-ra lurrundutako erauzia aldez aurretik NaOH-arekin pH 12-ra doitutako 6 mL Milli-Q ur gehituta diluitu eta alderantzizko-faseko SPE-ren bidezko garbiketa egin da. Urrats hori Envi-Carb edo Plexa fase geldikorren 200 mg-rekin betetako 6 mL-ko kartutxo hutsak erabilita egin da. Bi fase geldikorren kasuan, erauzia kargatu aurretik, kartutxoak egokitu egin dira 5 mL metanol, 5 mL Milli-Q ur eta pH 12-ra doitutako 5 mL Milli-Q ur pasatuta. Kargaren ondoren, garbitzeko 5 mL Milli-Q ur gehitu, ordu betez hutsa eginda, kartutxoak lehortu eta, bukatzeko, analitoak 6 mL metanoletan eluitu dira.

3.2.4.2 Modu mistoa

FUSLE egin ondoren, ~1 mL-ra lurrundutako erauzia Milli-Q uraren 6 mL gehituta diluitu eta 200 mg-ko Evolute-CX kartutxoan kargatu da. Aldez aurretik kartutxoak 5 mL metanol, 5 mL Milli-Q ur eta % 2 HCOOH duen Milli-Q uraren (pH=2) 5 mL pasatuta egokitu dira. Lagina kargatu ondoren eta garbiketarako helburuarekin, Milli-Q uraren eta metanolaren 5 mL, hurrenez hurren, gehitu, kartutxoak 30 min-tan hutsean lehortu eta analitoak % 2,5 NH_4OH duen azetonaren 3 mL-an berreskuratu dira.

3.2.5 Ur-laginen erauzketa eta aurrekontzentrazioa

Ingurumeneko ur-lagin desberdinetatik (estuarioko, itsasoko eta araztegien irteerako

uretatik) TCA-k erauzi eta aurrekontzentratzeko 3.2.4.2 atalean aipatutako modu mistoko SPE-ren protokolo eraldatua erabili da. Hain zuzen, karga-urratsean 500 mL-ko ur-alikuota Evolute-CX kartutxoan zehar pasatu da 3 mL/min-ko abiaduran eta gainontzeko garbiketa- eta eluzio-prozedura aurreko atalean FUSLE-ko erauziei aplikatutako berdina izan da.

3.2.6 LC-MS/MS analisia

TCA-k banatu eta kuantifikatzeko Agilent 1260 serieko HPLC kromatografoa (Agilent Technologies, Palo Alto, CA, AEB) erabili da, zeinak gasgabetzailea, ponpa binarioa eta laginak hartzeko sistema automatikoa dituen. Zutabe kromatografikoa tenperatura konstantean mantentzeko labeari akoplatuta Agilent 6430 kuadrupolo hirukoitzeko (QqQ) masa-espektrometroa du bi ionizazio-iturrirekin, presio atmosferikoko ionizazio kimikoarekin (*atmospheric pressure chemical ionization*, APCI, delakoarekin) eta ESI-rekin.

Lan honetan, analitoen banaketarako bi zutabe kromatografiko aztertu dira. Aurrezutabe-iragazkiari (0,5 μm, Vici Jour, Vici AG International, Schenkon, Suitza) lotutako ACE UltraCore 2,5 SuperC18 (2,1 mm × 50 mm, 2,5 μm) zutabea (Advanced Chromatography Technologies Limited, Aberdeen, Eskozia) eta Kinetex bifenilo 100 Å core-shell aurrezutabeari (2,1 mm x 5 mm, 2,6 μm) lotutako Phenomenex (Torrance, CA, AEB) merkataritza-etxeko Kinetex bifenilo 100 Å core-shell (2,1 mm x 50 mm, 2,6 μm) zutabea. Fase mugikorrari dagokionez, A fasea Milli-Q ur:metanol (95:5, bol/bol) nahasteaz osatuta dago eta B fasea metanol:Milli-Q ur (95:5, bol/bol) nahasteaz, bietan HCOOH % 0,1 gehituta. Banaketa-gradientea ondokoa da: A fase mugikorraren % 45ean hasi eta % 10era jaitsi da 3 minututan, konposizio horretan 6 minutuz mantendu ostean 3 minututan hasierako baldintzetara (A fase mugikorraren % 45era) bueltatu, eta bertan 8 minutuz mantendu da hasierako baldintzak berreskuratzen direla ziurtatzeko. Analitoen banaketa 0,3 mL/min-ko fluxuan burutu eta injekzio-bolumena 2 μL-an ezarri da.

Aukeratutako ioi aitzindarietatik apurketa-ioietarako trantsizioen jarraipena egiten duen eskuratze-modua (*Selected Reaction Monitoring,* SRM, delakoa) erabili da kuantifikaziorako. Nitrogenoa erabili da talka-, lehortze- eta lainoztatze-gas gisa. ESI-ko aldagaiak optimizatu ondoren, ionizazioa modu positiboan egin da, 3000 V-ko tentsio kapilarrarekin, lehortze-gasa 12 L/min-ko fluxuan eta 350°C-an, eta lainoztatze-gasa 45 psi-an. Konposatuak banan banan

injektatuta, ionizazio-iturriko disoziazio-tentsioa eta talka-energia 20–200 V eta 5-60 eV tarteetan optimizatu dira, hurrenez hurren. Baldintza optimoak 3.2 taulan laburbildu dira.

3.2 taula: *Intereseko analitoen eta trazagarrien ioi aitzindariak eta apurketa-ioiak (lehenengoa kuantifikatzeko eta besteak egiaztatzeko) ionizazio-iturriko disoziazio-tentsioaren (V) eta talka-energiaren (eV) balioa optimoetan. Baita determinazio-koefizienteak (r^2), detekzio-muga (limit of detection, LOD, delakoa) eta kuantifikazio-muga (limit of quantification, LOQ, delakoa) instrumentalak.*

Analitoa	Ioi aitzindaria (*m/z*)	Apurketa-ioiak (*m/z*)	Disoziazio-tentsioa (V)	Talka-energia (eV)	r^2	LOD (ng/mL)	LOQ (ng/mL)
IMI	281,2	58,1/86,1/193,1	76	41/13/45	0,99998	0,2	0,5
AMI	278,2	91,1/117,1/191,1	76	29/25/25	0,99993	0,2	0,5
NOR	264,2	233,1/91,1/105,1	102	13/25/17	0,99988	0,1	0,2
CLO	315,2	86,1/58,1/227,0	76	17/41/45	0,99995	0,05	0,1
$^2H_3$-AMI	281,2	91,1/117,1/191,1	76	29/25/25	0,99993	-	-
$^2H_3$-NOR	267,2	233,1/91,1/105,1	102	13/25/17	0,99980	-	-

Neurketak, datuen eskuratzea eta gailurren integrazioa Masshunter Workstation software-arekin (Qualitative Analysis, B.06.00 bertsioa, Agilent Technologies) egin dira.

3.3 Emaitzak eta eztabaida

3.3.1 LC-MS/MS analisiaren optimizazioa

3.3.1.1 Parametro kromatografikoen optimizazioa

Analito guztiak 1 μg/mL kontzentrazioan dituen estandarra erabilita sakon optimizatu dira LC-MS/MS-eko parametroak, hala nola zutabearen fasea, zutabearen tenperatura, fase mugikorraren konposizioa eta fluxua.

Bibliografian C18 zutabeak erabili izan diren arren [8,9,11,16], lan honetan, TCA-en banaketarako bi kromatografia-zutabe (ACE UltraCore 2,5 SuperC18 eta Kinetex bifenilo 100 Å core-shell) aztertu ditugu. Azterketa horien analisia ekorketa osoko eskuratze-moduan egin da

isokratikoan A:B (50:50, bol/bol) fase mugikor nahastea erabilita, non A Milli-Q ur:metanol (95:5, bol/bol) eta B Milli-Q ur:metanol (5:95, bol/bol) nahasteak diren, bietan % 0,1 HCOOH gehituta. 3.1 irudian ikus daitekeen bezala, bereizmenari, gailurren simetriari eta sentikortasunari erreparatuta, Kinetex biphenyl 100 Å core-shell zutabearekin lortu da kromatografia-banaketarik onena. Hortaz, ondoren egindako esperimentu guztietan Kinetex bifenilo 100 Å core-shell zutabea erabili da.



3.1 irudia: *ACE UltraCore 2,5 SuperC18 zutabea (ezkerrean urdin ilunez) eta Kinetex biphenyl 100 Å core-shell* zutabea (*eskuman urdin argiz*) erabilita lortutako kromatogramak gaizenarrita. Analisia ekorketa osoko eskuratze-moduan *eta isokratikoan A:B (50:50) egin da, non A Milli-Q ur:metanol (95:5, bol/bol) eta B Milli-Q ur:metanol (5:95, bol/bol) nahasteak diren, biak % 0,1 azido formikorekin. 1≡ imipramina; 2≡ nortriptilina; 3≡ amitriptilina; 4≡ klomipramina.*

Fase mugikorraren konposizioari dagokionez, metanola eta Milli-Q ura erabiltzeaz gain, A eta B faseetara HCOOH gehitzea aztertu da. Emaitzen arabera, HCOOH gehitu ezean, intereseko analitoak ez dira detektatzen. Beraz, behin betiko metodoan, % 0,1 HCOOH gehitu da Milli-Q ur:metanol (95:5, bol/bol) nahasteaz osatutako A fase mugikorrera eta Milli-Q ur:metanol (5:95, bol/bol) nahasteaz osatutako B fase mugikorrera.

Zutabe-tenperatura desberdinak ere ebaluatu dira, 30 °C, 40 °C eta 50 °C (merkataritza-etxeak ez du tenperatura altuagorik gomendatzen). Hiru tenperaturetan sentikortasuna estatistikoki bereizi ezina izan arren, 40 °C-an eta 50 °C-an egindako analisietako kromatografia-gailurren itxura zertxobait hobea da. Bi horien artean, 40 °C-ko zutabe-tenperatura aukeratu da zutabearen iraupena luzatzeko asmoarekin.

Azkenik, fase mugikorraren fluxu desberdinak aztertu dira, 0,2 mL/min, 0,3 mL/min eta 0,4 mL/min. Fluxurik altuenean kromatografia-gailurren itxura hobetu arren (datuak ez dira txosten honetan erakusten), erantzuna txikiagoa denez, adostasun-balio gisa, 0,3 mL/min aukeratu da.

3.3.1.2 Elektroesprai-ionizazioaren optimizazioa

ESI da LC-MS-aren bidezko TCA-en analisian nagusiki erabiltzen den ionizazio-modua [8,9,16]. ESI-ren eraginkortasuna eta, ondorioz, sentikortasuna hobetzeko beharrezkoa da ionizazio-parametro egokiak aukeratzea. Lan honetan, ESI-MS/MS seinalean eragin dezaketen lau aldagai instrumental aztertu dira Optimizer software erraminta erabilita: tentsio kapilarra (3-6 kV), lainoztatze-presioa (30-50 psi), lehortze-gasaren fluxua (8-12 L/min) eta lehortze-gasaren tenperatura (300-350 °C).

3.2 irudian beha daitekeen bezala, analito guztiek erakusten dute antzeko joera aztertutako parametroen balioak aldatzean. Tentsio kapilarra handitzeak gailurraren seinalean efektu negatiboa eragiten duen bitartean, sentikortasunari dagokionez emaitzak hobeak dira beste hiru parametroak balio altuetan finkatzerakoan. Emaitza horiek aintzat hartuta, tentsio kapilarra 3000 V-ean ezarri da, lehortze-gasaren fluxua 12 L/min-an, lehortze-gasaren tenperatura 350 °C-an eta lainoztatze-presioa 45 psi-an (50 psi-ko emaitzekin estatistikoki bereizi ezina, p-balioa > 0,05).

Aldez aurretik optimizatutako fase mugikorraren fluxua eta ESI-ko baldintzak erabilita masa-espektrometriarekin zerikusia duten ondoko parametroak aztertu dira: disoziazio-tentsioa, talka-energia eta talka-gelaxkako azeleragailua. SRM eskuratze-modurako, Europako jarraibidetako identifikazio-eskakizunen gomendioz [27], hiru ioi-trantsizio aukeratu dira. Sentikorrena kuantifikatzeko eta beste biak egiaztatzeko. 3.2 taulan laburbildu dira konposatu bakoitza neurtzeko jarraitu beharreko ioi-aitzindaria eta apurketa-ioiak disoziazio-tentsioaren eta talka-energiaren balio optimoetan.



3.2 irudia: *LC-MS/MS analisian zehar parametro desberdinen eragina: (a) tentsio kapilarra, (b) lainoztatze-presioa, (c) lehortze-gasaren fluxua eta (d) lehortze-gasaren tenperatura. Batezbesteko balioa eta desbiderazio estandarrak daude irudikatuta, non seinaleak aldagaiaren balio baxueneko erantzunarekin normalizatuta dauden.*

3.3.1.3 Kalibrazio-tarteak, korrelazio-koefizienteak eta detekzio-muga instrumentalak

Neurketa-baldintza optimoetan, LOQ-2500 ng/mL kontzentrazio-tartean metanoletan prestatutako 10 disoluzio estandarrekin kalibratuak eraiki dira. 3.2 taulan ikus daitekeen bezala, 0,99990-0,99998 bitarteko determinazio-koefizienteak (r^2) lortu dira aztertutako analitoentzat. LOD seinale/zarata arteko erlazioa gutxienez 3 (S/N = 3) duen kontzentrazio baxuenetik ezarri dira. LOQ-ak definitzeko, aldiz, 3 irizpide ezarri dira: (i) kalibratuko tarte linearrean egotea, (ii) gailurraren itxura egokia izatea, eta (iii) gutxienez seinale/zarata arteko erlazioa 10 (S/N = 10) izatea. 3.2 taulan beha daitekeen moduan, lortutako LOD-ak eta LOQ-ak 0,2 ng/mL eta 0,5 ng/mL azpitik daude, hurrenez hurren. Balio horiek bibliografian argitaratutakoen antzekoak dira [5,8,19].

Disoluzio estandar eta lagin guztiak iragazi dira LC-MS/MS analisiaren aurretik. Iragazkiak erabiltzearen ondorioz sor daitekeen kutsadura gurutzatua edota analitoen galera ekiditeko asmoarekin, 0,2 µm-ko iragazki desberdinak frogatu dira: polipropilenozkoak (Pall eta Membrane Solutions merkataritza-etxeetakoak), tefloizkoak eta polibinilideno fluorurozkoak. 3.3 irudian ikus daitekeen bezala, tefloizko eta Membrana Solutions merkataritza-etxeko polipropilenozko iragazkiak soilik dira analitoen erretentzioa pairatzen ez duten bakarrak. Bien arteko emaitzak estatistikoki bereizi ezinak (p-balioa> 0,05) izanik, merkeagoak diren Membrana Solutions merkataritza-etxeko polipropilenozko iragazkiak erabili dira ondorengo esperimentuetan.



3.3 irudia: *Polibinilideno fluorurozko (PVDF), Pall eta Membrane Solutions merkataritza-etxeetako polipropilenozko (PP) eta tefloizko (PTFE) 0,2 µm –ko iragazki desberdinetatik iragazita lortutako etekin absolutuak.*

3.3.2 Lagin solidoen erauzketa eta garbiketa

3.3.2.1 Lagin solidoetarako erauzketa-parametroen optimizazioa

Lehenik eta behin, bibliografiaren arabera [9,12,16,23], hiru erauzketa-disolbatzaile nahaste desberdin aztertu dira: metanol:HOAc (99:1, bol/bol), azetonitrilo:HOAc (99: 1, bol/bol) eta azetonitrilo:Milli-Q ura (99:1, bol/bol). Erauzketa-urratsaren ostean, erauzia 0,45 µm-ko poliamidazko iragazkiarekin iragazi eta, arestian deskribatutako garbiketa-prozedura (ikus 3.2.4.1

atala) jarraitu da 200 mg Plexa fase geldikorra erabilita. LC-MS/MS-aren bidezko analisira orduko, SPE-ko eluitua nitrogeno-korrontea erabilita lehorreraino 35 °C-an lurrundu, metanol:Milli-Q ur (1:1, bol/bol) nahastearen 200 µL-an berriz disolbatu eta 0,22 µm-ko polipropilenozko iragazkiekin iragazi da. Azterketa guztiak hiru aldiz errepikatu dira. Emaitzek erakutsi dute azido azetikoak arrain-muskuluko proteinak desnaturalizatzen dituela [28] eta metanolak poliamidazko iragazkiak degradatzen dituela (datuak ez dira erakusten txosten honetan). Hori dela eta, erauzketa-disolbatzailean metanolaren eta azido azetikoaren erabilera baztertu da.

Horrez gain, berreraketa-disolbatzailean uraren portzentaje altuak (> % 50) erauzietan uherdura sortarazten duela behatu da. Horren arrazoia uretan disolbagaitzak diren matrizeko osagaien presentzia izan daiteke, zeina proteinen presentziarekin erlazionatuta egon daitekeen [29]. Beraz, zenbait esperimentu egin dira uraren zenbatekoa optimizatzeko. Aurreko esperimentuetan bezala prozesatutako arrain-muskulu laginak metanol:Milli-Q ur konposizio (bol/bol) desberdinen 200 µL-an berriz disolbatu dira. Hain zuzen, metanol:Milli-Q ur 80:20, 85:15, 90:10, 95: 5 eta 100:0 (metanol purua) nahasteetan. Emaitzen arabera, amaierako berreraketa-disolbatzaileko edukiak ezin du uraren % 10a baino gehiago izan, baldin eta erauzietan uherdura saihestu nahi bada (datuak ez dira erakusten txosten honetan). Bestalde, berreratzeko disolbatzaile gisa metanol purua erabilita uherdurarik behatu ez arren, bereizmen kromatografikoa zeharo kaltetzen da. Izan ere, metanolak indar eluotropiko handiegia du fase mugikorraren hasierako konposizioarekin (metanol: Milli-Q ur (55:45, bol/bol) nahastearekin) alderatuta. Hortaz, hurrengo esperimentuetan metanol: Milli-Q ur (90:10, bol/bol) nahastea erabili da berreraketan, amaierako erauziko uherdura ezaren eta bereizmen kromatografiko egokiaren adostasun gisa.

Aurreko emaitzak kontuan hartuta, erauzketa-disolbatzaile gisa azetonitrilo:Milli-Q ur nahastean uraren ehuneko desberdinak (hau da, % 0,% 1, % 5 eta % 10) aztertu dira. 3.4 irudian ikus daitekeen moduan, konposatu guztientzat azetonitrilo:Milli-Q ur (95:5, bol/bol) nahastea erabilita lortu direnez emaitza kromatografiko onenak eta etekin altuenak, nahaste hori ezarri da optimo gisa.

FUSLE-ren eraginkortasuna hobetzeko, erauzketa-denboraren eta ultrasoinuen pultsu-denboraren eragina aldi berean optimizatu dira diseinu konposatu zentralaren (*central composite design*, CCD, delakoaren) bidez Statgraphic Centurium XV software-a erabilita. Horretarako,

ondorengo faktore-tarteak hartu dira kontuan: 0,5 eta 5 min arteko erauzketa-denbora eta 1 s-ko zikloan 0,2 s eta 0,8 s arteko pultsu-denbora. Ikerketa-taldearen esperientzia aintzat hartuta [24], disolbatzailearen bolumena eta sonikazio-potentzia aldagaien balioak konstante mantendu dira 7 mL-an eta % 10ean, hurrenez hurren. Analito bakoitzaren erantzun-azalerak eraikitzeko, esperimentu bakoitzean (erdiko puntuaren 3 erreplikak kontuan izanda, guztira 11 esperimentuetan) lortutako erantzun kromatografikoak erabili dira. Emaitzek agerian utzi dute pultsu-denborak eragin positiboa duela nortriptilina analitoarentzat, baina ez dela esanguratsua gainerako analitoentzat (p-balioa> 0,05). Hori dela eta, ebaluatutako balio altuenean ezarri da, hau da, 0,8 s-an.



3.4 irudia: *Arrain-muskuluan FUSLE urratsean disolbatzaile motak duen eragina. Batezbesteko balioa eta desbiderazio estandarrak (n = 3) daude irudikatuta, non seinaleak erantzun kromatografiko altuenera normalizatuta dauden.*

Azkenik, erauzketa-denbora ez denez esanguratsua (p-balioa > 0,05) CCD hurbilketan aztertutako tartean, erauzketa jarraiak egin dira CCD-an aztertutako erauzketa-denboraren balio maximoan (5 min) eta minimoan (30 s). Esperimentu bakoitza 3 aldiz egin da. Analito guztientzako lortutako etekinak estatistikoki bereizi ezinak izan dira bi erauzketa-denboretan (p-balioa > 0,05) eta bigarren erauzketa jarraian lortutako berreskurapenak arbuiagarriak (< % 5). Horregatik, erauzketa-denbora balio minimoan (hau da, 30 s-an) ezarri eta bigarren erauzketa jarraia ez egitea erabaki da hurrengo erauzketetarako.

3.3.2.2 Lagin solidoetarako garbiketa-parametroen optimizazioa

Lehenik eta behin, arestian deskribatu den bezala (ikus 3.2.4.1 eta 3.2.4.2 atalak), bibliografian beste matrize batzuetarako erabilitako antzeko baldintzetan [10,20] hiru fase geldikorren (Envi-Carb, Plexa eta Evolute-CX faseen) eraginkortasuna ebaluatu da etekinen bidez. 3.5 irudian ikus daitekeen bezala, erabilitako eluzio-baldintzetan intereseko analitoak ez dira Envi-Carb kartutxoetatik berreskuratzen. Horren arrazoia fase geldikorraren eta analitoen Π elektroien artean sortutako elkarrekintza izan daiteke, analitoaren erretentzioa itzulezina bilakatu daitekeelarik. Kontrara, Plexa eta Evolute-CX faseekin analitoak berreskuratzea lortu da. Bi fase horietan amitriptilina, imipramina eta klomipramina analitoen etekinak estatistikoki bereizi ezinak izan arren, Plexa fase geldikorrarekin nortriptilinarentzat etekin baxuagoan lortu dira. Beraz, modu mistoko SPE aukeratu da optimo gisa. Horrez gain, SPE garbiketan Evolute-CX modu mistoko fase geldikorra erabiltzeak matrize-interferentziak hobeto ezabatu eta erauzi garbiagoak lortzea ahalbideratzen du erretentzio-mekanismo desberdinen konbinazioagatik (hau da, banaketa eta ioi-trukatzaile moduen konbinazioagatik).



3.5 irudia: *Alderantzizko faseko (Plexa eta Envi-Carb) eta modu mistoko (CX) SPE-ren bidezko garbiketa-estrategia desberdinen eragina. Emaitzak garbiketaren ondorengo etekin gisa adierazten dira, balio altuenera normalizatuta eta desbiderazio estandarrekin (n=3, % 95 konfiantza-maila).*

Modu mistoko katioi-trukatzaile fase geldikorretik analitoak hobeto eluitzeko, indar eluotropiko desberdina duten bi disolbatzaile aztertu dira: % 2,5 NH_4OH duen metanola eta % 2,5 NH_4OH duen azetona. Horretarako, 50 ng TCA-ekin dopatutako arrain-muskuluaren FUSLE-ko erauziak erabili dira, 3 erreplika baldintza bakoitzeko. Gainera, 12 mL-ko bolumen osoaren eluzio-profila lortzeko, eluzio-disolbatzailearen 3 mL-ko 4 frakzio jarrai bildu dira ontzi desberdinetan. Frakzio guztiak, bakoitza bere aldetik, lehorreraino lurrundu, metanol:Milli-Q ur (90:10, bol/bol) nahastearen 200 µL-an berriz disolbatu eta 0,22 µm-ko polipropilenozko iragazkiekin iragazi dira LC-MS/MS-aren bidez analizatzeko.

Disolbatzailea edozein izanda, 3. eta 4. frakzioetan ez da analitorik detektatu. Bestalde, 3.6 irudian laburbiltzen diren emaitzen arabera, % 2,5 NH_4OH duen azetona erabilita, oro har, hobeto berreskuratzen dira analitoak, eta azken hori azetonaren indar eluotropiko handiagoari atxiki dakioke. Gainera, eta analitoak kuantitatiboki berreskuratzeko % 2,5 NH_4OH duen azetonaren 3 mL-rekin nahikoa denez, baldintza horiek erabili dira hurrengo saiakuntzetan.



3.6 irudia: *SPE-ko eluzio-urratseko disolbatzailearen eta bolumenaren (frakzio bakoitza 3 mL) eragina. Eluitzaile gisa % 2,5 NH_4OH duen metanola eta % 2,5 NH_4OH duen azetona erabilita lortutako analito bakoitzarentzako etekinak adierazi dira, seinale altuenera normalizatuta.*

3.3.2.3 Matrize-efektua lagin solido desberdinetan

Erauzketaren eraginkortasunean lagineko matrizeak eragin handia izan dezake. Izan ere, matrizeko konposatuek material fase geldikorraren puntu aktiboekin lehiatu edo, ionizazioko eraginkortasunean erasanda, LC-MS/MS-aren bidezko determinazioan matrize-efektua eragin dezakete.

Horregatik, nahiz eta lagin biologiko solidoentzako metodoaren optimizazioa arrain-muskuluarekin egin den, matrize-efektuaren ebaluazioa arrain-muskulura, arrain-gibelera eta muskuiluetara hedatu da.

LC-MS/MS-aren bidezko analisiaren eragina alde batera utzita eta, soilik garbiketa-urratsari dagokion matrize-efektua ebaluatzeko, ondorengoak erkatu dira: laginaren FUSLE-ko erauziak (n=3) garbiketa-urratsaren aurretik eta ostean dopatuta (TCA-en 200 ng/mL-ko disoluziotik 200 μL gehituta). Garbiketa-urratsaren aurretik eta ondoren dopatutako erauzietako analitoen arteko kontzentrazio-zatiketa % 75-95 tartean egon da analito zein matrize guztientzat (ikus 3.7a irudia), eta, hortaz, garbiketa-urratseko matrize-efektua arbuiagarritzat har daiteke.

Beste aldetik, LC-MS/MS detekzioan gertatzen diren matrize-efektuak ebaluatu dira. Horretarako, garbiketa-urratsaren ondoren dopatutako erauziaren eta kontzentrazio berdineko disoluzio estandarraren kontzentrazioak erkatu dira. Oro har, 3.7b irudian beha daitekeenez, analitoa eta aztertutako lagin solidoa (muskulua, gibela edo muskuilua) edozein izanda, detekzioko matrize-efektua % 100 baino pixka bat baxuagoa izan da analito guztientzako. Hortaz, matrizeko interferentzien eraginez, analito guztiek antzeko seinalearen txikitzea pairatzen dutela ondoriozta daiteke. Matrizeen arteko erkaketatik esan daiteke matrize-efektua muskuiluetan (% 92 gehien kaltetutako imipramina analitoarentzat) baino nabarmenagoa dela arrain-laginetan (% 59 eta % 69 imipraminarentzat muskuluan eta gibelean, hurrenez hurren). Detekzioko matrize-efektuak zuzentzeko ohiko bidea metodoaren berrespeneko atalean aztertuko den isotopikoki markatutako barne-estandarren erabilpena da.



3.7 irudia: *Matrize-efektua a) garbiketa-urratsean eta b) LC-MS/MS-aren bidezko detekzioan. Batezbesteko balioa (n = 3) eta desbiderazio estandarrak daude irudikatuta. Garbiketa-urratseko matrize-efektua garbiketaren aurretik eta ondoren dopatutako (200 ng/mL-ko disoluziotik 200 µL gehituta) laginen arteko kontzentrazioen zatiketatik kalkulatu da. Detekzioko matrize-efektua, aldiz, garbiketaren ondoren dopatutako (200 ng/mL-ko disoluziotik 200 µL gehituta) laginaren eta kontzentrazio bereko estandarraren arteko zatiketatik.*

3.3.2.4 Metodoaren berrespena lagin solido desberdinetan

TCA-entzako erreferentziazko materialik eskuragarri ez dagoenez, lagin solidoen (arrain-muskuluaren, arrain-gibelaren eta muskuiluen) berrespenerako kutsatu gabeko laginak aztarna-mailako kontzentrazio ezagunean indartu dira. Lehenengo hurbilketan, lagina indartzeko azetonatan nahastu dira liofilizatutako lagina eta analitoak. Baina lagin koipetsuetan (arrain-gibeletan eta muskuiluetan) azetona disolbatzailearen gehitzeak matrizeen gehiegizko eraldaketa sortzeaz gain, analitoen galera ere eragin du (datuak ez dira erakusten txosten honetan). Ondorioz, berrespeneko saiakuntzak analitoen disoluzio estandarren bolumen txikia momentuan laginetara gehituta egin dira. Nahiz eta laginen momentuko dopatzea ez den beti hurbilketarik onena lagin

kutsatuak simulatzeko, bibliografian [30,31] arrakastaz aplikatu izan da disolbatzaileen bolumen handiak erabilitako indartutako laginak bideragarriak ez direnean.

Metodoen egokitasuna ebaluatzeko etekin gordinak (zuzendu gabeak) eta dagokion isotopikoki markatutako estandarrarekin zuzendutako etekinak, doitasuna eta metodoen detekzio-mugak (*method detection limit*, MDL, direlakoak) kalkulatu dira (ikus 3.3 taula). Matrize solido desberdinen etekin gordinak bi kontzentrazio-mailatan kalkulatu dira, 10 ng/g-an (n=5) eta 80 ng/g-an (n=3). Etekin gordin onargarriak (% 39-64) lortu dira intereseko konposatu guztientzat eta matrize guztietan (ikus 3.3 taula). Salbuespena maila altuan dopatutako gibela izan da, zeinetan etekin gordin baxuagoak lortu diren (% 22–27).

Nahiz eta isotopikoki markatutako estandarrak erabilita emaitzen zehaztasuna zuzendu daitekeen, azken saiakera bat egin da arrain-gibel laginetatik TCA-en erauzketaren eraginkortasuna hobetzeko. Horretarako, zehaztutako erauzketa-baldintzetan aldaketa txikiak suposatzen dituzten bi estrategia frogatu dira. Lehen saiakeran, erauzketa-disolbatzaile desberdinak (azetona, azetonitriloa, azetonitriloa:Milli-Q ura 95:5 (bol/bol) eta azetonitriloa:Milli-Q ura 80:20 (bol/bol)) ebaluatu dira gainontzeko aldagaiak finko mantenduta. Azetonarekin lortutako erauzietan, garbiketa-urratsaren ondoren, hondar lehor asko gelditu denez (seguruenik gibeleko gantz azidoei dagozkienak), disolbatzaile horren erabilera baztertu da. Gainontzeko disolbatzaileekin egindako esperimentuetan estatistikoki bereizi ezinak (p-balioa> 0,05) diren etekin gordinak lortu dira. Hori dela eta, erauzketaren kuantitatibotasuna ebaluatu nahian, bigarren estrategia bat frogatu da, lagin berdinaren bi erauzketa jarrai eginda azetonitrilo:Milli-Q ur (95:5 ,bol/bol) nahastea erabilita. Arestian aipatutako arrain-muskuluarekin egindako saiakuntzen antzera, bigarren erauzketan analitoen % 10-a baino ez da detektatu gibelean. Ondorioz, nahiz eta bi erauzketen batura egin etekin osoak baxuak izaten jarraitzen duenez, analisiaren bideragarritasuna bermatzeko erauzketa jarrairik ez egitea erabaki da.

Gainera, etekinak zuzentzeko, FUSLE urratsaren aurretik analitoen kontzentrazio berean gehitutako $^{2}H_{3}$-AMI eta $^{2}H_{3}$-NOR trazagarriak erabili dira. Isotopikoki markatutako estandarrak erauzketan behatutako eraginkortasun eza zein detekzioko seinalearen txikitzea arrakastaz zuzentzeko gai dira. Oro har, 3.3 taulan beha daitekeen gisa, etekin zuzenduak % 86-114 tartean daude aztertutako konposatu guztientzat.

3.3 taula: *10 ng/g and 80 ng/g mailetan dopatutako arrain-muskuluarentzako, arrain-gibelarentzako eta muskuiluentzako etekin gordinak eta zuzenduak, eta metodoen detekzio-mugak (ng/g).*

Analitoa	Arrain-muskulua					Arrain-gibela					Muskuiluak				
	Etekin gordina		Etekin zudendua		MDL (ng/g)	Etekin gordina		Etekin zudendua		MDL (ng/g)	Etekin gordina		Etekin zudendua		MDL (ng/g)
	10 ng/g	80 ng/g	10 ng/g	80 ng/g		10 ng/g	80 ng/g	10 ng/g	80 ng/g		10 ng/g	80 ng/g	10 ng/g	80 ng/g	
IMI	39	51	94[a]	103[a]	2	57	22	96[a]	89[a]	2	43	45	89[a]	86[a]	3
NOR	39	54	102[b]	96[b]	1	47	23	102[b]	98[b]	2	48	47	101[b]	100[b]	1
AMI	44	50	107[a]	102[a]	3	63	26	106[a]	103[a]	2	49	52	100[a]	99[a]	3
CLO	42	56	102[a]	114[a]	2	64	27	107[a]	109[a]	2	51	53	104[a]	102[a]	2

(a) $^{2}H_{3}$-AMI trazagarriarekin zuzendua; (b) $^{2}H_{3}$-NOR trazagarriarekin zuzendua.

Metodoaren errepikakortasuna ebaluatzeko desbiderazio estandar erlatiboa (*relative standard deviation*, RSD, delakoa) kalkulatu da egun berean aztertutako errepliketatik. RSD-aren balioak % 1-9 bitartekoak dira, eta matrizeen konplexutasuna kontuan izanda ontzat hartu da. Balio horiek, beste erauzketa-teknika batzuen bidez TCA-k lagin solidoetan aztertu dituzten beste lan batzuekin aldaragarriak dira [12,16,23].

MDL-ak determinatzeko, AEBetako Ingurumenaren Babeserako Agentziaren (*United States Environmental Protection Agency*, US EPA, delakoaren) gomendioei jarraiki [32], matrize-zuri bakoitzaren 5 erreplika kontzentrazio baxuenean (10 ng/g solidoarentzat) dopatu dira. MDL-ak $MDL = t_{(n-1,\,1-\alpha=0.99)} \times s_d$ ekuazioaren bidez kalkulatu dira, non t = 3,75 Student-en t balioa den % 99-ko konfiantza-mailan lau askatasun-gradurentzat eta s_d 5 errepliken (n=5) desbiderazio estandarrari dagokion. 3.3 taulan beha daitekeen bezala, arrain-gibeleko, arrain-muskuluko eta muskuiluetako MDL balioak 1-3 ng/g tartean daude.

3.3.3 Ur-laginen aurrekontzentrazioa eta garbiketa

Aurreko atalean modu mistoko SPE erabilita lortutako emaitza onak oinarri hartuta, ingurumeneko ur-laginen (estuarioko, itsasoko eta araztegien irteerako uren) aldibereko aurrekontzentraziorako eta garbiketarako ere modu mistoko SPE aztertu da.

Katioi-trukatzaile sendoak erabilita, modu mistoko SPE teknika bibliografian aplikatu izan da TCA-k ur gezako laginetatik isolatzeko [5,8,10], baina itsasoko uretako aplikazioak mugatuak dira [6]. Itsasoko uretan kontzentrazio altutan dauden gatz ez-organikoen presentziak ioi-truke mekanismoa oztopa dezakeenez, modu mistoa aplikatu nahi bada, beharrezkoa da aurretiazko ebaluazioa. Izatez, badaude itsasoko urarekin arazoak izan dituzten ikerketa-lanak [33], nahiz eta araztegiko irteerako eta estuarioko uretarako emaitza onak eta erauzi garbiak lortu. Hori dela eta, lan honetan, katioi-trukatzaile sendoa erabilita TCA-k ur-lagin desberdinetatik bereizteko erauzketaren eraginkortasuna, apurketa-bolumena eta matrize-efektua sakontasunez ebaluatu dira.

3.3.3.1 Erauzketa-etekinak

Estuarioko, itsasoko eta araztegien irteerako uretatik TCA-en erauzketaren eraginkortasuna

aztertzeko, 100 mL-ko laginei (1,2 μm-ko beira-zuntzezko iragazkietatik eta 0,45 μm-ko zelulosa nitratozko mintz-iragazkietatik iragazitakoei) TCA-k gehitu zaizkie 400 ng/L mailan. Aldi berean, kontzentrazio-maila berdinean indartutako Milli-Q ura ere analizatu da. Esperimentuak hiru aldiz errepikatu dira. Erauzketaren etekinak % 61-83 bitartekoak izan dira, baita itsasoko uretan ere, eta matrize guztietako emaitzak Milli-Q urarekin lortutakoekin estatistikoki bereizi ezinak dira (p-balioa > 0,05). Hortaz, modu mistoko SPE aztertutako ur-matrize guztientzat erabiltzea posible dela ondoriozta daiteke.

3.3.3.2 Apurketa-bolumena

SPE-ko kartutxoetan laginaren bolumen oso handiak kargatzen direnean, kartutxoaren "apurketa" gerta daiteke eta analitoak fase geldikorrean harrapatuta geratu beharrean zutabean zehar barreiatu daitezke. Analitoak Evolute-CX kartutxoan (200 mg) zehar barreiatzen hasten diren bolumena ebaluatzeko 1,2 μm-ko beira-zuntzezko iragazkietatik eta 0,45 μm-ko zelulosa nitratozko mintz-iragazkietatik iragazitako araztegi irteerako ura erabili da, hau baita aztergai diren laginetatik zikinena. Horretarako, bi Evolute-CX kartutxo seriean elkarri lotuta jarrita egin dira erauzketak eta 100 ng/L mailan indartutako araztegiko irteerako uraren 100 mL, 250 mL eta 500 mL kargatu dira. Lagina kargatu ondoren, seriean dauden kartutxoak desmuntatu eta analitoak berreskuratu dira kartutxo bakoitzetik %2,5 NH_4OH duen azetonaren 3 mL erabilita. Analitoak bereziki goiko kartutxoan detektatu dira, eta kasu guztietan, bigarren kartutxoan detektatu diren analitoen etekina % 2,5 baino baxuagoa izan da. Beraz, nahiz eta 500 mL ur pasatu karga-urratsean ez denez kartutxoan zeharreko analitoen barreiatzerik behatu, aztertutako bolumen handiena kargatzea erabaki da aurrekontzentrazio-faktorerik (2500 aldiz) handiena lortzeko.

3.3.3.3 Matrize-efektua ur-lagin desberdinetan

Ur-lagin desberdinetan garbiketa-urratseko eta LC-MS/MS-aren bidezko detekzioko matrize-efektua aztertzeko lagin solidoetarako erabilitako estrategia bera erabili da (ikus 3.3.2.3 atala) eta laginak kontzentrazio-maila berdinean dopatu dira (200 ng/mL-ko disoluziotik 200 μL gehituta). 3.7 irudian ikus daitekeen moduan, ur-mota guztientzat matrize-efektua arbuiagarria da (% 71-93) garbiketa-urratsen zein detekzioan.

3.4 taula: *10 ng/L eta 80 ng/L mailetan dopatutako itsasoko, estuarioko eta araztegiko irteerako urentzako etekin gordinak eta zuzenduak, eta metodoen detekzio-mugak (ng/L).*

Analitoa	Itsasoko ura					Estuarioko ura					Araztegiko irteerako ura				
	Etekin gordina		Etekin zuzendua		MDL (ng/L)	Etekin gordina		Etekin zuzendua		MDL (ng/L)	Etekin gordina		Etekin zuzendua		MDL (ng/L)
	10 ng/L	80 ng/L	10 ng/L	80 ng/L		10 ng/L	80 ng/L	10 ng/L	80 ng/L		10 ng/L	80 ng/L	10 ng/L	80 ng/L	
IMI	57	74	93[a]	99[a]	2	52	74	93[a]	100[a]	1	60	75	89[a]	95[a]	1
NOR	62	76	107[b]	100[b]	1	62	76	107[b]	100[b]	1	75	76	116[b]	104[b]	2
AMI	73	73	119[a]	98[a]	1	64	80	114[a]	107[a]	1	119	97	176[a]	122[a]	2
CLO	69	78	113[a]	105[a]	1	65	79	115[a]	106[a]	1	79	81	117[a]	102[a]	1

(a) $^{2}H_{3}$-AMI trazagarriarekin zuzendua; (b) $^{2}H_{3}$-NOR trazagarriarekin zuzendua

3.3.3.4 Metodoaren berrespena ur-lagin desberdinetan

Metodo optimoaren kalitate-parametroak 3.4 taulan laburbildu dira. Etekinak iragazitako 10 ng/L (n=5) eta 80 ng/L (n=3) mailetan dopatutako 500 mL-ko ur-laginak erabilita kalkulatu dira. Ingurumeneko lagin errealetan TCA-k agertzea espero denez, dopatu gabeko ur-laginek ere prozedura bera pairatu dute. 3.4 taulan beha daitekeen bezala, dopatu gabeko laginen erantzuna kendu eta trazagarriekin zuzendu ondoren, etekin zuzendu egokiak (% 93-112) lortu dira. Salbuespen bakarra maila baxuan dopatutako amitriptilinaren emaitzak izan dira eta horren arrazoia gehitutako kantitatea (5 ng) jadanik laginean zegoena (12,5 ng) baino baxuagoa izana da. % RSD moduan adierazita dagoen % 1-7 arteko (n = 3) metodoaren doitasuna, argitaratutako beste lan batzuetan aurkitutakoaren antzekoa da [5,8,11,19,23]. MDL-ak lagin solidoentzako azaldutako moduan kalkulatu dira (ikus 3.3.2.4 atala), matrize bakoitzaren bostna zuri kontzentrazio baxuenean dopatuta (10 ng/L). Itsasoko, estuarioko eta araztegiko irteerako ur-laginen MDL balioak 1-2 ng/L tartean daude (ikus 3.4 taula). Bibliografian ere antzeko emaitzak lortu dira [6,8,23].

3.3.3.5 Iragazketa

Lan honetan egin den gisara, konposatu organiko emergenteen analisiaren inguruko lan gehienek ere ur-laginak iragazita aztertzen dituzten arren [5,6,8–10], eztabaida handia dago laginak iragaztearen inguruko egokitasunaren inguruan [34–36]. Izatez, Europar Batasuneko Ur-Esparru Zuzentarauak [37] ur-lagin gordinak, iragazi gabeak, erabiltzea gomendatzen du aztertu nahi diren analitoen kontzentrazio osoa determinatzea beharrezkoa denean. Gainera, iragazkien aukeraketa desegokiak konposatu batzuk iragazkian atxikiturik geratzea eragin dezake [38].

Azken puntu horretan sakondu nahian, bibliografian asko erabiltzen diren bi iragazki desberdinen egokitasuna ebaluatu da: 1,2 μm-ko beira-zuntzezko iragazkiak eta 0,45 μm-ko zelulosa nitratozko mintz-iragazkiak. Saiakuntzak burutzeko, aurretiaz optimizatutako prozedura aplikatu zaie hasieran (iragazi aurretik) analitoekin eta trazagarriekin indartutako (400 ng/L) 100 mL-ko ondoko laginei: iragazi gabeko Milli-Q urari, 0,45 μm-ko zelulosa nitratozko mintz-iragazkiekin iragazitako Milli-Q urari eta 1,2 μm-ko beira-zuntzezko iragazkiekin iragazitako Milli-Q urari. Emaitzek erakutsi dute bai analitoak bai trazagarriak, guztiak atxikitzen direla bi iragazkietan,

baina maila desberdinean. Izan ere, 1,2 µm-ko beira-zuntzezko iragazkietan eta 0,45 µm-ko zelulosa nitratozko mintz-iragazkietan erretenitzearen ondoriozko analitoen galerak % 64,4-68,1 eta % 99,0-99,4 bitartekoak izan dira, hurrenez hurren.



3.8 irudia: *1,2 µm-ko beira-zuntzezko iragazkitik ur-laginak iragaztearen eragina. $^2H_3$-AMI (a) eta $^2H_3$-NOR (b) trazagarrien etekin absolutuak konparatzen dira laginak iragazita edo iragazi gabe. Amitriptilina (AMI, c) eta nortriptilina (NOR, d) analitoen kontzentrazioak laginetan, dagokien trazagarriarekin zuzendu ondoren.*

Analitoen galera txikiena 1,2 µm-ko beira-zuntzezko iragazkietan pairatu denez eta bibiografian gehien erabiliak direnez [5,6,8–10,38], $^2H_3$-AMI eta $^2H_3$-NOR trazagarriekin indartutako (20 ng/L) ur-matrize ezberdinen (itsasoko, estuarioko eta araztegiko irteerako uren) 500 mL aztertu dira (n=3) 1,2 µm-ko beira-zuntzezko iragazkien bidez iragazita eta iragazi gabe. 3.8 (a-b) irudiko emaitzetan erakusten den moduan, laginek duten materia organiko kantitatearen araberako bi erantzun desberdin behatu dira. Alde batetik, iragazitako estuarioko eta araztegiko irteerako uretan trazagarrien etekinak estatistikoki bereizi ezinak dira iragazi gabekoekin. Hortaz, esan

daiteke materia partikulatuaren presentzian beira-irazgazkietan gutxitu egiten dela analitoen atxikipena. Bestalde, $^{2}H_{3}$-NOR trazagarriaren etekinean jaitsiera argia (% 31) behatu da laginak iragazi direnean. Dena den, 3.8 (c-d) irudiko emaitzei erreparatuta, trazagarria lagina iragazi aurretik gehitzen bada, TCA guztientzat (baita nortriptilinarentzat ere) kontzentrazio zehatzak eman daitezke, intereseko analitoen eta trazagarrien joera konparagarria baita. Horrelako joerak beste farmako batzuekin ere behatu izan dira beste ikerketa-lan batzuetan [38].

3.3.4 Metodoen aplikazioa lagin errealetan

Garatutako metodoak 2015eko ekainean Gernikan bildutako zenbait laginetan aplikatu dira, zehazki, araztegiko irteerako uretan, estuarioko (araztegiko irteeratik errekan beherako) uretan eta korrokoien (*Chelon labrosus*) gibeletan, eta baita Laida hondartzako (Ibarrangelu) itsasoko uretan eta muskuiluetan (*Mytilus galloprovincialis*) ere. 3.9 irudian LC-MS/MS-aren bidez lortutako araztegiko irteerako ur-laginaren eta korrokoi-gibelaren erauzien kromatogramak ageri dira, 10 ng/mL-ko disoluzio estandarrarekin batera.

Laburki, aztertutako TCA-etatik imipramina da analizatutako lagin batean ere detektatu ez den bakarra. Klomipramina araztegiko irteerako uretan soilik detektatu da kontzentrazio-maila oso baxuan (1,6 ± 0,3 ng/L) eta nortriptilina ere antzeko kontzentrazioan behatu da araztegiko irteerako (1,85 ± 0,03 ng/L) eta estuarioko (1,37 ± 0,02 ng/L) uretan. Azkenik, nabarmentzekoa da amitriptilina dela aztertutako laginetan kontzentrazio altuenean detektatutako TCA. Kontzentrazio altuenak estuarioko (6,4 ± 0,2 ng/L) eta araztegiko irteerako (26 ± 1 ng/L) uretan aurkitu dira. Izatez, beste leku batzuetan egin duten uren segimenduaren programetan ere amitriptilina izan da kontzentrazio altuenean behatu den TCA [4,5,8,9]. Gainera, amitriptilina korrokoien gibelean detektatu izanak (1,8 ± 0,2 ng/g) eta ez korrokoien muskuluan, konposatu honek ehun espezifiko (gibel) horretan metatzeko duen gaitasuna argi adierazten du. Antzeko emaitzak behatu izan dira bibliografian [16]. Bestalde, aztertutako muskuiluetan TCA-k MDL-tik behera egon diren arren, eta itsasoko uretan TCA-k aurkitu ez direnez, ezin da atera espezie horretan TCA-ek biometatzeko duten gaitasunaren inguruko ondoriorik. Edonola ere, aipatutako emaitzak aintzat hartuta, gomendagarria da, bai biotan bai ur-laginetan, TCA-en segimendua egiten jarraitzea.



3.9 irudia: *LC-MS/MS analisiaren bidez lortutako SRM kromatogramak aztertutako laginentzat: a) 10 ng/mL-ko disoluzio estandarra; b) araztegiko irteerako ur-lagina; eta c) korrokoi-gibelaren lagin erreala. 1≡ imipramina; 2≡ nortriptilina; 3≡ amitriptilina; 4≡ klomipramina.*

3.4 Ondorioak

Ur laginetan TCA-en segimendua egiten duten ikerketa lan anitz daude bibliografian, baina ez ordea konposatu horiek matrize biologikoetan aztertzen dituztenak. Lan honetan, amitriptilina, nortiptilina, imipramina eta klomipramina TCA-k ingurumeneko uretan (estuarioko, itsasoko eta araztegien irteerako uretan) eta biotan (arrainen gibelean eta muskuluan eta muskuiluetan) determinatzeko metodo sentikorren eta errepikakorren garapena aurkeztu da. Helburu horretarako, analisiaren egokitasunarekin lotutako urrats guztiak sakonki optimizatu dira, hala nola erauzketa, garbiketa eta detekzioa. Lehenik eta behin, aztertutako analitoentzat LC-MS/MS-aren bidezko analisiaren optimizazio osoa burutu da, kromatografia-zutabea, fase mugikorra, ionizazio-baldintzak eta masa-espektrometriako aldagaiak aztertuta. Azpimarratu beharra dago Kinetex biphenyl 100 Å core-shell zutabearekin lortu dela kromatografia-banaketarik onena gailurren bereizmenari, gailurren simetriari eta sentikortasunari dagokionez. FUSLE erauzketan, emaitza optimoak denbora laburreko (30 s) erauzketa bakarrean lortu dira azetonitrilo:Milli-Q ur (95:5, v/v) nahastearen 7 mL erabilita. Lagin solidoen garbiketarako eta ur-laginen aurrekontzentraziorako, katioi-trukatzaile sendoa erabilita burututako modu mistoko SPE prozedurarekin erauzi garbiak lortu dira, matrize-efektu arbuiagarriarekin eta etekin egokiekin, trazagarriekin zuzendu ondoren. Bukatzeko, Bizkaiko kostaldeko ur-lagin desberdinetan zein biotan TCA-k behatu izanak argi erakusten du inguru horretan kutsatzaileen segimendua egiten jarraitzeko beharrizana dagoela.

3.5 Erreferentziak

1. Kümmerer K. 2009. The presence of pharmaceuticals in the environment due to human use – present knowledge and future challenges. *J. Environ. Manage.* 90:2354–2366.
2. Halling-Sørensen B, Nors Nielsen S, Lanzky PF, Ingerslev F, Holten Lützhøft HC, Jørgensen SE. 1998. Occurrence, fate and effects of pharmaceutical substances in the environment- A review. *Chemosphere*. 36:357–393.
3. Calisto V, Esteves VI. 2009. Psychiatric pharmaceuticals in the environment. *Chemosphere*. 77:1257–1274.
4. Baker DR, Kasprzyk-Hordern B. 2011. Multi-residue determination of the sorption of illicit drugs and pharmaceuticals to wastewater suspended particulate matter using pressurised liquid extraction, solid phase extraction and liquid chromatography coupled with tandem

mass spectrometry. *J. Chromatogr. A*. 1218:7901–7913.

5. Baker DR, Kasprzyk-Hordern B. 2011. Multi-residue analysis of drugs of abuse in wastewater and surface water by solid-phase extraction and liquid chromatography–positive electrospray ionisation tandem mass spectrometry. *J. Chromatogr. A*. 1218:1620–1631.

6. Togola A, Budzinski H. 2008. Multi-residue analysis of pharmaceutical compounds in aqueous samples. *J. Chromatogr. A*. 1177:150–158.

7. Klosterhaus SL, Grace R, Hamilton MC, Yee D. 2013. Method validation and reconnaissance of pharmaceuticals, personal care products, and alkylphenols in surface waters, sediments, and mussels in an urban estuary. *Environ. Int.* 54:92–99.

8. Lajeunesse A, Gagnon C, Sauvé S. 2008. Determination of Basic Antidepressants and Their N-Desmethyl Metabolites in Raw Sewage and Wastewater Using Solid-Phase Extraction and Liquid Chromatography−Tandem Mass Spectrometry. *Anal. Chem.* 80:5325–5333.

9. Lajeunesse A, Smyth SA, Barclay K, Sauvé S, Gagnon C. 2012. Distribution of antidepressant residues in wastewater and biosolids following different treatment processes by municipal wastewater treatment plants in Canada. *Water Res.* 46:5600–5612.

10. Sheng L-H, Chen H-R, Huo Y-B, Wang J, Zhang Y, Yang M, Zhang H-X. 2014. Simultaneous determination of 24 antidepressant drugs and their metabolites in wastewater by ultra-high performance liquid chromatography-tandem mass spectrometry. *Molecules*. 19:1212–1222.

11. Yuan S, Jiang X, Xia X, Zhang H, Zheng S. 2013. Detection, occurrence and fate of 22 psychiatric pharmaceuticals in psychiatric hospital and municipal wastewater treatment plants in Beijing, China. *Chemosphere*. 90:2520–2525.

12. Peysson W, Vulliet E. 2013. Determination of 136 pharmaceuticals and hormones in sewage sludge using quick, easy, cheap, effective, rugged and safe extraction followed by analysis with liquid chromatography–time-of-flight-mass spectrometry. *J. Chromatogr. A*. 1290:46–61.

13. Alves C, Fernandes C, Neto AJ dos S, Rodrigues JC, Queiroz MEC, Lanças FM. 2006. Optimization of the SPME Parameters and Its Online Coupling with HPLC for the Analysis of Tricyclic Antidepressants in Plasma Samples. *J. Chromatogr. Sci.* 44:340–346.

14. Minguez L, Farcy E, Ballandonne C, Lepailleur A, Serpentini A, Lebel J-M, Bureau R, Halm-Lemeille M-P. 2014. Acute toxicity of 8 antidepressants: What are their modes of action? *Chemosphere*. 108:314–319.

15. Yang M, Qiu W, Chen J, Zhan J, Pan C, Lei X, Wu M. 2014. Growth inhibition and coordinated physiological regulation of zebrafish (Danio rerio) embryos upon sublethal exposure to antidepressant amitriptyline. *Aquat. Toxicol.* 151:68–76.

16. Lajeunesse A, Gagnon C, Gagné F, Louis S, Čejka P, Sauvé S. 2011. Distribution of

antidepressants and their metabolites in brook trout exposed to municipal wastewaters before and after ozone treatment – Evidence of biological effects. *Chemosphere*. 83:564–571.

17. OECD Guideline 315. 2008. Test No. 315: Bioaccumulation in Sediment-dwelling Benthic Oligochaetes. [cited 28 June 2018]. Available from https://www.oecd-ilibrary.org/environment/test-no-315-bioaccumulation-in-sediment-dwelling-benthic-oligochaetes_9789264067516-en.

18. Huerta B, Rodríguez-Mozaz S, Barceló D. 2012. Pharmaceuticals in biota in the aquatic environment: analytical methods and environmental implications. *Anal. Bioanal. Chem.* 404:2611–2624.

19. Xu R, Lee HK. 2014. Application of electro-enhanced solid phase microextraction combined with gas chromatography–mass spectrometry for the determination of tricyclic antidepressants in environmental water samples. *J. Chromatogr. A*. 1350:15–22.

20. Valcárcel Y, González Alonso S, Rodríguez-Gil JL, Gil A, Catalá M. 2011. Detection of pharmaceutically active compounds in the rivers and tap water of the Madrid Region (Spain) and potential ecotoxicological risk. *Chemosphere*. 84:1336–1348.

21. Kot-Wasik A, Dębska J, Namieśnik J. 2007. Analytical techniques in studies of the environmental fate of pharmaceuticals and personal-care products. *TrAC Trends Anal. Chem.* 26:557–568.

22. Aznar R, Sánchez-Brunete C, Albero B, Rodríguez JA, Tadeo JL. 2013. Occurrence and analysis of selected pharmaceutical compounds in soil from Spanish agricultural fields. *Environ. Sci. Pollut. Res.* 21:4772–4782.

23. Cerqueira MBR, Caldas SS, Primel EG. 2014. New sorbent in the dispersive solid phase extraction step of quick, easy, cheap, effective, rugged, and safe for the extraction of organic contaminants in drinking water treatment sludge. *J. Chromatogr. A*. 1336:10–22.

24. Zabaleta I, Bizkarguenaga E, Iparragirre A, Navarro P, Prieto A, Fernández LÁ, Zuloaga O. 2014. Focused ultrasound solid–liquid extraction for the determination of perfluorinated compounds in fish, vegetables and amended soil. *J. Chromatogr. A*. 1331:27–37.

25. Sanz-Landaluze J, Bartolome L, Zuloaga O, González L, Dietz C, Cámara C. 2006. Accelerated extraction for determination of polycyclic aromatic hydrocarbons in marine biota. *Anal. Bioanal. Chem.* 384:1331–1340.

26. https://www.chemicalize.org/. 2018. chemicalize_.

27. Commission Decision, 2002/657/EC, SANCO/10684/2009 Guideline. 2009. Commission Decision, 2002/657/EC; SANCO/10684/2009 Guideline.:1–55.

28. López-Alonso JP, Bruix M, Font J, Ribó M, Vilanova M, Jiménez MA, Santoro J, González C,

Laurents DV. 2010. NMR Spectroscopy Reveals that RNase A is Chiefly Denatured in 40% Acetic Acid: Implications for Oligomer Formation by 3D Domain Swapping. *J. Am. Chem. Soc.* 132:1621–1630.

29. Griebenow K, Klibanov AM. 1996. On Protein Denaturation in Aqueous−Organic Mixtures but Not in Pure Organic Solvents. *J. Am. Chem. Soc.* 118:11695–11700.

30. Villaverde-de-Sáa E, Valls-Cantenys C, Quintana JB, Rodil R, Cela R. 2013. Matrix solid-phase dispersion combined with gas chromatography–mass spectrometry for the determination of fifteen halogenated flame retardants in mollusks. *J. Chromatogr. A*. 1300:85–94.

31. Ziarrusta H, Olivares M, Delgado A, Posada-Ureta O, Zuloaga O, Etxebarria N. 2015. Multiscreening determination of organic pollutants in molluscs using matrix solid phase dispersion. *J. Chromatogr. A*. 1391:18–30.

32. http://www.epa.gov/waterscience/methods/det/rad.pdf. 2018. US EPA_water.._.

33. Villaverde-de-Sáa E, Fernández-López M, Rodil R, Quintana JB, Racamonde I, Cela R. 2015. Solid-phase extraction of perfluoroalkylated compounds from sea water. *J. Sep. Sci.* 38:1942–1950.

34. Coquery M, Morin A, Bécue A, Lepot B. 2005. Priority substances of the European Water Framework Directive: analytical challenges in monitoring water quality. *TrAC Trends Anal. Chem.* 24:117–127.

35. Ademollo N, Patrolecco L, Polesello S, Valsecchi S, Wollgast J, Mariani G, Hanke G. 2012. The analytical problem of measuring total concentrations of organic pollutants in whole water. *TrAC Trends Anal. Chem.* 36:71–81.

36. Vignati DAL, Valsecchi S, Polesello S, Patrolecco L, Dominik J. 2009. Pollutant partitioning for monitoring surface waters. *TrAC Trends Anal. Chem.* 28:159–169.

37. Water Framework Directive. 2013. *Directive 2013/39/EU*.

38. Sturini M, Speltini A, Pretali L, Fasani E, Profumo A. 2009. Solid-phase extraction and HPLC determination of fluoroquinolones in surface waters. *J. Sep. Sci.* 32:3020–3028.

4. Kapitulua

Amitriptilinaren biokontzentrazioa eta biotransformazioa urraburu arrainetan

Environmental Science & Technology

51 (2017) 2464-2471

4.1 Sarrera

Depresioa eta gaixotasun psikiatrikoak tratatzeko gehien errezetatzen diren farmakoen artean aurki dezakegu amitriptilina [1]. Beste antidepresibo triziklikoen (*tricyclic antidepressant*, TCA, delakoen) antzera, amitriptilinaren ekintza-modua nerbio-sistema zentraleko norepinefrinaren edota serotoninaren xurgapen selektiboaren inhibizioan oinarritzen da eta, ondorioz, burmuineko neurotransmisoreen kontzentrazioak igo egiten dira [2,3]. Amitriptilina ur-hondakinetara giza iraizketaren ondorioz heltzen da nagusiki. [4]. Hondakin-uren tratamenduan zehar nahikotxo ezabatzen den arren [5], amitriptilina 72 ng/L kontzentrazio-mailaraino detektatu da azaleko uretan, eta 223 ng/L kontzentrazio-mailaraino araztegien irteerako uretan [3,5–8].

Amitriptilinaren jokabidea ugaztunetan nahiko aztertuta dago, giza farmakoen segurtasun-ebaluazioko urratsa delako [9–11]. Hala ere, informazio gutxi dago ingurumenean nahi gabe esposizioa paira dezaketen organismo ez-zuzenduen inguruan. Adibidez, espezie urtarretan, amitriptilinak 10 ng/L bezalako kontzentrazio baxuetan sistema immunologikoa asalda dezake eta ugalketetan, garapenean eta hazkundean eragina izan dezake [12–14]. Amitriptilinak biotan metatzeko gaitasuna du [15] (log K_{ow} = 4,81, pK_a = 9,8 [16]), eta korrokoien (*Chelon labrosus-en*) gibelean [8] zein muskuiluetan [17] behatu izan da 8 ng/g eta 0,2 ng/g mailan, hurrenez hurren. Nahiz eta oraindik ez den azterketa sistematikorik egin amitriptilinaren biometatzea eta ehunen arteko banaketa espezie urtarretan ebaluatzeko, amuarrainak (*Salvelinus fontinalis*) amitriptilinarekin (3,7 ng/L mailan) kutsatutako uretan egon ondoren, amitriptilina gibelean detektatu zuten (0,29 ng/g), baina muskuluan eta burmuinean ez [18]. Dena den, beste espezie batzuekin burututako lanetan joera desberdinak behatu dira, eta burmuinerako banaketa gibelerakoa baino handiagoa izan da [9,10].

Ugaztunekin egindako ikerketek amitriptilina, zitokromo P450 2D6 (CYP2D6) entzimen bidez, biologikoki aktiboak izan daitezkeen metabolito desberdinetara zeharo biotransformatzen dela adierazi dute [2]. Giza gibeleko mikrosomekin burututako *in vitro* inkubazioetan amitriptilinaren 50 azpiproduktu behatu diren bitartean [19,20], beste 12 glukuronido-konjugatu gehiago aurkitu dira giza gernuan [20]. Horrez gain, espezieen arteko aldakortasun handia dago amitriptilinaren metabolizazioan [2,21,22] eta, guk dakigula, ez dago daturik eskuragarri organismo

urtarretako amitriptilinaren biotransformazioaren inguruan. Horregatik, soilik amitriptilinan edo ugaztunen metabolito mugatuetan arreta jartzen duten ingurumeneko esposizio-ebaluazioek ur-faunako esposizioaren benetako neurria gutxietsi dezakete.

Testuinguru honetan, amitriptilinaren ur-ingurumeneko agerraldiarekin lotutako arriskuen ebaluazioan laguntzeko asmoz, lan honen helburua arrainetan kutsatzaile horren biometatzea, ehunen arteko banaketa eta biotransformazioa ikertzea da. Helburu hori lortzeko, urraburu arrainak (*Sparus aurata*) 7 egunez amitriptilinaren bi kontzentraziotara (0,2 µg/L and 10 µg/L) kutsatu dira itsasoko uretan. Ehun bakoitzeko biokontzentrazio-faktore espezifikoak kalkulatzeaz gain, amitriptilinaren metabolitoak karakterizatu dira susmagarrien analisirako estrategia erabilita bereizmen altuko masa-espektrometriaren (*high resolution MS*, HRMS, delakoaren) bidez. Gure ezagutzaren arabera, hau da arrainetan amitriptilinaren metatzea eta biotransformazioa sakontasunez ikertzen den lehen aldia. Datu horiek oso lagungarriak dira organismo urtarretan amitriptilinaren eta bere metabolito bioaktiboen esposizioa ebaluatzeko.

4.2 Materiala eta metodoak

4.2.1 Estandarrak eta erreaktiboak

Amitriptilina hidrokloruroa (% 98), nortriptilina hidrokloruroa (% 98), eta trazagarri gisa erabiltzeko isotopikoki markatutako $^{2}H_{3}$-amitriptilina hidrokloruroa ($^{2}H_{3}$-AMI; erreferentziazko estandar zertifikatua) eta $^{2}H_{3}$-nortriptilina hidrokloruroa ($^{2}H_{3}$-NOR; erreferentziazko estandar zertifikatua) Sigma-Aldrich (St. Louis, MO, AEB) merkataritza-etxeari erosi zaizkio. Amitriptilina, nortriptilina, $^{2}H_{3}$-AMI eta $^{2}H_{3}$-NOR konposatuen disoluzioak metanoletan (Fisher Scientific, Loughborough, Erresuma Batua) prestatu dira gutxi gorabehera 5000 mg/L kontzentrazio-mailan eta metanolarekin diluitu dira kalibrazio-kurba eta dopaketarako disoluzioak prestatzeko. Bestalde, tankeak dosifikatzeko amitriptilinaren disoluzioak (5000 mg/L) etanoletan (% 99,9, Scharlab, Bartzelona, Espainia) prestatu eta Milli-Q urarekin diluitu dira 4,26 mg/L eta 85,2 µg/L mailetaraino dosi altuko eta baxuko esperimentuetarako, hurrenez hurren. Dosifikatze-disoluzioan etanolaren kontzentrazioa % 0,1 baino baxuagoa da. Disoluzio guztiak −20˚C-an gorde dira.

Metanola (HPLC kalitatea, % 99,9) eta azetona (HPLC kalitatea,% 99,8) LabScan (Dublin,

Irlanda) merkataritza-etxekoak dira, azetonitriloa (HPLC kalitatea, % 99,9) eta etil-3-aminobenzoato metanosulfonatoa (trikaina, ≥ % 98) Sigma-Aldrich (Steinheim, Alemania) merkataritza-etxekoak, sodio hidroxidoa (NaOH, ≥ 99%) Merck-ekoa (Darmstadt, Alemania), azido formikoa (HCOOH, ≥ % 98) Scharlau (Bartzelona, Espainia) merkataritza-etxekoa, eta amonio azetatoa (NH_4OAc, ≥ % 99), azido etilendiaminotetraazetikoa (EDTA, ≥ % 99) eta sodio hidrogenokarbonatoa ($NaHCO_3$, ≥ % 99,9) Panreac-ekoak (Bartzelona, Espainia). Ur ultra-purua (Milli-Q ura) purifikatzeko sistema (< 0.05 S/cm, Milli-Q 185 modeloa, Millipore, Bedford, MA, AEB) erabilita lortu da. Fase mugikor gisa metanola (Fisher Scientific, Loughborough, Erresuma Batua) erabili da azido formikoarekin (HCCOH, Optima, Fischer Scientific, Gell, Belgika) batera.

Likido-kromatografia – kuadrupolo hirukoitzeko tandem masa-espektrometrian (LC-QqQ-MS/MS analisian) talka-gas gisa eta Turbo Vap LV lurrungailua (Zymark, Hopkinton, MA, AEB) nitrogeno-korronterako erabilitako purutasun handiko nitrogeno gasa (> % 99,999) Messer (Tarragona, Espainia) merkataritza-etxekoa izan da, eta lehortze- eta lainoztatze-gas gisa erabilitako nitrogenoa (% 99,999) AIR Liquide-koa (Madril, Espainia).

4.2.2 Arrainen esposizioa

Plentziako itsas-estazioko (PiE-UPV/EHU) akuarioetan esposizio-esperimentuak egiteko ~40 g-ko eta ~13 cm-ko urraburu arrain (*Sparus Aurata*) gazteak Groupe Aqualande arrain-haztegitik (Roquefort, Frantzia) lortu dira. Arrainak heldutako egunetik bi astez eduki dira bertako girora egokitzeko eta, ondoren, esperimentuak hasi orduko, esperimentuko tankeetan ere beste 48 orduz egon dira ontzietara egokitzeko. Arrainen bizi-irautea ziurtatzeko laborategiko tenperatura 18 °C-an mantendu da, 14:10-h argitasun/iluntasun zikloak bermatu dira, ura etengabe aireztatu da eta egunero 0,10 g arrain-jaki/arrain eman zaie. Esperimentuek iraun duten bitartean, uraren tenperatura (13,5 ˚C) eta pH-a (7,3 ± 0,3) konstante mantendu dira. Bestalde, uraren kalitatea ziurtatzeko, disolbatutako oxigenoaren, nitritoen, nitratoen eta amonioaren kontrola egin da esposizioan zehar.

7 eguneko esposizio-esperimentuak bi kontzentrazio-mailatan egin dira. Lehenengoa, dosi altuan (10 µg/L nominala) amitriptilinaren metabolitoak eta biokontzentrazio-faktoreak determinatzeko helburuarekin. Horretarako, 800 × 600 × 412 mm-ko polipropilenozko bi ontzi

(bata kontrola eta bestea dosifikatua) erabili dira, bakoitza itsasoko uraren 100 L-rekin eta 35 urraburu arrainekin. Bigarren esperimentua, aldiz, dosi baxuagoan (0,20 µg/L nominala) egin da, metatzeaz gain, amitriptilinak ingurumenean aurkitzen den kontzentrazio horretan eragin ditzakeen albo-ondorioak ere aztertzeko. Hurrengo kapituluan (5. Kapituluan) eztabaidatzen diren albo-ondorio horiek aztertu ahal izateko, dosi baxuko esperimentuan arrain-kopuru handiagoa (145 arrain ontziko) behar izan da. Ondorioz, erabilitako tankeak ere handiagoak (1000 × 700 × 650 mm) izan dira, bakoitza itsasoko uraren 250 L-rekin (bata kontrola eta bestea dosifikatua).

Bi esposizio-esperimentuak fluxu jarraiko sistemaren bidez egin dira. Horretarako, ponpa peristaltikoak erabilita tanke guztietara itsasoko ura 8,5 L/h-ko fluxuan gehitu da eta kutsatutako tankeetara amitriptilinaren dosifikatze-disoluzioa 20 mL/h-ko fluxuan. Dosifikatze-disoluzio horiek 48 orduro berriztatu dira.

4.2.3 Lagin-biltzea

Arrainen lagin-biltzea eta disekzioa Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHUko) Bioetika-Batzordeak ebaluatu eta, egungo araudien arabera, tokiko agintaritzak onartutako prozedura (CEEA/380/2014/ETXEBARRIA LOIZATE) jarraituta egin dira. Kutsatutako zein kontroleko edukiontzitik 10 urraburu jaso dira esposizioa hasi eta bigarren, laugarren eta zazpigarren egunetan. Lagin-biltzeko egunetan, uretan amitriptilinaren kontzentrazioa determinatzeko, 2,5 L itsasoko ur ere bildu dira esposizioko ontzi bakoitzetik. Arrainak berehala anestesiatu dira 200 mg/L trikaina eta 200 mg/L $NaHCO_3$ itsasoko uretan (10 L) disolbatuta dituen ontzian. 5 minutu igaro ondoren, arrainak pisatu, neurtu eta disekzionatu dira jariakin biologikoak (plasma eta behazuna) eta ehunak (gibela, burmuina, zakatzak eta muskulua) biltzeko. Aurretiaz 0,5 mol/L EDTA (NaOH-arekin pH-a 8-ra doituta) disoluzioarekin bustitako xiringa erabilita itsats-arteriatik odola atera da. Ondoren, plasma lortzeko, odola 5 minutuz zentrifugatu da 1000 bira/min-an. Bereizitako jariakin biologikoak eta ehunak disekzioan zehar nitrogeno likidotan mantendu eta, ondoren, -80°C-ko izozkailuan gorde dira aztertu arte.

4.2.4 Laginen tratamendua

Ehun biologikoak (gibela, burmuina, zakatzak eta muskulua) Cryodos-50 liofilizatzailean (Telstar Instrument, Sant Cugat del Valles, Bartzelona, Espainia) 48 orduz liofilizatu dira.

10 arrainen ehunak elkartuta lagin homogeneoa prestatu da esposizio-tanke (kontrola eta kutsatua) eta laginketa-egun (2, 4 eta 7 egunak) bakoitzerako. Lagin homogeno horren 3 alikuota erauzi eta aztertu dira.

Laginetan amitriptilinaren eta nortriptilinaren kontzentrazioak determinatzeko aurretiaz garatutako metodo analitikoak erabili dira [8]. Laburki, liofilizatutako gibela (0,5 g), muskulua (0,5 g), zakatzak (0,1 g) edo burmuina (0,1 g) isotopikoki markatutako barne-estandarrekin dopatu eta azetonitrilo:Milli-Q ur (95:5, bol/bol) nahastearen 7 mL-rekin erauzi dira. Ultrasoinu-homogeneizatzailea (100 W, 20 kHz; Bandelin Sonopuls HD 3100 sonikatzailea, Bandelin electronic, Berlin, Alemania) erabilita ultrasoinu fokatuen bidezko solido-likido erauzketa (*focused ultrasound solid-liquid extraction*, FUSLE, delakoa) 30 s-tan burutu da (0,8 s-ko pultsu-denborarekin eta 0,2 s-ko pultsu-geldialdiekin), % 10-eko potentziarekin eta 0 °C-an ur-izotz bainuan. Erauziaren gaineko likidoa 0,45 μm-ko poliamida iragazkien (25 mm, Macherey-Nagel, Alemania) bidez iragazi, nitrogeno-korrontearekin ~1 mL-ra lurrundu eta 6 mL Milli-Q ur gehituta diluitu da, ondoren, fase solidoko erauzketaren (*solid phase extraction*, SPE, delakoaren) bidez garbitzeko. Bestalde, plasma, behazuna (100 μL eta 250 μL, hurrenez hurren, 6 mL Milli-Q uretan diluituta) eta itsasoko ura (500 mL) barne-estandarrekin dopatu dira SPE-aren bidezko garbiketa/aurrekontzentrazioa burutu aurretik.

Lagina kargatu aurretik, modu mistoko 200 mg-ko Evolute-CX kartutxoak (6 mL, Biotage, Uppsala, Suedia) 5 mL metanol, 5 mL Milli-Q ur eta 5 mL % 2 HCOOH duen Milli-Q ur (pH=2) pasatuta egokitu dira. Erauzia/lagina kargatu ondoren, garbiketarako 5 mL Milli-Q ur eta 5 mL metanol gehitu eta kartutxoak 30 min-z lehortu dira hutsa eginda. Jarraian, eluzio-urratsean, bi frakzio bildu dira: 5 mL metanola pasatuta (1. frakzioa) eta 3 mL % 2,5 NH_4OH duen azetona pasatuta (2. frakzioa). Bi frakzioak nitrogeno-korrontearen laguntzarekin 35 °C-an lehorrera eraman, metanol:Milli-Q ur (90:10, bol/bol) nahastearen 200 μL-an bereizita berriz disolbatu eta 0,22 μm-ko polipropilenozko iragazkietatik (13 mm, Pall Corp., NY, AEB) iragazi dira analisira orduko.

4.2.5 Analisi instrumentala

Amitriptilina eta bere nortriptilina metabolitoa 2. frakzioan kuantifikatu dira LC-QqQ-MS/MS

teknikaren bidez aurretiaz garatutako metodoa erabilita [8]. Horretarako, Agilent 1260 serieko HPLC kromatografoa (Agilent Technologies, Palo Alto, CA, AEB) erabili da, Phenomenex (Torrance, CA, AEB) merkataritza-etxeko Kinetex bifenilo 100Å core-shell (2,1 mm x 50 mm, 2,6 μm) zutabea eta Kinetex bifenilo 100Å core-shell aurrezutabearekin (2,1 mm x 5 mm, 2,6 μm). Fase mugikorrari dagokionez, A fasea Milli-Q ur:metanol (95:5, bol/bol) nahasteaz osatuta dago eta B fase metanol:Milli-Q ur (95:5, bol/bol) nahasteaz, bietan HCOOH % 0,1 gehituta. Banaketa-gradientea A fase mugikorraren % 45-ean hasi eta % 10-era jaitsi da 3 minututan konposizio horretan 6 minutuz mantenduta; ondoren, 3 minututan hasierako baldintzetara (A fase mugikorraren % 45-era) bueltatu eta bertan 8 minutuz mantendu da hasierako baldintzak berriz lortzen direla ziurtatzeko. Analitoen banaketa 0,3 mL/min fluxuan burutu eta injekzio-bolumena 2 μL-an ezarri da. Kromatografoa Agilent 6430 kuadrupolo hirukoitzeko (QqQ) masa-espektrometroari akoplatuta dago elektroesprai-ionizazioko (*electrospray ionization*, ESI, delako) iturriarekin. Kuantifikaziorako aukeratutako ioi aitzindarietatik apurketa-ioietarako trantsizioen jarraipena egiten duen eskuratze-modua (*Selected Reaction Monitoring,* SRM, delakoa) erabili eta ionizazioa modu positiboan egin da, 3000 V-ko tentsio kapilarrarekin, lehortze-gasaren 12 L/min-ko fluxuarekin eta 350 °C-an, eta lainoztatze-gasaren 45 psi-ko presioarekin. Amitriptilina kuantifikatzeko *m/z* 278,2/191,1 ioi aitzindaritik apurketa-ioirako ioi-trantsizioa erabili da eta konfirmatzeko ioi-trantsizio gisa *m/z* 278,2/117,1 eta *m/z* 278,2/91,1. Nortriptilina kuantifikatzeko, berriz, *m/z* 264,2/233,1 ioi-trantsizioa erabili da eta konfirmatzeko *m/z* 264,2/105,1 eta *m/z* 264,2/91,1 ioi-trantsizioak. Neurketak, datuen eskuratzea eta gailurren integrazioa Masshunter Workstation software-arekin (Qualitative Analysis, B.06.00 bertsioa, Agilent Technologies) egin dira.

Amitriptilinaren metabolitoen identifikazioa, aldiz, 1. eta 2. frakzioetan burutu da. Horretarako, bereizmen altuko qOrbitrap masa-espektrometroa (Thermo Scientific ™ Q Exactive ™ HF kuadrupolo-Orbitrap hibridoa, Thermo, CA, USA) erabili da, merkataritza-etxe berdineko berotutako elektroesprai-ionizazio (*heated electrospray ionization*, HESI, delako) iturriaren bidez bereizmen altuko likido-kromatografoari (Thermo Scientific Dionex UltiMate 3000 UHPLC) akoplatuta. Erauziak Thermo merkataritza-etxeko Hypersil GOLD aQ (2,1 mm x 100 mm, 1,9 μm) zutabean banatu dira, aurrezutabea (2,1 mm-ko barne-diametroa, 0,2 μm) erabilita. Fase mugikorrari dagokionez, Milli-Q ura (A fasea) eta azetonitriloa (B fasea) erabili dira, bietan HCOOH

% 0,1 gehituta. Banaketa-gradientea B fase mugikorraren % 10-ean hasi eta % 50-era igo da 9 minututan; ondoren, beste 3 minututan % 95 konposiziora igo da. Baldintza horietan 1,5 min mantendu ondoren, hasierako baldintzetara bueltatu da 1,5 min-tan. Analitoen banaketa 0,4 mL/min fluxuan burutu da 35 °C-ko zutabe-tenperaturan. Injekzio-bolumena 5 μL-an ezarri eta lagingailu automatikoa 5 °C-an mantendu da.

Orbitrap masa-analizatzailean erabilitako eskuratze-modua ekorketa osoa - datuen menpeko MS/MS (*full scan – data dependant MS2*, Full MS-ddMS2, delakoa) izan da. Ekorketa osoa *m/z* 100-600 tartean egin da 120.000 bereizmenarekin *m/z* 200-eko masari dagokion maximoaren erdiko zabalera osoan (*full width at half maximum,* FWHM, delakoan). Ekorketa oso bakoitzaren jarraian 5 ddMS2 neurketekin burutu dira 15.000 FWHM bereizmenarekin (*m/z* 200-ean), eta isolatze-leihoa 0,4 Da-ean ezarrita. Energia altuko talka-disoziazioko gelaxkan talka-energia normalizatua (*normalized collision energy*, NCE, delakoa) 35 eV-an ezarri da. MS/MS apurketa zein ioiek pairatuko duten zehazteko barne-zerrenda bat eratu da. Zerrenda horretan aurretiaz bibliografian deskribatutako amitriptilinaren metabolitoen ioiak [19] sartzeaz gain, 12 laginen (matrize bakoitzeko kontrol baten eta kutsatu baten) aurreanalisitik lortutako emaitzetako ioiak ere gehitu dira. Aurreanalisi horiek ekorketa osoa - ioi guztien apurketa (*full scan – all ion fragmentation*, Full MS-AIF, delako) eskuratze-moduan egin dira, ekorketa osoa 120.000 bereizmenarekin, eta ioi guztien apurketa 60.000 bereizmenarekin eta 35 eV-ko NCE-arekin. Hain zuzen, *m/z* 108 eta *m/z* 90 ioiez osatutako barne-zerrendak eratu dira, modu positiboan eta negatiboan, hurrenez hurren. Dena dela, ekorketa osoan ez bada barne-zerrenda horietako ioirik detektatu, ugaritasun handieneko ioiak aukeratu dira apurketarako. ddMS2 neurketan $2{,}7 \times 10^4$-ko intentsitate-muga eta 5 s-ko baztertze-denbora dinamikoa finkatu dira. Kontuan izanda bereizmen altuko ekorketa oso bakoitzeko (256 ms) 32 ms-ko bost ddMS2 neurketa egin direla, ziklo bakoitza ~ 0,4 s-koa dela ondoriozta daiteke. HESI iturriko parametroak ondoko balioetan ezarri dira: esprai-tentsioa 4,5 kV-an, kapilarraren tenperatura 350 °C-an, zorro-gasa 45 unitate arbitrariotan, gas-laguntzailea 5 unitate arbitrariotan eta gas-laguntzailearen berogailua 300 °C-an. Instrumentua Xcalibur 3.1 (Thermo) software-aren bidez kontrolatu eta, analisiaren aurretik, instrumentuaren kanpo-kalibrazioa burutu da Pierce LTQ ESI kalibrazio-disoluzioak (Thermo Scientific, Waltham, Massachusetts, Estatu Batuak) erabilita.

4.2.6 Datuen tratamendua

Arrainaren osasunaren ebaluazio orokor gisa, egoera-faktorea K = (arrainaren pisua × 100)/arrainaren luzera^3) eta indize hepatosomatikoa (HSI = (gibelaren pisua × 100)/ arrainaren pisua) determinatu dira. Kutsatutako eta kontroleko taldeen artean K eta HSI estatistikoki erkatzeko, aldagai bakarreko (*analysis of variance*, ANOVA, delakoa) erabili da. Bestalde, dosifikazio-maila bakoitzerako biometatze-faktoreak (*bioconcentration factor*, BCF, delakoak) kalkulatu dira [23]. Horretarako, esposizio-egun bakoitzean arrainaren ehunean dagoen amitriptilinaren kontzentrazioa dagokion esposizio-eguneko uretako batezbesteko kontzentrazioarekin zatitzen da.

Amitriptilina eta nortriptilina 10 puntuko kalibrazio-zuzenarekin kuantifikatu dira Agilent Masshunter software-a erabilita. Metabolitoen identifikazioa, aldiz, Compound Discoverer 2.0 (Thermo) erabilita egin da. Gailurren detekzioa eta lerrokatzea 5 ppm-ko masa-tolerantziarekin eta 0,5 min-ko erretentzio-denboren desbideratzearekin burutu da. Programak amitriptilinaren metabolitoak aurresaten ditu 1.go eta 2. Faseko erreakzioak (ikus I. eranskina) erabilita. Ondoren, aurresandako metabolito horien *m/z* balioak gailurren zerrendan bilatzen dira 5 ppm-ko masa-tolerantziarekin eta isotopo-bilaketarako % 40ko intentsitate-tolerantziarekin. Gailurrak eskuz txekeatu dira eta soilik MS/MS espektroa eskuragarri eta 100.000 baino seinale handiagoa duten, eta kontroleko laginetan aurkitzen ez diren gailurrak hartu dira kontuan aurrerantzean. Lan honetan, soilik modu positiboan detektatutako gailurrak hartu dira aintzat, modu negatiboko gailurrek ez dutelako amitriptilinarekiko antzekotasunik erakutsi egiturari dagokionez. Egituren esleipena software-ak markatutako ddMS2 apurketa-ioietan oinarrituta egin da.

4.3 Emaitzak eta eztabaida

4.3.1 Metodoen kalitate kontrola

Amitriptilina eta nortriptilina urraburu arrainen ehun eta jariakin biologikoetan aztertzeko erabilitako metodoen berrespena egin da inolako analisirik egin aurretik. Konposatu horiek ingurumeneko uretan zein arrainen muskuluan eta gibelean determinatzeko metodoa aurreko lan batean zehaztu eta berretsi da [8]. Aurretiaz optimizatutako metodoa, beste zenbait matrizetara

hedatu eta berretsi da, hala nola zakatzetara, burmuinera, plasmara eta behazunera. Metodo analitikoa berresteko analitorik ez duten matrize errealak (muskulua, gibela, zakatzak, plasma, behazuna eta burmuina) amitriptilinarekin eta nortriptilinarekin dopatu dira: muskulu eta gibela 10 ng/g-an, burmuina eta zakatzak 50 ng/g-an, plasma 20 ng/mL-an eta, azkenik, behazuna 50 ng/mL-an. Trazagarri modura, erauzketaren aurretik $^{2}H_3$-AMI eta $^{2}H_3$-NOR deuteratuak gehitu dira kontzentrazio berdinetan. 4.1 taulan ikus daitekenez, metodoen kalitate-kontrola bermatu da, emaitza zehatzak eta doiak lortu baitira.

***4.1 taula**: Amitriptilina eta nortriptilina ehun/jariakin biologikoetan kuantifikatzeko erabilitako metodoen etekin gordinak, etekin zuzenduak eta desbiderazio estandar erlatiboak (relative standard deviation, RSD, delakoak).*

Matrizea	Amitriptilina			Nortriptilina		
	Etekin gordina (%)	Etekin zuzendua[a] (%)	RSD (%) (n=3)	Etekin gordina (%)	Etekin zuzendua[b] (%)	RSD (%) (n=3)
Muskulua	44	107	2	39	102	3
Gibela	63	106	1	47	102	2
Zakatzak	30	110	4	18	131	7
Burmuina	72	107	1	58	104	2
Plasma	51	107	2	46	104	2
Behazuna	61	101	2	48	105	2

(a) $^{2}H_3$-AMI trazagarriarekin zuzendua; (b) $^{2}H_3$-NOR trazagarriarekin zuzendua.

4.3.2 Esposizio-esperimentuak eta amitriptilinaren metatzea arrainetan

Kutsatutako tankeetako amitriptilinaren denboran zeharreko batezbesteko kontzentrazioak 12 ± 3 µg/L eta 0,12 ± 0,02 µg/L izan dira dosi altukoan eta baxukoan, hurrenez hurren. Kontroleko ontzietan, berriz, amitriptilinaren eta bere metabolitoa den nortriptilinaren kontzentrazioak metodoaren detekzio-mugen (< 1 ng/L) azpitik egon dira. Salbuespen bakarra dosi altuko kontroleko arrainen plasma izan da, zeinak nortriptilina 7,7 ng/mL-ko mailan (kutsatutako arrainetako kontzentrazioa baino % 30 baxuagoa) duen. Analisian eta zurietan ez denez zeharkako kutsadurarik egon, kasu horretako nortriptilinaren jatorria disekzio-, liofilizazio-, laginen elkartze- edo erauzketa-urratsetako zeharkako kutsaduran egon liteke.

Bizi-irauteari dagokionez, ez da arrainik hil esposizioek iraun duten tarte osoan, eta arrainen osasun orokorraren adierazgarri diren K eta HSI aldagai fisiologikoen balioak estatistikoki bereizi ezinak izan dira (p-balioa > 0,05) kontroleko eta kutsatutako arrainen artean dosi altuko zein baxuko esperimentuan aztertutako egun guztietan.

4.1(a-b) irudian beha daitekeen moduan, amitriptilinaren ehunen arteko banaketa antzekoa izan da bi dosietako esperimentuen artean. Nortriptilinari dagokionez, dosi altuko esperimentuan amitriptilinaren antzeko ehunen arteko banaketa erakutsi du (ikus 4.1c irudia), baina dosi baxuko esperimentuan metodoen detekzio-mugetatik behera egon da. Bi dosietan, amitriptilinaren kontzentrazio altuenak, esposizioko 7. egunean aurkitu dira. Batez ere burmuinean eta zakatzetan metatu da amitriptilina, ondoren gibelean, plasman, behazunean eta, azkenik, maila baxuagoan muskuluan. Amitriptilinaren hidrofobikotasuna kontuan hartuta (log K_{ow} =4,81 [16]), lipidotan aberatsak diren ehunetan metatze altuagoa espero zitekeen arren, lipidikoak ez diren zakatzetan ere aurkitu dira kontzentrazio altuenetarikoak. Hortaz, ondoriozta daiteke amitriptilinaren metatzean bere propietate fisiko-kimikoez gain, metabolismoa bezalako bestelako faktoreek ere garrantzia dutela. Amitriptilina droga psikoaktiboa dela kontuan hartuta, burmuinean behatutako kontzentrazioak logikoak dirudite. Gainera, emaitza horrek Lajeunesse-k eta lankideek lortutakoekin bat egin ez arren [18], bibliografian depresioaren kontrako beste hainbat farmakorekin egindako esperimentuetan lan honetan lortu diren antzeko emaitzak aurkitu dira, hau da, drogaren metatzea burmuinean gertatu den bitartean, metabolizazioa gibelean nagusitu da [24–27]. Bestalde, amitriptilinaren burmuineko kontzentrazioak plasmakoak baino 2,7 aldiz altuagoak izateak, hau da, burmuin-plasma banaketa koefizientea 2,7 izateak, amitriptilina arrain-burmuinera barreiatzen dela adierazten du. Bibliografian eragile psikotropiko batzuentzako 3,0 baino burmuin-plasma banaketa-koefiziente altuagoak argitaratu diren bitartean, neuroaktiboak ez diren konposatuentzako balio baxuagoak (0,4 - 1,8) behatu dira [27]. Izatez, amitriptilinaren hidrofobikotasun nabarmenak iradokitzen du amitriptilinak muga hematoentzefalikoa zeharkatzeko mekanismo nagusia difusio pasiboa dela.

Horrez gain, kontuan hartuta amitriptilinaren plasmako kontzentrazioak zakatzetakoak baino altuagoak izan direla eta bi kontzentrazioen artean korrelazio positibo altua behatu dela ($r > 0,98$), amitriptilinaren absortzioa nagusiki zakatzetatik eman dela ondoriozta daiteke eta ez hesteetatik [28]. Bibliografian, zenbait farmakorekin kutsatutako hondakin-uretan egondako arrainetan antzeko emaitzak argitaratu dira metatzearen inguruan [27]. Nahiz eta konposatu ionizagarrien metatzeak eta ehunen arteko banaketak pH-arekiko menpekotasun handia izan ohi duen [29–32], amitriptilina hidrofobikotasun nahiko handiko (log K_{ow} =4,81, log D 2,39 pH 7,3-an [16]) base ahula (pK_a 9.8) da eta, ondorioz, pH fisiologikoan beti positiboki kargatuta dago.



4.1 irudia: *Amitriptilinaren (AMI-ren) 10 µg/L-ra (a) eta 0.2 µg/L-ra (b) kutsatutako arrainen ehun (ng/g) eta jariakin (ng/mL) biologiko desberdinetan detektatutako amitriptilinaren kontzentrazioak eta konfiantza-tarteak (bi aldiz desbideratze estandarra, n=3, % 95 konfiantza-mailan). Nortiptilinaren (NOR-en) kontzentrazioak (c) amitriptilinaren 10 µg/L-ra kutsatutako arrainetan.*



4.2 irudia: *Esposizio-esperimentuko egun desberdinetan burmuineko (a), zakatzetako (b) gibeleko (c) eta muskuluko (d) BCF balioak eta konfiantza-tarteak (bi aldiz desbideratze estandarra, n=3, % 95 konfiantza-mailan). Oharra: kasu batzuetan egoera egonkorrera iritsi ez arren, BCF-ak arrainaren ehuneko eta uretako amitriptilinaren kontzentrazioaren arteko zatiketatik kalkulatu dira. Izartxoek dagokion eguneko dosi altuko eta dosi baxuko esperimentuetako BCF balioen artean desberdintasun esanguratsuak daudela adierazten dute aldagai bakarreko ANOVA-ren arabera (p-balioa < 0,05).*

4.2 irudian beha daitekeenez, oro har, ehunetako BCF-ak denboran zehar konstanteak dira (p balioa> 0,05), eta horrek aditzera ematen du 7 egunetan egoera egonkorrera heltzen dela dosi-maila bietan. Salbuespen bakarra dosi baxuko zakatzen kasua da. Dosi baxuko burmuineko, zakatzetako eta gibeleko BCF-ak altuagoak direnez, amitriptilinaren arrainetako metatzeak kontzentrazioarekiko menpekotasuna duela esan daiteke. Emaitza horrek ez du bat egiten farmakoen metatzean esposizio-kontzentrazioak duen eragina aztertu duten beste lan batzuekin [33], nahiz eta badauden kontzentrazioa eta BCF-en kontrako erlazioa deskribatzen duten ikerketak [34]. Kutsatzailearen kontzentrazio altuagoek oxigeno-espezie erreaktiboen igoera sortzean egon daiteke azken horren arrazoia eta, ondorioz, dosi altuagoetan amitriptilinaren biotransformazioa nabarmenagoa [35] eta amitriptilinaren (jatorrizko farmako metabolizatu gabearen) BCF-ak baxuagoak izatea. Muskuluko BCF-etan, aldiz, ez da berdina gertatu, baina horren arrazoia ehun

horretan behatutako kontzentrazio baxuak izan daitezke. Izan ere, kontzentrazio-maila baxuko esperimentuan, muskuluko amitriptilinaren kontzentrazioak detekzio-mugatik hurbil egon dira eta, ondorioz, aldakortasuna handiagoa izan da.

Bibliografian, adibide gutxi daude amitriptilinaren ehunetako BCF espezifikoak determinatzen dituztenak [18], eta eskuragarri dauden datuek iradokitzen dute amitriptilinaren BCF-ak espezieen arteko desberdintasunen eta esposizio-baldintzen menpekoak direla. Adibidez, lan honetan kalkulatutako gibeleko BCF-en balioak (21 dosi altuan eta 48 dosi baxuan) bestelako lan batean lortutako amuarrain-gibeleko BCF balioaren (BCF=78) magnitude-ordena berdinean daude [18]. Aldiz, amitriptilinarekin kutsatutako araztegiko irteerako ura jasotzen duen ibaiko muskuiluetan determinatu diren BCF balioak askoz altuagoak (BCF= 6028) behatu dira [36]. Horrez gain, azpimarratzekoa da 4.2 irudiko BCF-ek metabolizatu gabeko amitriptilina soilik hartzen dutela kontuan. Ondorioz, BCF-ek konposatu psikoaktiboek ehun jakin baten duten zama osoa gutxietsi dezakete, ez baitute efektu gehigarriak izan ditzaketen metabolito bioaktiboen presentzia kontuan hartzen.

4.3.3 Metabolitoen identifikazioa

Amitriptilinaren metabolizazio-bidean adierazitako 1. eta 2. Faseko metabolitoen egiturak 4.3 irudian ikus daitezke. Egiturak definitzeko 4.2 taulan laburbiltzen diren masa zehatzetan eta apurketa-ioien datuetan oinarritu da. Detektatutako metabolito guztientzat ez daudenez erreferentziazko estandarrak eskuragarri, Schymanski-k eta lankideek ezarritako 2b-3 konfiantza-mailara heldu gara [37] eta egitura probableak edo behin behineko hautagaiak proposatu ditugu. Isomero asko egon daitezkeenez, egitura batzuen determinazioa zalantzazkoa izan daiteke eta adituen justifikazioetan oinarritua izan da. Kasu guztietan, neurtutako masaren eta masa teorikoaren arteko aldea 3,3 ppm baino baxuagoa izan da. Guztira amitriptilinaren 33 metabolito determinatu dira eta, gure ezagutzaren arabera, haietatik 10 (M12, M13, M15, M16, M20, M21, M22, M23, M27 eta M28) lehen aldiz deskribatu dira lan honetan. Atal honetan, egitura horietako bakoitzaren identifikazioko xehetasunak bildu dira.



4.3 Irudia: *Amitriptilinaren biotransformazio-bidea urraburu arrainean. Zirkuluek lotura edozein lekutan egon daitekeela adierazten dute.*

4.2 taula: *Amitriptilinaren eta identifikatutako metabolito guztien formula molekularra, $[M+H]^+$ ioiaren m/z teorikoa eta ehun/jariakin bakoitzerako dagokion Δmasa (ppm-an), MS/MS espektroko apurketa-ioiak eta erretentzio-denbora (R_t min-an).*

Konposatua	Formula molekularra (M)	m/z teorikoa ($[M+H]^+$)	MS/MS espektroko apurketa-ioi ugarienak	ΔMasa (ppm)						R_t (min)
				Gibela	Plasma	Behazuna	Burmuina	Muskulua	Zakatzak	
Amitriptilina	$C_{20}H_{23}N$	278,1903	278,1899; 233,1323; 91,0542; 105,0698; 117,0698; 191,0854; 84,0807; 155,0855; 218,1088; 205,1010; 58,0653; 179,0855; 129,0697	0,62	2,28	0,51	2,04	1,27	1,16	7,79
M1; Nortriptilina	$C_{19}H_{21}N$	264,1747	233,1323; 91,0542; 105,0698; 117,0698; 264,1741; 191,0854; 155,0854; 218,1088; 205,1010; 70,0651; 179,0854; 129,0697	1,02	0,55	-0,14	1,36	0,90	1,13	7,61
M2	$C_{20}H_{23}NO$	294,1853	276,17438; 231,11673; 58,06536; 216,09325; 84,08076; 191,08553; 205,10109; 294,18396; 233,13249; 117,06985; 229,10129; 203,08531; 249,12743	1,03	2,59	0,62	1,66	0,83	0,93	4,69
M3	$C_{20}H_{23}NO$	294,1853	276,1730; 231,1167; 58,0654; 216,0929; 191,0853; 84,0808; 193,1011; 205,1013; 233,1324; 294,2057; 117,0702	0,20	1,86	1,55	1,35	1,03	0,83	5,55
M4	$C_{19}H_{21}NO$	280,1696	231,1167; 262,1588; 216,0932; 191,0855; 70,0652; 205,1011; 229,1012; 153,0698; 115,0542; 215,0855; 203,0855	0,45	0,78	0,23	1,76	1,43	1,31	4,55
M5	$C_{19}H_{21}NO$	280,1696	231,1168; 262,1588; 216,0933; 191,0855; 70,0652; 205,1012; 193,1010; 153,0698; 229,1010; 115,0543; 215,0853	0,45	1,00	1,54	1,32	-	1,11	5,39
M6	$C_{20}H_{23}NO$	294,1853	276,1741; 231,1167; 58,0654; 180,1746; 98,0964; 216,0932; 84,0808; 294,1826; 191,0855; 205,1012; 249,1273	-	-	-0,11	-	-	-	4,62
M7	$C_{20}H_{23}NO$	294,1853	233,1323; 91,0542; 105,0699; 117,0698; 191,0855; 155,0855; 218,1088; 205,1011; 58,0653; 179,0862; 129,0701	0.83	1.45	0.00	-	-	0.72	8,13

(-): ez da detektatu

4.2 taula: *(Jarraipena).*

Konposatua	Formula molekularra (M)	m/z teorikoa ($[M+H]^+$)	MS/MS espektroko apurketa-ioi ugarienak	ΔMasa (ppm)						R_t (min)
				Gibela	Plasma	Behazuna	Burmuina	Muskulua	Zakatzak	
M8	$C_{20}H_{21}N$	276,1747	276,1741; 231,1167; 58,0654; 216,0932; 84,0808; 205,1011; 191,0855; 229,1013; 117,0699; 233,1321; 203,0855; 91,0542; 98,0964	1,52	2,08	-	-	-	1,19	4,69
M9	$C_{19}H_{19}N$	262,1590	231,1167; 262,1585; 216,0933; 191,0855; 70,0652; 205,1011; 229,1010; 153,0699; 215,0855; 115,0542; 203,0854	0,70	-	-	-	-	1,39	4,55
M10	$C_{20}H_{21}NO$	292,1696	84,0808; 292,1688; 229,1010; 219,1167; 58,0654; 247,1116; 91,0542; 274,1585; 203,0854; 178,0776; 191,0853; 68,0497; 72,0808	0,96	3,25	-	1,79	0,85	0,54	5,77
M11	$C_{20}H_{21}NO$	292,1696	84,0808; 292,1694; 229,1012; 219,1168; 58,0654; 247,1116; 91,0542; 274,1587; 178,0777; 203,0855; 191,0856	-	1,27	1,16	-	-	-	6,04
M12	$C_{20}H_{21}NO$	292,1696	229,1010; 260,1430; 203,0853; 232,1119; 70,0651; 292,1692; 82,0650; 231,1169; 292,2253; 179,0855	0,43	-	0,43	1,48	1,37	1,48	7,74
M13	$C_{21}H_{23}NO$	306,1853	274,1585; 84,0807; 229,1009; 203,0852; 58,0653; 231,1165; 306,1845; 261,1269; 216,0931; 96,0807	0,50	1,29	0,00	0,99	-2,11	0,99	7,94
M14	$C_{19}H_{19}NO$	278,1540	229,1010; 247,1115; 70,0651; 219,1166; 91,0542; 278,1534; 219,0800; 260,1431; 203,0853; 178,0775; 191,0854	0,47	1,90	1,02	0,80	0,25	0,91	5,63
M15	$C_{20}H_{23}NO_2$	310,1802	231,1166; 216,0932; 58,0654; 191,0857; 229,1008; 219,1162; 292,1692; 115,0543; 153,0698; 178,0776; 91,0542; 84,0807; 249,1293	1.61	0.52	0.43	-	-	-	4,92

(-): ez da detektatu

4.2 taula: *(Jarraipena).*

Konposatua	Formula molekularra (M)	m/z teorikoa ($[M+H]^+$)	MS/MS espektroko apurketa-ioi ugarienak	ΔMasa (ppm)						R_t (min)
				Gibela	Plasma	Behazuna	Burmuina	Muskulua	Zakatzak	
M16	$C_{20}H_{23}NO_2$	310,1802	231,1164; 216,0931; 58,0653; 191,0852; 219,1165; 229,1006; 292,1682; 91,0541; 178,0779; 203,0844; 84,0806; 264,1750; 249,1270	-	0,72	0,92	-	-	-	5,98
M17	$C_{20}H_{23}NO_2$	310,1802	219,1167; 264,1744; 191,0854; 178,0776; 292,1692; 91,0542; 58,0654; 84,0808; 310,1792; 247,1115; 229,1011	1,41	0,72	0,23	-	-	1,51	4,23
M18	$C_{20}H_{23}NO_2$	310,1802	219,1167; 264,1744; 310,1780; 191,0855; 58,0654; 292,1651; 178,0775; 91,0542; 84,0808; 229,1012; 247,1119	1,61	0,82	1,02	-	-	1,41	3,32
M19	$C_{20}H_{23}NO_2$	310,1802	292,1693; 247,1116; 58,0654; 219,1167; 310,1798; 264,1744; 84,0808; 221,0961; 229,1010; 207,0803; 232,0878	-	-	0,62	-	-	-	3,29
M20	$C_{19}H_{21}NO_2$	296,1645	219,1166; 191,0854; 250,1587; 178,0776; 193,1011; 91,0542; 70,0651; 229,1010; 247,1111; 278,1527; 260,1430	0,98	-	-1,08	-	-	1,50	4,16
M21	$C_{19}H_{21}NO_2$	296,1645	219,1166; 250,1591; 191,0854; 178,0776; 91,0542; 193,1012; 264,2070; 247,1116; 296,2331; 70,0652; 229,1010; 278,1507	1,91	-	-	-	-	-	3,20
M22	$C_{20}H_{21}NO_2$	308,1645	229,1010; 219,1166; 91,0542; 58,0653; 247,1115; 217,1010; 178,0776; 191,0854; 207,0802; 308,1629; 84,0807; 290,1537	-	1,44	0,35	-	-	-	6,15
M23	$C_{18}H_{20}O_2$	269,1536	116,1070; 58,0654; 137,0458; 154,0533; 99,0805; 228,2322; 211,1105	3,33	-	-	-	-	-	0,72
M24	$C_{26}H_{31}NO_8$	470,2174	276,1743; 231,1167; 58,0653; 294,1849; 216,093; 84,0808; 191,0855; 205,1010; 203,0849; 117,0697; 249,1276	0.55	-	1.26	-	-	-	3,90

(-): ez da detektatu

4.2 taula: *(Jarraipena).*

Konposatua	Formula molekularra (M)	m/z teorikoa ($[M+H]^+$)	MS/MS espektroko apurketa-ioi ugarienak	ΔMasa (ppm)						R_t (min)
				Gibela	Plasma	Behazuna	Burmuina	Muskulua	Zakatzak	
M25	$C_{26}H_{31}NO_7$	470,2174	276,1743; 231,1167; 58,0654; 294,1849; 216,0931; 191,0855; 84,0808; 205,1011; 249,1277; 117,0698; 203,0861	-	0,16	0,81	-	-	-	3,95
M26	$C_{26}H_{31}NO_7$	470,2174	276,1742; 231,1167; 58,0654; 294,1850; 216,0932; 84,0808; 191,0853; 205,1015; 249,1287; 203,0852; 117,0695	0,48	-0,10	0,87	-	-	-	3,74
M27	$C_{26}H_{31}NO_7$	470,2174	231,1167; 262,1588; 216,0932; 191,0855; 70,0651; 276,1744; 205,1011; 229,1012; 153,0698; 115,0542; 294,1844	-	-	0,09	-	-	-	4,64
M28	$C_{26}H_{31}NO_7$	470,2174	231,1167; 262,1588; 216,0933; 191,0854; 70,0652; 205,1011; 153,0698; 229,1015; 115,0543; 276,1757; 203,0851	-	-	-0,69	-	-	-	5,03
M29	$C_{26}H_{31}NO_7$	470,2174	294,1849; 249,1272; 470,2184; 105,0699; 155,0855; 84,0808	-	-	-0,69	-	-	-	3,48
M30	$C_{26}H_{31}NO_8$	486,2123	292,1693; 247,1116; 58,0654; 310,1799; 468,2013; 207,0803; 84,0808; 219,1181	-	-	-0,20	-	-	-	2,22
M31	$C_{26}H_{31}NO_8$	486,2123	231,1168; 250,1589; 219,1168; 58,0654; 191,0856; 216,0935; 278,1540; 310,1805; 292,1697; 178,0777	-	-	-0,83	-	-	-	4,22
M32	$C_{25}H_{29}NO_7$	456,2017	262,1588; 231,1167; 216,0933; 191,0855; 70,0652; 205,1010; 153,0703; 219,1163; 115,0541	-	-	0,04	-	-	-	3,91
M33	$C_{25}H_{29}NO_7$	456,2017	262,1588; 231,1168; 216,0933; 191,0856; 70,065; 205,1012; 153,0698; 219,1165; 115,0542	-	-	0.31	-	-	-	3,77

(-): ez da detektatu

M1 metabolitoa nortriptilina izenez ezagutzen den amitriptilinaren *N*-desmetilazio gisa identifikatu da. Nortriptilinaren egitura erreferentziazko estandarra erabilita konfirmatu dugu, 4.2 taulako masa zehatzak (*m/z*), erretentzio-denborak eta MS/MS espektroak bat egiten dutela egiaztatuta. M1 metabolitoaren identifikazioa *m/z* 233, 218, 205, 191, 179, 155, 129, 115, 117, 105, 91 eta 70 apurketa-ioien arabera burutu da. Apurketa-ioi gehienak amitriptilinaren berdinak (ikus amitriptilinaren apurketa 4.3 irudian) diren arren, bi desberdintasun nagusi azpimarratu behar dira. Alde batetik, *m/z* 70 ($[C_4H_6N]^+$) apurketa-ioiak iradoki du egiturako albo-katean amitriptilinak baino metilo talde bat gutxiago daukala ($[84 - CH_2]^+$). Beste aldetik, *m/z* 58 apurketa-ioia ez egoteak amina taldea eraldatua izan dela adierazi du.

Lan honetan nortriptilina ehun eta jariakin biologiko guztietan behatu den arren, ez da inoiz metabolito ugariena izan. Emaitza hori harrigarria izan da kontuan hartuta amitriptilinaren *N*-desmetilazioa dela metabolizazio-bide nagusiena giza gibeleko mikrosometan [19]. Era berean, giza gibeleko mikrosometan behatu den *N,N*-didesmetilazioa [19,20] ez dugu lan honetan detektatu. Desberdintasun horiek espezieen arteko aldakortasunari egotzi ahal zaizkio, edo baita *in vivo* eta *in vitro* metabolizazio-bideen arteko desberdintasunei. Nahiz eta desberdintasun horiek egon daitezkeen, giza behaketekin bat eginda [2], urraburu arrainetan ere oxidazioa izan da amitriptilinaren metabolizazio-bide nagusiena. Amitriptilinaren eta nortriptilinaren 5 eratorri monohidroxilatu (M2-M6) eta amitriptilinaren metabolito *N*-oxidatua (M7) behatu dira (ikus 4.3 irudia). Egitura guzti horiek bat datoz amitriptilinarekin burututako *in vitro* esperimentuetan behatutakoekin [19,20]. Azpimarratzekoa da, lan honetan, M2 eta M3 izan direla metabolito guztietatik ugarienak, gailur-azaleren erkaketa erlatiboan oinarrituta (ikus 4.3.3 atala).

M2-M3 (*m/z* 294,1857) eta M4-M5 (*m/z* 280,1701) amitriptilinaren eta nortriptilinaren erdiko eraztuneko etileno talde endoziklikoaren metabolito monohidroxilatu gisa identifikatu dira, hurrenez hurren. M2-M3 metabolitoen egituren esleipena 4.4a irudian ikus daitezkeen honako apurketa-ioietan oinarrituta egin da: *m/z* 276 ($[294 - H_2O]^+$), *m/z* 249 ($[294 - C_2H_7N]^+$), *m/z* 231 ([amitriptilina - C_2H_7N-H_2]$^+$), *m/z* 216 ([amitriptilina – $C_3H_{10}N$-H_2]$^+$), *m/z* 203 ([amitriptilina – $C_4H_{11}N$-H_2]$^+$) eta *m/z* 84 ($[C_5H_{10}N]^+$). Izatez, *m/z* 276, *m/z* 249 eta *m/z* 231 apurketa-ioiek ez dute zehazten hidroxilazioa amitriptilinaren etileno talde exoziklikoan edo endoziklikoan gertatu den, baina *m/z* 216 ($[218\text{-}H_2]^+$) eta *m/z* 203 ($[205\text{-}H_2]^+$) apurketa-ioiak behatzeko aukera bakarra hidroxilazioa

erdiko eraztunean gertatu izana da. Gainera, *m/z* 84 apurketa-ioiak albo-katea eraldatu ez dela eta amitriptilinaren egituran bezala jarraitzen duela (ikus amitriptilinaren apurketa 4.3 irudian) adierazten du. Bestalde, *m/z* 249 ([294 – C_2H_7N]$^+$) apurketa-ioia amitriptilinan dagoen *m/z* 233 apurketa-ioiaren oxidazioari dagokio (([233+O]$^+$) = *m/z* 249), oxidazioa molekularen erdiko eraztunean edo albo-katean (nitrogeno atomoaren eta erdiko eraztunaren arteko hiru karbonoko gunean) gertatu den zehaztu gabe. Amitriptilinaren etileno talde endoziklikoaren hidroxilazioa oso ondo deskribatuta dago bibliografian [2]. Era berean, M4-M5 metabolitoek antzeko apurketa-patroia erakutsi dute, eta etileno talde endoziklikoan ur-galera gertatu dela adierazten duten *m/z* 262 (ur-galera), *m/z* 231 ([233-H_2]$^+$) eta *m/z* 216 ([218-H_2]$^+$) apurketa-ioien presentziak hidroxilazioa erdiko eraztunean gertatu dela aditzera ematen du. Azkenik, eraldatu gabeko *m/z* 70 apurketa-ioiak adierazten du nortriptilinaren hidroxilazioa erdiko eraztuneko etileno taldean gertatu dela.

Bestalde, M6 (*m/z* 294,1857) ere amitriptilinaren metabolito monohidroxilatu gisa identifikatu da, baina etileno talde exoziklikoan. 4.4b irudian beha daitekeenez, M2-M3 metabolitoen apurketarekin erkatuz, M6 metabolitoarenean *m/z* 98 apurketa-ioiaren presentzia nabarmendu behar da. Beste behin, nahiz eta *m/z* 276, *m/z* 249 eta *m/z* 231 apurketa-ioiek ez duten zehazten hidroxilazioa amitriptilinaren etileno talde exoziklikoan edo endoziklikoan gertatu den, *m/z* 98 ([$C_6H_{14}N$]$^+$) apurketa-ioiak albo-katea eraldatu dela adierazten du. M6 metabolitoaren apurketa-ioien espektroan (ikus 4.4b irudia) *m/z* 216 ([amitriptilina – $C_3H_{10}N$-H_2O]$^+$) eta *m/z* 84 ([$C_5H_{10}N$]$^+$) apurketa-ioiak ere beha daitezkeen arren, *m/z* 98 apurketa-ioiaren ugaritasun handiagoari lehentasuna eman zaio egitura proposatzeko.

M7 (*m/z* 294,1857) amitriptilinaren *N*-oxidazioaren metabolito gisa identifikatu da, amitriptilinoxido izenez ezagutzen dena. Horretarako, apurketetan ur-galerarik behatu ez izana eta amitriptilinaren eskeletoa berdin mantentzearen adierazgarri diren *m/z* 233 eta *m/z* 218 apurketa-ioien presentzia (ikus amitriptilinaren apurketa 4.3 irudian) hartu dira kontuan. *N*-metilo taldearen oxidazio-produktua beharrean, M7 *N*-oxidazioaren azpiproduktua dela uste da *m/z* 58 ([C_3H_8N]$^+$) apurketa-ioiaren presentziak amina tertziarioaren eraldaketa gertatu ez dela adierazten duelako eta ez delako *m/z* 264 ([amitriptilina +O-CH_2O]$^+$) apurketa-ioia ageri.



4.4 irudia: *a) M2-M3, eta b) M6 metabolitoen MS/MS espektroak eta apurketa-mekanismoak.*

M8 (*m/z* 276,1752), apurketa-patroian behatutako antzekotasunengatik, M2-M3 metabolitoen deshidrataziotik eratu da. Amitriptilinaren metabolito deshidrogenatu bat dela ondorioztatzera *m/z* 276 ($[278\text{-}H_2]^+$), *m/z* 231 ($[233\text{-}H_2]^+$) eta *m/z* 216 ($[218\text{-}H_2]^+$) apurketa-ioiek eraman gaituzte. Nahiz eta *m/z* 276 eta *m/z* 231 apurketa-ioiek ez duten zehazten deshidrogenazioa etileno talde endoziklikoan edo exoziklikoan gertatu den, *m/z* 216 ($[218\text{-}H_2]^+$) apurketa-ioia azaltzeko aukera bakarra deshidrogenazioa erdiko eraztuneko etileno taldean gertatu izana da. Deshidrogenazioa albo-kateko etileno taldean gertatu dela ondorioztatzera eraman gaitzakeen *m/z* 98 apurketa-ioiaren seinalea *m/z* 216 eta *m/z* 84 apurketa-ioiena baino askoz baxuagoa denez, deshidrogenazioa erdiko eraztunean gertatu dela ondorioztatu da. M8 metabolitoaren antzera, M9 (*m/z* 262,1595) nortriptilinaren metabolito hidroxilatuen (hau da, M4-M5 metabolitoen) deshidrataziotik eratu izana aukerarik probableena da. Nortriptilinaren

deshidrogenazio-metabolitoa dela ondorioztatzera *m/z* 262 ($[264\text{-}H_2]^+$, *m/z* 231 ($[233\text{-}H_2]^+$) eta *m/z* 216 ($[218\text{-}H_2]^+$) apurketa-ioiek eraman gaituzte. Horrez gain, MS/MS espektroan *m/z* 70 apurketa-ioia agertzeak nortriptilinaren albo-katea eraldatu ez dela adierazten du eta, ondorioz, deshidrogenazioa erdiko eraztunean gertatu dela. Bai M8 eta bai M9 metabolitoak giza gibeleko mikrosomak erabilita burututako *in vitro* esperimentuetan identifikatu dira [20].

M10 eta M11 (*m/z* 292,1701) amitriptilinaren erdiko eraztuneko keto-deribatu gisa identifikatu dira, *in vitro* esperimentuetan behatutako metabolitoen antzera [19,20]. 4.5a irudiko MS/MS espektroari erreparatuta, ugaritasun baxuko *m/z* 274 apurketa-ioia bat dator ur-galerarekin ($[292\text{-}H_2O]^+$), eta ur-galera hori keto taldearen forma enolikoari egokitu dakioke. Era berean, *m/z* 247 ($[233+O\text{-}H_2]^+$), *m/z* 229 ($[233\text{-}H_2\text{-}H_2]^+$) eta *m/z* 219 ($[233\text{-}CH_2]^+$) apurketa-ioiek oxigenazio-deshidrogenazio batekin konbinatuta gertatu dela adierazten dute. Dena dela, apurketa-ioi horiek ez dute zehazten keto taldea etileno talde endoziklikoan edo exoziklikoan kokatuta dagoen. Hala ere, amitriptilinaren albo-katea eraldatu ez denaren adierazgarri diren *m/z* 84 eta *m/z* 58 apurketa-ioien ugaritasun altuek keto taldea erdiko eraztunean kokatuta dagoela aditzera ematen dute.

M12 metabolitoak M10-M11 metabolitoen masa zehatz berdina du (*m/z* 292,1701) eta haren MS/MS espektroan oinarrituta (ikus 4.5b irudia), nortriptilinaren deshidrogenazio gehi metoxilazio produktua proposatu da. M10-M11 metabolitoen apurketarekin erkatuta, ur-galeraren ezak, *m/z* 84 ($[C_5H_{10}N]^+$) eta *m/z* 58 ($[C_3H_8N]^+$) apurketa-ioien faltak, eta *m/z* 260 ($[C_{19}H_{18}N]^+$), *m/z* 203 ($[C_{16}H_{11}N]^+$), *m/z* 82 ($[C_5H_8N]^+$) eta *m/z* 70 ($[C_4H_8N]^+$) apurketa-ioien presentziak etileno taldeko deshidrogenazioa gehi metanol taldearen galera gertatu direla iradokitzen dute. Esaterako, *m/z* 203 ($[205\text{-}H_2]^+$) apurketa-ioiak deshidrogenazioa erdiko eraztuneko etileno talde endoziklikoan gertatu dela adierazten du. Horrek, eraztunetan oxigenazioa gertatu dela adierazten duen apurketa-ioien ezarekin batera, M12 metabolitoan behatutako deshidrogenazioa erdiko eraztunean egon behar dela adierazten du. Gainera, *m/z* 70 apurketa-ioia ohikoa da nortriptilinaren apurketan. Beraz, honek, CH_3OH-ren galerarekin lotuta dagoen *m/z* 260 apurketa-ioiaren presentziarekin batera, metoxi taldearen presentzia etileno talde exoziklikoan dagoela esan nahi du. Hala ere, egitura horrekin ez gara gai *m/z* 82 ($[C_5H_8N]^+$) eta *m/z* 232 apurketa-ioien presentzia azaltzeko.



4.5 irudia: *a) M10-M11, b) M12 eta c) M13 metabolitoen MS/MS espektroak eta apurketa-mekanismoak.*

M13 metabolitoak, *m/z* 306,1857 masa zehatzarekin ($C_{21}H_{23}NO$), M12 metabolitoaren antzeko egitura erakutsi du, baina amina tertziarioa amitriptilinan bezala (*m/z* 58), eraldatu gabe. 4.5c irudian beha daitekeenez, *m/z* 274 (306-$[CH_3OH]^+$), *m/z* 229 eta *m/z* 203 ($[205\text{-}H_2]^+$) apurketa-ioiak dira M13 metabolitoaren bereizgarri. Esaterako, *m/z* 203 ($[205\text{-}H_2]^+$) apurketa-ioiak lotura bikoitzaren presentzia adierazten du erdiko eraztuneko etileno talde endoziklikoan. Hala ere, egitura horrekin ez gara gai *m/z* 84 apurketa-ioia azaltzeko.

M14 metabolitoa (*m/z* 278,2544) M9 metabolitoaren epoxidazioari dagokio, *m/z* 260 (278-$[H_2O]^+$), *m/z* 247, *m/z* 219, *m/z* 203 eta *m/z* 70 apurketa-ioien presentziagatik. Zhou-k eta lankideek ere deskribatu dituzte epoxidazio-metabolitoak bitartekari gisa [20] eta ziklobenzaprinaren degradazioaren inguruko ikerketa batean ere behatu dira epoxidazio-metabolitoak [38].

Beste alde batetik, muskuluan eta burmuinean izan ezik, gainontzeko matrize biologiko guztietan identifikatu dira metabolito dioxidatuak. Amitriptilinaren bost metabolito dioxidatu (M15-M19; *m/z* 310,18066) eta nortriptilinaren beste bi (M20 eta M21; *m/z* 296,1650). Zhou-ren eta lankideen emaitzekin erkatuta [20], lan honetan ez dugu aurkitu metabolito dihidroxilaturik non hidroxilo taldeetako bat erdiko eraztuneko etilenoan dagoen eta bestea eraztun aromatikoan. Horren arrazoia espezieen arteko aldakortasunetik edo *in vivo* eta *in vitro* metabolizazio-bideen arteko desberdintasunetatik etor daiteke [20].

M15 eta M16 metabolitoek oso antzeko apurketa-patroia erakutsi dute, ur-galera bakarrarekin (*m/z* 292) eta *m/z* 249, *m/z* 231, *m/z* 216, *m/z* 84 eta *m/z* 58 apurketa-ioien presentziarekin. Ur-galerak eta *m/z* 249 eta *m/z* 231 apurketa-ioiek hidroxilazio bat etileno taldeetako batean gertatu dela adierazten duten bitartean, *m/z* 216 apurketa-ioiak erdiko eraztuneko etilenoari dagokiola zehazten du. Bigarren oxidazioari dagokionez, *m/z* 231 eta *m/z* 216 apurketa-ioien presentzia ez denez bateragarria hidroxilazio aromatikoarekin, bigarren oxigenoa amitriptilinaren amina tertziarioan kokatuta egon behar da. Gainera, *m/z* 84 eta *m/z* 58 apurketa-ioiak behatu direnez, *N*-oxidazioa proposatu da.

M17-M19 amitriptilinaren etileno talde endoziklikoko dihidroxi-metabolito gisa identifikatu dira *m/z* 292 ($[310\text{-}H_2O]^+$), *m/z* 247 ($[233+O\text{-}H_2]^+$), *m/z* 264 ($[C_{19}H_{22}N]^+$), *m/z* 219 ($[C_{17}H_{15}N]^+$), *m/z* 84 ($[C_5H_{10}N]^+$) eta *m/z* 58 ($[C_3H_8N]^+$) apurketa-ioietan oinarrituta (ikus 4.6a irudia). Ur-galerak (*m/z* 292) eta eraldatu gabeko albo-kateak (*m/z* 84 eta *m/z* 58) hidroxilo taldea erdiko eraztuneko

etileno taldean dagoela iradokitzen dute. Bigarren hidroxilo taldea kokatzeko *m/z* 264 ([amitriptilina-CH_2]$^+$) eta *m/z* 219 ([233-CH_2]$^+$) apurketa-ioiak nabarmendu behar dira. Hain zuzen, 4.6a irudian ikus daitekeen bezala, apurketa-ioi horiek erdiko eraztuna apurtzearen ondoren eragindako desmetilazioari dagozkio. Bestalde, bigarren ur-galera ez detektatzeko arrazoia intentsitate baxuari atxiki dakioke. Izan ere, erdiko eraztunean, bigarren ur-galeraren ondorioz, egonkortasun baxuko lotura hirukoitza eratzen da. Horregatik, bigarren ur-galerari dagokion apurketa-ioia ez behatzerakoan, bigarren hidroxilo taldea ere erdiko eraztuneko etilenoan dagoela ondorioztatu dugu. Egitura hauek *in vitro* esperimentuetan ere behatu dituzte [20].

M20-M21 nortriptilinaren etileno talde endoziklikoko dihidroxi-metabolito gisa identifikatu dira. M17-M19 metabolitoen antzera, bi hidroxilo taldeak erdiko eraztuneko etileno taldean kokatuta daudela ondorioztatu da ondoko apurketa-ioiak kontuan izanda: *m/z* 278 ([296-H_2O]$^+$), *m/z* 260 ([278-H_2O]$^+$), *m/z* 247 ([233+OH-H_2]$^+$), *m/z* 250 ([$C_{18}H_{20}N$]$^+$≡[nortriptilina-CH_2]$^+$), *m/z* 219 ([233-CH_2]$^+$) eta *m/z* 70 (albo-katea eraldatu gabe). M20 metabolitoan bigarren ur-galera adierazten duen apurketa-ioia (*m/z* 260) oso ahula denez, eta *m/z* 250 eta *m/z* 219 apurketa-ioiak erdiko eraztunaren etileno taldea apurtzearekin erlazionatuta daudenez, bi hidroxilo taldeak etileno endoziklikoan kokatzea proposatu da (ikus 4.6b irudia). M21 metabolitoak antzeko apurketa erakutsi du, baina bigarren ur-galeraren apurketa-ioia ez da behatu, ziurrenik M21 metabolitoaren MS/MS espektroko apurketa-ioien intentsitate baxuagoagatik. Beraz, M21 ere nortriptilinaren erdiko eraztuneko dihidroxi-metabolito gisa definitu da.

M22 metabolitoak (*m/z* 308,1650) M10-M11 metabolitoen antzeko apurketa-patroia erakutsi du eta, nahiz eta seinale oso baxuan agertzen den, ur-galerari dagokion apurketa-ioia (*m/z* 290 =[308-H_2O]$^+$) detektatu da. Metabolito horrek keto taldea dauka etileno talde endoziklikoan eta bigarren oxidazioa *N*-oxidazio gisa determinatu da ez delako bigarren ur-galerarik behatu eta albo-katea ez delako eraldatu. Ondorioz, M22 metabolitoa M15-M16 metabolitoen deshidrogenazio-produktua edo M10-M11 metabolitoen *N*-oxidazio-produktua izan daiteke.

M23 metabolitoa (*m/z* 269,1541) amitriptilinatik zein nortriptilinatik eratorritakoa izan daiteke, (-C_2H_6N) edo (-CH_3N) taldeak galdu ondoren, hurrenez hurren, jarraian dihidroxilazioa pairatuta. Hala ere, lortutako MS/MS apurketa-espektroa oso pobrea izan denez, metabolito horretan ezin izan dugu zehaztu bi hidroxilo taldeen kokapena.



4.6 irudia: *a) M17-M18-M19 eta b) M20 metabolitoen MS/MS espektroak eta apurketa-mekanismoak.*

Azkenik, hamar glukuronido-eratorri behatu dira, nagusiki behazunean (M24-M33), eta horietatik zazpi (M24-M26, M29, M30, M32 eta M33) Zhou-k eta lankideek giza gernuan aurkitutakoak dira [20]. Bestalde, bibliografian deskribatuta dagoen arren [2,19,20], lan honetan ez dugu behatu amitriptilinaren *N*-glukuronidaziorik. Diferentzia hori ugaztunen metabolismoan glukuronidazio-prozesua desberdina izatetik [21] edo *in-vivo* eta *in-vitro* azterketen arteko aldakortasunetik etor daiteke. Zenbait kasutan glukuronido taldearen posizioa zehaztu ahal izan dugun arren, kasu guztietan ez da posible izan konjugazioa non gertatu den (*N*- edo *O*-glukuronidazioa) determinatzea eta hori ohikoa da bibliografiaren arabera [39].

M24-M26 (*m/z* 470,2178) metabolitoak M2-M3 metabolitoen glukuronido gisa identifikatu dira, behin glukuronido taldea galduta (-176 Da) M2-M3 metabolitoen apurketa-patroi berdina dutelako. Emaitza horrek bat egiten du bibliografiarekin, Zhou-k eta lankideek ere hiru glukuronido-eratorri aurkitu baitzituzten hidroxiloa posizio horretan egonda [20]. Edonola ere, apurketa-ioietatik ezin izan da ondorioztatu konjugazioa non (*N*- edo *O*- glukuronidazioa) gertatu den.

Bestalde, M27 eta M28 metabolitoen (*m/z* 470,2178) *m/z* 276 (ugaritasun baxukoa) eta *m/z* 216 apurketa-ioiek erdiko eraztunean hidroxilo taldea dagoela adierazten dute (ikus 4.7 irudia). Hala ere, oxidazio-posizio horretan egonda ezin dira azaldu ugaritasun altuko *m/z* 262 eta *m/z* 70 apurketa-ioiak. Izatez, nortriptilinaren ohikoa den *m/z* 70 apurketa-ioia eta *m/z* 262 azaltzeko modu bakarra M27-M28, amitriptilinaren glukuronidoak beharrean, nortriptilinaren etileno talde endoziklikoan metoxi taldea duen metabolitoaren *N*-glukuronidoak izatea da. Modu horretan, metoxi taldearen galerarekin, intentsitate altuko *m/z* 261 (294-$[CH_3OH]^+$) apurketa-ioia azaldu daiteke.

Nahiz eta lan honetan amitriptilinaren metabolito monohidroxilaturik ez den behatu eraztun aromatikoan, M29 metabolitoa (*m/z* 470,2178) amitriptilinaren eraztun aromatikoaren metabolito hidroxilatuaren glukuronido gisa identifikatu da *m/z* 249 ($[233+O]^+$) apurketa-ioia behatu delako baina ur-galerarik ez. M30 metabolitoa (*m/z* 486,2127) M17-M19 metabolitoen glukuronidazioari egotzi zaio *m/z* 292 (ur-galera) eta *m/z* 247 ($[231+O]^+$) apurketa-ioien presentziagatik. M31 (*m/z* 486,2127) glukuronidoaren egitura ezin izan dugu definitu. Nahiz eta *m/z* 292 eta *m/z* 216 apurketa-ioiek aditzera ematen duten hidroxilo taldeetako bat erdiko eraztuneko etileno taldean

kokatzen dela, ezin izan dugu azaldu *m/z* 250 eta *m/z* 278 apurketa-ioien presentzia. Azken hori hobeto azaltzen da M31 nortriptilinaren metoxi-metabolitoaren glukuronidoa bada. Azkenik, soilik behazunean behatutako M32-M33 metabolitoak (*m/z* 456,2022) M4-M5 metabolitoen (nortriptilinaren monohidroxilatuen) glukuronidoei lotu zaizkie apurketa-patroian erakutsitako antzekotasunean oinarrituta.



4.7 irudia: *M27-M28 metabolitoen MS/MS espektroa eta apurketa-mekanismoa.*

4.3.4 Metabolito-profilen aldaketak denborarekin eta ehun desberdinetan

Amitriptilinaren metabolitoak behazunean (29), gibelean (21) eta plasman (19) behatu dira nagusiki (ikus 4.2 taula). Hau ez da harritzekoa kontuan izanik gibela dela farmakoen metabolizazioaren gune nagusia eta bertan sortutako metabolitoek zirkulazio sistemikoa (plasmaren bidez, adibidez) edo eliminazioa (behazunaren bidez) pairatuko dutela. Behazunak hesteetan eta gibelean sortutako metabolitoak biltzen ditu eta normala da bertan metabolito gehien behatzea.

Ehun/jariakin biologiko desberdinetan amitriptilinaren eta bere metabolitoen ugaritasuna erkatu ahal izateko hurbilketa bat egin behar izan dugu, metabolitoen estandarrak ez baititugu eskuragarri. Hurbilketa horretan, konposatu bakoitzak duen seinalea hartu dugu erantzun analitiko

gisa, eta ugaritasunak zehazterako orduan detektagailuak konposatu bakoitzarentzat duen sentikortasuna edo seinale instrumentala berdintzat jo dugu. Beraz, emaitza hauek kualitatibotzat hartu behar dira, konposatu bakoitzaren analisiko erantzuna desberdina izan daitekeelako. 4.8 irudian ikus daitezke esposizio-egun bakoitzerako ehun eta jariakin desberdinetan kalkulatutako amitriptilinaren eta metabolitoen abundantzia erlatiboak (gailurren azaleren batuketaren portzentaje gisa kalkulatuta). Gailurren azalera guztiak laginaren kantitatea eta isotopikoki markatutako estandarra ($^2H_3$-NOR) erabilita zuzendu dira. Ehunen eta jariakinen artean metabolito-profiletan desberdintasun nabarmenak behatu diren bitartean, ehun/jariakin bakoitzeko profil erlatiboa nahiko konstante mantendu da esperimentuan zehar.



4.8 irudia: *Esposizio-esperimentuan zehar (2., 4. eta 7. egunetako) amitriptilinaren (AMI-ren) eta bere metabolitoen abundantzia erlatiboak (gailurren azaleren batuketaren portzentaje gisa kalkulatuta) ehun (muskulu, burmuin, zakatz eta gibel) eta jariakin (plasma eta behazun) biologikoetan.*

Haren metabolitoekin alderatuta, zakatzetan eta burmuinean konposaturik ugariena amitriptilina bera dela (% 30 eta % 40, hurrenez hurren) ikusi da. Zakatzetan amitriptilinaren absortzioa gertatzen da eta, ondorioz, konposatuaren kontzentrazio altuak espero dira. Bestalde, burmuinera heltzeko amitriptilinak eta bere metabolitoek muga hematoentzefalikoa zeharkatu

behar dute difusioz, eta prozesu hori errazago gertatzen da amitriptilinarentzat 1. Faseko eta 2. Faseko metabolito polarragoentzat baino [10]. Amitriptilinaren ondoren, M2 (% 24) eta M13 (% 11) izan dira burmuinean ugaritasun handieneko metabolitoak. Gibelean eta plasman, konposatu guztien azaleren baturaren % 20 inguru hartzen du amitriptilinak, gibelaren metabolizazio-funtzioa eta plasmaren banaketa-funtzioa azpimarratuta. Gibelaren kasuan M2 amitriptilinaren eratorri monohidroxilatua izan da metabolitorik ugariena (% 30), eta plasman, ordea, M2 metabolitoaren deshidrogenazio-produktua den M10 metabolitoa (% 33). Kontrara, behazunean, amitriptilina oso portzentaje txikian agertu da (% 2) eta 2. Faseko M24 eta M26 glukuronido eratorriak izan dira ugarienak (% 30), hain zuzen ere, M2-M3 monohidroxi-metabolitoen eratorriak direnak.

4.4 Ondorioak

Biologikoki aktiboak izan daitezkeen azpiprodukturen agerpenak zaildu egiten du ur-ingurumeneko farmakoen agerpenarekin lotutako arriskuen ebaluazioa. Gainera, konposatu horiek ez dute zertan hasierako farmakoen segurtasun-ebaluazioetan aurkitutakoen berdinak izan behar. Izan ere, ingurumenean gertatzen diren erreakzio-motak oso desberdinak eta ingurumeneko baldintzen menpekoak edota biotransformazioa eragin duen espeziearen araberakoak izan daitezke. Uretako faunan farmakoen esposizioa osotasunean karakterizatzeko, beharrezkoa da bioaktiboak izan daitezkeen egitura anitzak eta haien ehunen arteko banaketa ezagutzea. Lan honetan, amitriptilina nagusiki burmuinean metatu da eta, bertan, soilik 10 metabolito aurkitu diren bitartean, gibelean 21 metabolito detektatzeaz gain, amitriptilinak % 20 inguruko ugaritasun erlatiboa du soilik. Ondorioz, soilik muskuluan edo gibelean fokatzen diren ur-ingurumeneko ohiko esposizio-azterketek larriki gutxietsi lezakete amitriptilinaren kontzentrazioa bere jomuga-organoan (burmuinean). Bestalde, soilik amitriptilinan fokatzen diren ohiko esposizio-azterketek ez dituzte inondik inora aintzat hartzen organismoaren ehun/jariakin desberdinetako azpiprodukturen kontzentrazioak nahiz eta biologikoki aktiboak izan daitezkeen. Izatez, azken datuek iradokitzen dute nortriptilinaren eta amitriptilinaren metabolito hidroxilatuak eta *N*-oxidatuak aktiboak izan daitezkeela ugaztunetan [2,40–42]. Datu guzti horietatik nabarmendu daiteke funtsezkoa dela farmakoen azpiprodukturen determinazioa burutu eta haien

efektuen azterketa ingurumeneko arriskuen ebaluazioan egitea. Dena den, erronka hori zailago bihurtzen da azpiproduktu askorentzat ez dagoelako eskuragarri erreferentziazko estandarrik. Hala ere, erreferentziazko estandarren faltan, bioaktiboak izan daitezkeen metabolito berrien identifikazio kualitatiboa burutzeko eraginkorra izan daiteke doktorego-tesi honetan erabili den susmagarrien analisirako hurbilketa. Gainera, hurbilketa horren bitartez identifikatutako egitura garrantzitsuak aurrerago konfirmatu eta erdi-kuantifikatu ahal izango dira estandarrak eskuragarri daudenean.

4.5 Erreferentziak

1. Petrie B, Barden R, Kasprzyk-Hordern B. 2015. A review on emerging contaminants in wastewaters and the environment: Current knowledge, understudied areas and recommendations for future monitoring. *Water Res.* 72:3–27.
2. Breyer-Pfaff U. 2004. The Metabolic Fate of Amitriptyline, Nortriptyline and Amitriptylinoxide in Man. *Drug Metab. Rev.* 36:723–746.
3. Lajeunesse A, Gagnon C, Sauvé S. 2008. Determination of Basic Antidepressants and Their N-Desmethyl Metabolites in Raw Sewage and Wastewater Using Solid-Phase Extraction and Liquid Chromatography−Tandem Mass Spectrometry. *Anal. Chem.* 80:5325–5333.
4. Halling-Sørensen B, Nors Nielsen S, Lanzky PF, Ingerslev F, Holten Lützhøft HC, Jørgensen SE. 1998. Occurrence, fate and effects of pharmaceutical substances in the environment- A review. *Chemosphere*. 36:357–393.
5. Baker DR, Kasprzyk-Hordern B. 2011. Multi-residue analysis of drugs of abuse in wastewater and surface water by solid-phase extraction and liquid chromatography–positive electrospray ionisation tandem mass spectrometry. *J. Chromatogr. A*. 1218:1620–1631.
6. Calisto V, Esteves VI. 2009. Psychiatric pharmaceuticals in the environment. *Chemosphere*. 77:1257–1274.
7. Lajeunesse A, Smyth SA, Barclay K, Sauvé S, Gagnon C. 2012. Distribution of antidepressant residues in wastewater and biosolids following different treatment processes by municipal wastewater treatment plants in Canada. *Water Res.* 46:5600–5612.
8. Ziarrusta H, Mijangos L, Prieto A, Etxebarria N, Zuloaga O, Olivares M. 2016. Determination of tricyclic antidepressants in biota tissue and environmental waters by liquid chromatography-tandem mass spectrometry. *Anal. Bioanal. Chem.* 408:1205–1216.
9. Ohshima N, Kotaki H, Sawada Y, Iga T. 1994. Tissue distribution and metabolism of

amitriptyline after repeated administration in rats. *Drug Metab. Dispos.* 22:21–25.

10. Uhr M, Grauer MT, Yassouridis A, Ebinger M. 2007. Blood–brain barrier penetration and pharmacokinetics of amitriptyline and its metabolites in p-glycoprotein (abcb1ab) knock-out mice and controls. *J. Psychiatr. Res.* 41:179–188.

11. Saito K, Maekawa K, Ishikawa M, Senoo Y, Urata M, Murayama M, Nakatsu N, Yamada H, Saito Y. 2014. Glucosylceramide and Lysophosphatidylcholines as Potential Blood Biomarkers for Drug-Induced Hepatic Phospholipidosis. *Toxicol. Sci.* 141:377–386.

12. Fong PP, Ford AT. 2014. The biological effects of antidepressants on the molluscs and crustaceans: A review. *Aquat. Toxicol.* 151:4–13.

13. Minguez L, Farcy E, Ballandonne C, Lepailleur A, Serpentini A, Lebel J-M, Bureau R, Halm-Lemeille M-P. 2014. Acute toxicity of 8 antidepressants: What are their modes of action? *Chemosphere*. 108:314–319.

14. Yang M, Qiu W, Chen J, Zhan J, Pan C, Lei X, Wu M. 2014. Growth inhibition and coordinated physiological regulation of zebrafish (Danio rerio) embryos upon sublethal exposure to antidepressant amitriptyline. *Aquat. Toxicol.* 151:68–76.

15. Zenker A, Cicero MR, Prestinaci F, Bottoni P, Carere M. 2014. Bioaccumulation and biomagnification potential of pharmaceuticals with a focus to the aquatic environment. *J. Environ. Manage.* 133:378–387.

16. https://www.chemicalize.org/. 2018. chemicalize_.

17. Klosterhaus SL, Grace R, Hamilton MC, Yee D. 2013. Method validation and reconnaissance of pharmaceuticals, personal care products, and alkylphenols in surface waters, sediments, and mussels in an urban estuary. *Environ. Int.* 54:92–99.

18. Lajeunesse A, Gagnon C, Gagné F, Louis S, Čejka P, Sauvé S. 2011. Distribution of antidepressants and their metabolites in brook trout exposed to municipal wastewaters before and after ozone treatment – Evidence of biological effects. *Chemosphere*. 83:564–571.

19. Rousu T, Herttuainen J, Tolonen A. 2010. Comparison of triple quadrupole, hybrid linear ion trap triple quadrupole, time-of-flight and LTQ-Orbitrap mass spectrometers in drug discovery phase metabolite screening and identification in vitro – amitriptyline and verapamil as model compounds. *Rapid Commun. Mass Spectrom.* 24:939–957.

20. Zhou X, Chen C, Zhang F, Zhang Y, Feng Y, Ouyang H, Xu Y, Jiang H. 2016. Metabolism and bioactivation of the tricyclic antidepressant amitriptyline in human liver microsomes and human urine. *Bioanalysis*. 8:1365–1381.

21. Chiu S-HL, Huskey S-EW. 1998. Species Differences in N-Glucuronidation 1996 ASPET N-Glucuronidation of Xenobiotics Symposium. *Drug Metab. Dispos.* 26:838–847.

22. Pelkonen O, Tolonen A, Rousu T, Tursas L, Turpeinen M, Hokkanen J, Uusitalo J, Bouvier d'Yvoire M, Coecke S. 2009. Comparison of metabolic stability and metabolite identification of 55 ECVAM/ICCVAM validation compounds between human and rat liver homogenates and microsomes - a preliminary analysis. *ALTEX*. 26:214–222.

23. Nallani GC, Paulos PM, Constantine LA, Venables BJ, Huggett DB. 2011. Bioconcentration of ibuprofen in fathead minnow (Pimephales promelas) and channel catfish (Ictalurus punctatus). *Chemosphere*. 84:1371–1377.

24. Brooks BW, Chambliss CK, Stanley JK, Ramirez A, Banks KE, Johnson RD, Lewis RJ. 2005. Determination of select antidepressants in fish from an effluent-dominated stream. *Environ. Toxicol. Chem.* 24:464–469.

25. Nallani GC, Edziyie RE, Paulos PM, Venables BJ, Constantine LA, Huggett DB. 2016. Bioconcentration of two basic pharmaceuticals, verapamil and clozapine, in fish. *Environ. Toxicol. Chem.* 35:593–603.

26. Schultz MM, Painter MM, Bartell SE, Logue A, Furlong ET, Werner SL, Schoenfuss HL. 2011. Selective uptake and biological consequences of environmentally relevant antidepressant pharmaceutical exposures on male fathead minnows. *Aquat. Toxicol.* 104:38–47.

27. Tanoue R, Nomiyama K, Nakamura H, Kim J-W, Isobe T, Shinohara R, Kunisue T, Tanabe S. 2015. Uptake and Tissue Distribution of Pharmaceuticals and Personal Care Products in Wild Fish from Treated-Wastewater-Impacted Streams. *Environ. Sci. Technol.* 49:11649–11658.

28. Qiao P, Gobas FA, Farrell AP. 2000. Relative contributions of aqueous and dietary uptake of hydrophobic chemicals to the body burden in juvenile rainbow trout. *Arch. Environ. Contam. Toxicol.* 39:369–377.

29. Meredith-Williams M, Carter LJ, Fussell R, Raffaelli D, Ashauer R, Boxall ABA. 2012. Uptake and depuration of pharmaceuticals in aquatic invertebrates. *Environ. Pollut.* 165:250–258.

30. Nakamura Y, Yamamoto H, Sekizawa J, Kondo T, Hirai N, Tatarazako N. 2008. The effects of pH on fluoxetine in Japanese medaka (Oryzias latipes): Acute toxicity in fish larvae and bioaccumulation in juvenile fish. *Chemosphere*. 70:865–873.

31. Erickson RJ, McKim JM, Lien GJ, Hoffman AD, Batterman SL. 2006. Uptake and elimination of ionizable organic chemicals at fish gills: I. Model formulation, parameterization, and behavior. *Environ. Toxicol. Chem.* 25:1512–1521.

32. Zhao J-L, Liu Y-S, Liu W-R, Jiang Y-X, Su H-C, Zhang Q-Q, Chen X-W, Yang Y-Y, Chen J, Liu S-S, Pan C-G, Huang G-Y, Ying G-G. 2015. Tissue-specific bioaccumulation of human and veterinary antibiotics in bile, plasma, liver and muscle tissues of wild fish from a highly urbanized region. *Environ. Pollut.* 198:15–24.

33. Steele IV WB, Garcia SN, Huggett DB, Venables BJ, Barnes III SE, La Point TW. 2013. Tissue-specific bioconcentration of the synthetic steroid hormone medroxyprogesterone acetate in the common carp (Cyprinus carpio). *Environ. Toxicol. Pharmacol.* 36:1120–1126.

34. Wu M, Pan C, Yang M, Xu B, Lei X, Ma J, Cai L, Chen J. 2016. Chemical analysis of fish bile extracts for monitoring endocrine disrupting chemical exposure in water: Bisphenol A, alkylphenols, and norethindrone. *Environ. Toxicol. Chem.* 35:182–190.

35. Xu H, Yang M, Qiu W, Pan C, Wu M. 2013. The impact of endocrine-disrupting chemicals on oxidative stress and innate immune response in zebrafish embryos. *Environ. Toxicol. Chem.* 32:1793–1799.

36. de Solla SR, Gilroy ÈAM, Klinck JS, King LE, McInnis R, Struger J, Backus SM, Gillis PL. 2016. Bioaccumulation of pharmaceuticals and personal care products in the unionid mussel Lasmigona costata in a river receiving wastewater effluent. *Chemosphere*. 146:486–496.

37. Schymanski EL, Jeon J, Gulde R, Fenner K, Ruff M, Singer HP, Hollender J. 2014. Identifying Small Molecules via High Resolution Mass Spectrometry: Communicating Confidence. *Environ. Sci. Technol.* 48:2097–2098.

38. Liu Y, Zhao D, Zhao Z (Zack). 2014. Study of degradation mechanisms of cyclobenzaprine by LC-MS/MS. *Anal. Methods*. 6:2320.

39. Holčapek M, Kolářová L, Nobilis M. 2008. High-performance liquid chromatography–tandem mass spectrometry in the identification and determination of phase I and phase II drug metabolites. *Anal. Bioanal. Chem.* 391:59–78.

40. Gillman PK. 2007. Tricyclic antidepressant pharmacology and therapeutic drug interactions updated. *Br. J. Pharmacol.* 151:737–748.

41. Nałęcz-Jawecki G. 2007. In Vitro Biotransformation of Amitriptyline and Imipramine with Rat Hepatic S9 Fraction: Evaluation of the Toxicity with Spirotox and Thamnotoxkit F™ Tests. *Arch. Environ. Contam. Toxicol.* 54:266–273.

42. Hicks JK, Swen JJ, Thorn CF, Sangkuhl K, Kharasch ED, Ellingrod VL, Skaar TC, Müller DJ, Gaedigk A, Stingl JC. 2013. Clinical Pharmacogenetics Implementation Consortium Guideline for CYP2D6 and CYP2C19 Genotypes and Dosing of Tricyclic Antidepressants. *Clin. Pharmacol. Ther.* 93:402–408.

5. Kapitulua

Amitriptilinaren ondorio metabolikoak urraburu arrainetan; 1.go atala: monoaminetatik haratago doazen aldaketak ingurumenean esanguratsua den dosian

Environmental Toxicology & Chemistry

aldizkarira bidalita

5.1. Sarrera

Depresioaren eta gaixotasun psikiatrikoen tratamendurako gehien errezetatzen den antidepresibo triziklikoa amitriptilina da [1,2]. Beste farmako batzuen antzera, amitriptilina eta bere azpiproduktuak ez direnez guztiz ezabatzen hondakin-uren tratamenduan [3], ingurumenean agertzen dira. Hain zuzen, amitriptilina 72 ng/L eta 1,8 ng/g kontzentrazio-mailetaraino detektatu izan da azaleko uretan [3–5] eta organismo urtarretan [6,7], hurrenez hurren.

Depresioaren tratamenduan, amitriptilinaren dosi terapeutikoek (75 mg/eguneko helduetan) serotoninaren eta norepinefrinaren xurgatzea inhibitzen dute gizakietan [8]. Horrez gain, Vismari-ren eta lankideen arabera [9], amitriptilinak hantura-zitokinen askatzea inhibituta oxido nitrikoaren ekoizpena ere murrizten du immuno-zelulen bitartez. Bestalde, ugaztunetan amitriptilinak eragindako albo-ondorio desberdinak ere deskribatu dira [8,10,11]. Esate baterako, kaspasa-entzimek lagundutako apoptosiari [10] edo amitriptilinak duen detergentearen gisako egiturari [11] egotzi dakieke amitriptilinak sortutako neurotoxikotasuna. Neurotoxikotasunaz gain, amitriptilinaren esposizioak zelula barneko lipidoen peroxidazioa eta oxigeno-espezie erreaktiboen ugaritzea ere eragiten du, hau da, estres oxidatiboa [8].

Ur-ekosistemetan antidepresiboen agerpena eta horrek organismo ez-zuzenduetan izan ditzakeen albo-ondorioek kezka handia sortu dute [12–17]. Antidepresiboek organismo urtarretan dituzten arriskuak ikertzen dituzten lan gehienek, fluoxetina eta *venlafaxina* bezalako serotoninaren xurgapen selektiboaren inhibitzaileetan (*selective serotonin reuptake inhibitor*, SSRI, delakoetan) jarri dute arreta [18–22]. Lan horiek, SSRI-en ekintza-mekanismo ezaguna den monoaminen xurgapen-inhibizioarekin lotutako parametroak aztertu dituzte nagusiki. Hala eta guztiz ere, ekintza-mekanismo horretatik haratago doazen errezeptoreetan ere eragin dezakete SSRI-ek [23] eta, ondorioz, beste bide biokimiko batzuk asalda ditzakete, hala nola energia-metabolismoa, aminoazidoen metabolismoa eta hormona-seinaleztapena [24]. Organismo urtarretan antidepresibo triziklikoekin burututako ikerketak oso mugatuak dira eta, aukitu duguz informazioaren arabera, amitriptilinak organismo urtarretan duen toxikotasunaren inguruko lan bakarra argitaratu da [25]. Lan horretan, hipotalamo-hipofisi-adrenal ardatzean eta antioxidatzaile-sisteman aldaketak behatu dira amitriptilinaren 100 ng/L bezalako kontzentrazio baxuetan.

Ingurumenean maila ez-hilgarrietan agertzen diren kutsatzaileen eraginak ikertzea erronka izugarria da. Izatez, egungo jarraibideetan aplikatzen diren azterketa estandarrak sarritan ez dira gai kutsatzaileek hain maila baxuetan eragiten dituzten efektuak detektatzeko. Testuinguru horretan, lagin biologikoetan masa molekular txikiko molekula endogenoen analisian oinarritzen den metabolomika oso erabilgarria bilakatu da [26]. Izan ere, maila hierarkiko altuagotako (zelula-, ehun-, organismo- edo biztanleria-mailako) albo-ondorioen aurretik beti gertatzen baitira maila molekularreko aldaketak eta, ondorioz, hurbilketa metabolomikoek kutsatzaileak dosi baxuetan eragiteko gai diren aldaketa biokimiko goiztarren inguruko ideia eskaintzen dute [27]. Zehazki, metabolomikaren helburua metabolitoen multzo zabaletik ikerketapean dagoen auzia definitzeko gai diren konposatu biokimiko konkretuak identifikatzea da [28,29].

Metabolomikako datu-multzoek dimentsio handiak izan ohi dituzte, eta horien tratamenduan aldagai bakarreko [30,31] zein aldagai anitzeko [27,31,32] hurbilketak aplikatu izan dira. Hala ere, bi hurbilketek dituzte mugak. Alde batetik, bariantza-analisia (*analysis of variance*, ANOVA, delakoa) bezalako aldagai bakarreko hurbilketak ez dira gai aldagaien arteko kobariantza kontuan hartzeko. Beste aldetik, osagai nagusien analisia (*principal component analysis*, PCA, delakoa) bezalako aldagai anitzeko metodoen muga azpimarragarriena ikerketaren oinarrian dagoen diseinu esperimentala kudeatzeko edo kontuan hartzeko ezintasuna da [33,34]. Arazo horiei aurre egin nahian, diseinatutako esperimentuetako (adibidez, dosia eta egunak aldagai aske gisa dituzten esperimentuetako) datuak analizatzeko aldagai anitzeko hurbilketa berria garatu da: ANOVA-aldibereko osagaien analisia (ANOVA-*simultaneous component analysis*, ASCA, delakoa) [33]. ASCA-k ANOVA eta PCA konbinatu eta, diseinu esperimentalak sortutako aldakortasuna eta aldagaien arteko kobariantza, biak, kontuan hartzen ditu. Esaterako, Malik-ek eta lankideek ASCA erabili dute tributileztainu kutsatzaileak *Daphnia magna* espeziearen lipido-profilean eragiten dituen aldaketak aztertzeko [35], eta Gómez-Canela-k eta lankideek [36] zebra-arrainetan klorpirifos intsektu-hiltzailearen efektu toxikoak ebaluatzeko.

Kapitulu honen helburu nagusia amitriptilinak, ingurumeneko kontzentrazio esanguratsuan, urraburu-arrain (*Sparus aurata*) gazteetan eragiten dituen albo-ondorioak aztertzea da. Helburu hori lortzeko, burmuineko eta gibeleko metaboloma-aldaketak neurtu dira metabolomikako hurbilketa konbinatua (bideratua/ez-bideratua) erabilita [37]. Hurbilketa horrekin lortzen den

metabolomaren estaldura handiak monoaminetatik haratago doazen aldaketa metabolikoak identifikatzea ahalbidetzen du. Gure dakigunaren arabera, hau da amitriptilinaren dosi baxuko eragin metabolikoak ikertu dituen lehen lana.

5.2. Atal esperimentala

5.2.1. Estandarrak eta erreaktiboak

Amitriptilina hidrokloruroa (% 98) Sigma-Aldrich (St. Louis, MO, AEB) merkataritza-etxean erosi da. Tankeak dosifikatzeko amitriptilinaren disoluzioa (5000 mg/L) etanoletan (% 99,9, Scharlab, Bartzelona, Espainia) prestatu eta Milli-Q urarekin diluitu da 85,2 µg/L mailaraino. Esperimentuko tankean etanolaren kontzentrazioa ‰ 0,0004-koa izan da. Disoluzio guztiak −20 ˚C-an gorde dira.

Azetonitriloa (HPLC kalitatea, % 99,9) eta kloroformoa VWR Chemicals (Radnor, PA, AEB) merkataritza-etxekoak dira eta metanola (HPLC kalitatea) Merck-ekoa (Darmstadt, Alemania). Ura Milli-Q Integral 3 eta Millipak express 40 (0,22 µm) iragazkiak (Millipore, Merck) erabilita iragazi da materia organikoaren kantitatea < 3 ng/mL mailan bermatzeko.

5.1 taulan analisi bideratuko metabolitoen zerrenda ageri da bibliografiatik egokitutako euren laburdurekin batera [37]. Laburbilduz, glizerofosfolipidoak definitzeko ester- edota eter-loturen presentzian (“a” edo “e” bidez adierazita, hurrenez hurren), gantz azidoaren kate-luzeran eta lotura bikoitz kopuruan oinarritu da. Gantz azidoak bi glizerol-posiziotara lotuta daudela adierazteko bi letrak (ae = azil-alkil, aa = diazil) erabili dira. Bestalde, karnitinak karbono eta lotura bikoitz kopuruen arabera izendatu dira. Azkenik, esfingomielinak SM gisa laburtu eta “C” baten ondoren gantz azidoaren kateko karbono eta lotura bikoitz kopuruak zehaztu dira.

5.1 taula: *Analisi bideratuko metabolitoen zerrenda.*

Zenbakia	**Metabolitoa (Laburdura)**
Aminoazidoak	
1	Alanina (Ala)
2	Serina (Ser)
3	Prolina (Pro)
4	Valina (Val)
5	Aloisoleuzina (Aleu)

5.1 taula: *(Jarraipena).*

Zenbakia	Metabolitoa (Laburdura)
6	Isoleuzina (Ile)
7	Leuzina (Leu)
8	Asparagina (Asn)
9	Aspartatoa (Asp)
10	Glutamina (Gln)
11	Lisina (Lys)
12	Glutamatoa (Glu)
13	Metionina (Met)
14	Histidina (His)
15	Fenilalanina (Phe)
16	Arginina (Arg)
17	Tirosina (Tyr)
18	Triptofanoa (Trp)
Amina biogenikoak	
19	β-alanina (β-Ala)
20	Kreatinina
21	Azido fumarikoa
22	Azido sukzinikoa
23	Homoserina
24	Taurina
25	Ornitina
26	Azido malikoa
27	Espermidina
28	Zitrulina
29	Homozisteina
Neurotransmisoreak	
30	azido γ-aminobutirikoa (GABA)
31	Dopamina
32	Tiroxina
Base nukleikoak	
33	Adenina
34	Zitosina
35	Uraziloa
36	Timina
37	Guanina
Karnitinak	
38	Karnitina (C0)
39	L-Azetilkarnitina (C2)
40	Malonilkarnitina (C2-COOH & C4-OH)

5.1 taula: *(Jarraipena).*

Zenbakia	Metabolitoa (Laburdura)
41	Propionilkarnitina (C3)
42	Hidroxipropionilkarnitina (C3-OH)
43	Metilmalonilkarnitina (C3-COOH)
44	Butirilkarnitina (C4)
45	Butenilkarnitina (C4:1)
46	2-etilakriloilkarnitina (C4-Et)
47	Glutarilkarnitina (C4-COOH)
48	Balerilkarnitina (C5, C4-M)
49	O-Adipoilkarnitina (C5-COOH)
50	Hexanoilkarnitina (C6)
51	2-Hexenoilkarnitina (C6:1)
52	Heptanoilkarnitina (C7)
53	Oktanoilkarnitina (C8)
54	Oktenoilkarnitina (C8:1)
55	Nonanoilkarnitina (C9)
56	O-sebakoilkarnitina (C9-COOH)
57	O-dekanoil-R-karnitina (C10)
58	Keto-dekanoilkarnitina (C10-ket)
59	Dezenoilkarnitina (C10:1)
60	2-trans,4-cis-Dekadienoilkarnitina (C10:2)
61	Dekatrienoilkarnitina (C10:3)
62	C11 (C9-DM, C10-M)
63	Dodekanedioilkarnitina (C11-COOH)
64	Dodekanoilkarnitina (C12)
65	Hidroxilauroilkarnitina (C12-OH)
66	Hidroxidodezenoilkarnitina (C12:1-OH)
67	(C13-COOH)
68	Tetradekanoilkarnitina (C14)
69	Hidroxi-Tetradekanoil karnitina (C14-OH)
70	Tetradezenoilkarnitina (C14:1)
71	Tetradekadienkarnitina (C14:2)
72	Hidroxitetradekadienkarnitina (C14:2-OH)
73	Palmitoilkarnitina (C16)
74	Palmitoleoilkarnitina (C16:1)
75	Hidroxihexadezenoilkarnitina (C16:1-OH)
76	Hexadekadienoilkarnitina (C16:2)
77	Hidroxihexadekadienoilkarnitina (C16:2-OH)
78	Karboxiheptadekanoilkarnitina (C17-COOH)
79	C17:1-COOH
80	Estearoilkarnitina (C18)

5.1 taula: *(Jarraipena).*

Zenbakia	Metabolitoa (Laburdura)
81	Hidroxioktadekanoilkarnitina (C18-OH)
82	Elaidiko karnitina (C18:1)
83	Hidroxioleoilkarnitina (C18:1-OH)
84	Hexadekadienoilkarnitina (C18:2)
85	Hidroxilinoleilkarnitina (C18:2-OH)
86	Hidroxioktadekatrienoilkarnitina (C18:3-OH)
87	Estearidonil karnitina (C18:4)
Fosfatidilkolinak	
88	PC aa C20:0
89	PC aa C24:0
90	PC aa C26:0
91	PC aa C28:0
92	PC aa C28:1
93	PC aa C28:2
94	PC aa C30:0
95	PC aa C30:2
96	PC aa C32:0
97	PC aa C32:1
98	PC aa C32:2
99	PC aa C32:3
100	PC aa C34:0
101	PC aa C34:1
102	PC aa C34:2
103	PC aa C38:0
104	PC aa C38:1
105	PC aa C38:2
106	PC aa C38:3
107	PC aa C38:4
108	PC aa C38:5
109	PC aa C40
110	PC aa C40:1
111	PC aa C40:2
112	PC aa C40:3
113	PC aa C40:4
114	PC aa C40:5
115	PC aa C40:6
116	PC aa C42:0
117	PC aa C42:1
118	PC aa C42:2
119	PC aa C42:4

5.1 taula: *(Jarraipena).*

Zenbakia	Metabolitoa (Laburdura)
120	PC aa C42:5
121	PC aa C42:6
122	PC ae C30:0
123	PC ae C30:1
124	PC ae C32:1
125	PC ae C32:2
126	PC ae C34:1
127	PC ae C34:2
128	PC ae C34:3
129	PC ae C34:4
130	PC ae C36:0
131	PC ae C36:1
132	PC ae C36:2
133	PC ae C36:3
134	PC ae C36:4
135	PC ae C36:5
136	PC ae C38:0
137	PC ae C38:1
138	PC ae C38:2
139	PC ae C38:3
140	PC ae C38:4
141	PC ae C38:5
142	PC ae C38:6
143	PC ae C40:1
144	PC ae C42:0
145	PC ae C42:1
146	PC ae C42:2
147	PC ae C42:3
148	PC ae C42:4
149	PC ae C42:5
150	PC ae C44:3
151	PC ae C44:4
152	PC ae C44:5
Lisofosfatidilkolinak	
153	lysoPC a C10:0
154	lysoPC a C12:0
155	lysoPC a C14:0
156	lysoPC a C16:0
157	lysoPC a C17:0
158	lysoPC a C18:0

5.1 taula: *(Jarraipena).*

Zenbakia	Metabolitoa (Laburdura)
159	lysoPC a C18:1
160	lysoPC a C18:2
161	lysoPC a C20:0
162	lysoPC a C20:3
163	lysoPC a C20:4
164	lysoPC a C20:5
165	lysoPC a C22:0
166	lysoPC a C22:1
167	lysoPC a C22:5
168	lysoPC a C22:6
169	lysoPC a C24:0
170	lysoPC a C24:1
Esfingomielinak	
171	SM (d18:0/C16:0)
172	SM (d18:0/C16:1)
173	SM (d18:0/C18:0)
174	SM (d18:0/C18:1)
175	SM (OH) (d18:0/C22:2)
176	SM (d18:1/C24:0)
177	SM (d18:1/C24:1)
178	SM (d18:1/C26:0)
179	SM (d18:1/C26:1)

Aminoazidoen, amina biogenikoen, neurotransmisoreen eta base nukleikoen erreaktibo guztiak eta SM C16:0, L-metionina-metiloa ($^{13}C,D_3$) eta C0 (Trimetil-D_9) barne-estandarrak Sigma-Aldrich (San Louis, Missouri, AEB) merkataritza-etxean erosi dira. Karnitina (C2) eta fosfolipidoen estandarrak (PCaaC34:0, PCaaC28:2, lysoPCaC10:0, lysoPCaC24:0) eta barne-estandarrak (lysoPCaC13:0, lysoPCaC17:1, PCaaC25:0, PCaaC31:1, PCaaC43:6 eta SMC12:0) Avanti Polar Lipids (Alabaster, Estatu Batuak) merkataritza-etxekoak dira.

Aminoazidoen, amina biogenikoen, neurotransmisoreen eta base nukleikoen disoluzioak % 1 azido formiko duen Milli-Q ur:metanol (60:40, bol/bol) nahastean prestatu dira, eta L-metionina-metiloa ($^{13}C,D_3$) barne estandarra % 1 azido formiko duen Milli-Q ur:metanol (20:80, bol/bol) nahastean. Karnitinak, lipido guztiak eta haien barne-estandarrak, aldiz, metanoletan disolbatu dira.

5.2.2. Amitriptilinarekin esposizio-esperimentuak

Groupe Aqualande (Roquefort, Frantzia) arrain-haztegitik lortutako urraburu-arrain gazteak, ~40 g-ko pisudunak eta ~13 cm-ko luzerakoak, Plentziako itsas-estaziora (PiE-UPV/EHUra) garraiatu dira, bertan esposizio-esperimentuak burutzeko. Esperimentu osoan zehar, laborategia 18 °C-ko tenperaturan egon da 14:10-h argipe/ilunpe zikloetan, eta uraren tenperatura (13,5 ˚C) eta pH-a (7,3 ± 0,3) konstante mantendu dira. Arrainak heldutako egunetik bi astez eduki dira bertako girora egokitzeko eta, ondoren, esperimentuak hasi aurretik, esperimentuko tankeetan beste 48 orduz egon dira ontzietara egokitzeko. Arrainen bizi-irautea ziurtatzeko ura etengabe aireztatu da eta egunero 0,10 g arrain-jaki/arrain eman zaie (EFICO YM 868, 3 mm, BioMar Group, Danimarka). Uraren kalitatea ziurtatzeko, disolbatutako oxigenoaren, nitritoen, nitratoen eta amonioaren kontrola egin da esposizioan zehar.

Lan hau amitriptilinaren biokontzentrazio/biotransformazio-ikerketarekin batera egin da eta ikerketa horretan (ikus 4. Kapitulua) behatu da amitriptilina burmuinean eta gibelean metatzen dela [38]. Amitriptilina ingurumeneko kontzentrazio esanguratsuan (0,2 µg/L nominalean) dosifikatuta, 7 egun iraun duen esposizio-esperimentua aurrera eramateko 1000 x 700 x 650 mm-ko polipropilenozko bi tanke (bata kontrola eta bestea dosifikatua) erabili dira, bakoitza itsasoko uraren 250 L-rekin eta 145 urraburu arrainekin. Esposizio-esperimentua fluxu jarraiko sistemaren bidez egin da, ponpa peristaltikoak erabilita tanke bietara itsasoko ura 8,5 L/h fluxuan eta kutsatutako tankera dosifikatzeko amitriptilinaren disoluzioa 20 mL/h fluxuan gehituta. Dosifikatzeko amitriptilinaren disoluzioa 48 orduro bete da. Kontroleko tankea baldintza berdinetan mantendu da, baina amitriptilinarik gehitu gabe. Kutsatutako tankean, amitriptilinaren batezbesteko kontzentrazioa 0,12 ± 0,02 µg/L-koa izan da [38]. Tanke bakoitzetik, dosifikazio aurreko (0. eguna) eta osteko 2., 4. eta 7. egunetan 10 arrain bildu dira lan honetako helburua betetzeko. Gure aurreko lanean deskribatutako arrainen lagin-biltzea eta disekzioa [38] Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHUko) Bioetika-Batzordeak ebaluatu eta, egungo araudien arabera, tokiko agintaritzak onartutako prozedura (CEEA/380/2014/ETXEBARRIA LOIZATE) jarraituta egin da.

5.2.3. Metabolitoen erauzketa eta analisia

5.2.3.1. Laginaren tratamendua eta analisi instrumentala

Metabolitoen erauzketa eta analisia aurretiaz optimizatu eta berretsitako metodoa erabilita egin dira [37]. Burmuin eta gibel osoen erauzketak 1,5 mL-ko eta 13 mL-ko ontzietan egin dira, hurrenez hurren, laginaren mg bakoitzeko kloroformoa:metanola (20:80, bol/bol) nahastearen 5 µL gehituta eta Next Advance (New York, AEB) merkataritza-etxeko zirkonio oxidozko bolatxoak erabilita (2,0 mm-koak eta 4,8 mm-koak, hurrenez hurren, burmuin- eta gibel-laginetan). Lagin guztiak 1500 bira/min-ko homogeneizatu dira 4 minutuz 1600 MiniG homogeneizatzailean (Spex Sample Prep, New Jersey, AEB). Ondoren, neurketara orduko, laginak metanol purutan diluitu dira barne-estandarra gehituta (200 µg/L diluitutako erauzian). Lortutako erauzi bakoitzaren bina diluzio egin dira, hain zuzen ere, burmuin-laginetan 1:5 eta 1:100 diluzioak eta gibel-laginetan 1:15 eta 1:300 diluzioak.

Erauzien analisia Estokolmoko unibertsitatean egin da, bertan garatutako hurbilketa bideratuak eta ez-bideratuak erabilita [37]. Laburki, lagin diluitu guztien analisi bideratuan erauzi bakoitza (5 µL-ko alikuotak) bi aldiz neurtu da. Alde batetik, analito polarrenak (18 aminoazido, 11 amina biogeniko, 3 neurotransmisore eta 5 base nukleiko) kuantifikatzeko, kuadrupolo hirukoitzeko masa-espektrometroari akoplatutako ultra-bereizmen altuko likido-kromatografoa (UHPLC-QqQ) erabili da, elkarrekintza hidrofilikoan oinarritutako likido-kromatografiako (*hydrophilic interaction liquid chromatography*, HILIC, delako) zutabearekin eta modu positiboan eta negatiboan aldi berean neurtuta. Beste aldetik, lipidoen metabolismoko konposatuak (50 karnitina, 67 fosfatidilkolina, 16 lisofosfatidilkolina eta 9 esfingomielina) neurtzeko, sarrera zuzeneko (*flow injection*, FI, delako) kuadrupolo hirukoitzeko masa-espektrometria (FI-QqQ) erabili da, hau da, lagina zuzenean sartuta ionizazio-iturrira, aldez aurretiko metabolitoen kromatografia-banaketarik gabe. Orotara, 179 metabolito horien (ikus 5.1 taula) analisi bideratuak doitasun eta identifikazioko ziurtasun hobeak ahalbidetzen dituen arren, analisi ez-bideratuaren bitartez metabolitoen estaldura handitu daiteke. Hori dela eta, diluzio baxueneko erauziak (burmuin- eta gibel-laginen 1:5 eta 1:15 diluzio-erauziak, hurrenez hurren) bereizmen altuko masa-espektrometriaren (*high resolution mass spectrometry*, HRMS, delakoaren) bidez analizatu dira tandem kuadrupolo-Orbitrap masa-analizatzaileari akoplatutako UHPLC kromatografoan [37].

Gainera, metabolitoen estaldura maximizatzeko asmoarekin, analisi ez-bideratuko hurbilketa honetan erauzi bakoitzeko lau neurketa burutu dira bakoitzean 5 µL-ko alikuotak injektatuta. Lau neurketa horietarako, bi kromatografia-zutabe desberdin (bata HILIC zutabea eta bestea alderantzizko faseko oktadezilsilil (C18) zutabea) erabiltzeaz gain, analisiak bi ionizazio-moduetan, positiboan ($HILIC_{pos}$ eta $C18_{pos}$) eta negatiboan ($HILIC_{neg}$ eta $C18_{neg}$), egin dira.

5.2.3.2. Kalitate-kontroleko laginak

Lan honetan, analisien arteko kutsadura kontrolatzeko 5 laginetatik behin zuri instrumental bat (metanol purua) injektatu da. Bestalde, prozeduran zehar egon daitekeen albo-kutsadura kontrolatzeko, prozedurako zuriak (burmuin/gibel gabeko laginak) prestatu dira. Horrez gain, kalitate-kontroleko (*quality control*, QC, delako) lagin desberdinak prestatu dira. Alde batetik, burmuin eta gibel indibidualak elkartuta (n=20), lagin-mota bakoitzerako erauzketaren kalitate-kontroleko (*extraction QC*, QC_{ext}, delako) lagin homogeneoak prestatu dira. Erauzketaren errepikakortasuna egiaztatzeko, erauzketa-txanda bakoitzean lagin homogeneo horren erauzketak ere egin dira. Beste aldetik, ehun-mota bakoitzerako sekuentziaren kalitate-kontroleko (*sequence QC*, QC_{seq}, delako) lagina prestatu da. Horretarako, erauzi bakoitzetik bolumen txikia hartu eta, alikuota guztiak nahastu ondoren, lortutako nahastea alikuota desberdinetan banatu da. Alikuota horiek 10 laginetatik behin injektatu dira sekuentzian zehar, seinalearen jarraipena egin eta, beharrezkoa izatekotan, berau zuzentzeko.

Laginen zorizko erauzketa eta analisia egin da eta lagin-mota bakoitzeko erauziak (laginak, QC-ak, zuriak eta disoluzio estandarrak) sei sekuentzia-txandatan analizatu dira, bi analisi bideratukoak (UHPLC-QqQ eta FI-QqQ) eta beste lau analisi ez-bideratukoak ($HILIC_{pos}$, $HILIC_{neg}$, $C18_{pos}$ eta $C18_{neg}$ UHPLC-qOrbitrap bidez). Sekuentzietan zehar ez da analisien arteko kutsadurarik behatu.

5.2.4. Datuen tratamendua eta analisi estatistikoa

Arrainaren osasunaren ebaluazio orokor gisa, egoera-faktorea (K) [39] eta indize hepatosomatikoa (HSI) determinatu dira 5.1 eta 5.2 ekuazioak erabilita, hurrenez hurren.

$$K = \frac{Arrainaren\ pisua\ x\ 100}{Arrainaren\ luzera^3}$$ 5.1 ekuazioa

$$HSI = \frac{Gibelaren\ pisua\ x\ 100}{Arrainaren\ pisua}$$ 5.2 ekuazioa

Kutsatutako eta kontroleko taldeen artean K eta HSI estatistikoki erkatzeko, aldagai bakarreko bariantza-analisia (ANOVA) erabili da. Bestalde, kontzentrazioak nabarmen aldatu zaizkien metabolitoen identifikazioa aparte egin da burmuineko eta gibeleko laginentzat, bai analisi bideratuan, eta baita hurbilketa ez-bideratuan ere.

5.2.4.1. Analisi bideratuko datuen tratamendua

Intereseko metabolitoak XCalibur 4.0 softwarea erabilita detektatu eta kuantifikatu dira. Analisi estatistikora orduko datu-multzoa iragazi egin da, laginen % 50a baino gehiagotan kontzentrazioak detekzio-mugatik behera izan dituzten metabolitoak ezabatuta. Iragazi aurretik, kontroleko eta kutsatutako taldeen artean falta diren balioak orekatuta egon direla ziurtatu da. Gainerako metabolitoetan, *k-nearest neighbor* (KNN) delako metodoa erabili da falta diren balioak inputatzeko [40].

Nahiz eta erauzketa-txanden artean ez den desberdintasunik behatu QC_{ext} laginetako emaitzen arabera, QC_{seq} laginetako emaitzetatik sekuentzian zeharreko ioien intentsitate-aldaketak edo seinaleen joerak identifikatu dira, barne-estandarrak erabilita ezin izan direnak zuzendu. Ondorioz, QC_{seq} laginetako emaitzetan oinarrituta eta lagin bakoitzaren injekzio-hurrenkera kontuan izanda, seinaleak matematikoki zuzendu dira bibliografian deskribatuta dagoen 5.3 ekuazioa erabilita [41]. Ekuazio horretan, $x_{i,j}$ eta $x'_{i,j}$, j lagineko i analitoaren zuzendu gabeko eta zuzendutako seinaleak dira, hurrenez hurren, eta $f_{i,j}$ seinalearen balio teoriko gisa QC_{seq} laginekin i analitoarentzat eratutako erregresio-zuzenean j laginaren injekzio-hurrenkera ordezkatuta kalkulatzen den zuzenketa-faktorea da. Azkenik, emaitza $x'_{i,1}$ balioarekin (injektatu den lehen QC_{seq} laginean i analitoaren zuzendutako seinalearekin) biderkatzen da seinaleek jatorrizko maila berreskuratzeko [41].

$$x'_{i,j} = \frac{x_{i,j}}{f_{i,j}} \cdot x'_{i,1}$$ 5.3 ekuazioa

Asaldatutako bide metabolikoetako metabolitoak identifikatzeko, bi sekuentzietatik (hau da, UHPLC-QqQ eta FI-QqQ analisietatik) lortutako datu zuzenduak elkartu egin dira eta denak erabilita analisi estatistikoa egin da. Datuak autoeskalatu egin dira metabolito guztiek bariantza berdina

izateko, eta bazterreko balioak PCA-ren bidez detektatu [42,43] eta datu-multzo osoaren % 95-eko konfiantza-tartetik kanpo dauden laginak ezabatu dira.

Datuak aldagai askotariko erregresio linealaren (*multiple linear regression*, MLR, delakoaren) bidez ($Y(\text{denbora,dosia}) = \beta_{\text{denbora}}\cdot\text{denbora} + \beta_{\text{dosia}}\cdot\text{dosia} + \beta_{\text{dosia·denbora}}\text{dosia·denbora}$, non Y metabolitoaren erantzuna den) analizatu dira R softwarearen bidez (3.4.3 bertsioa). Lan honen helburua kontroleko eta kutsatutako laginen artean denboran zeharreko kontzentrazioetan joera desberdinak dituzten metabolitoak identifikatzea denez, denboraren eta dosiaren arteko elkarrekintzan (hau da, dosia·denbora osagaian) jarri da arreta. MLR aplikatu eta I. motako erroreak ekiditeko, dosia·denbora elkarrekintzan p-balioa < 0,05 eta aurkikuntza faltsuen tasa (*false discovery rate*, FDR, delakoa) < 0,05 duten metabolitoak aukeratu dira.

Horrez gain, ikerketa honetan bi aldagai askek (esposizio-denborak eta dosiak) definitutako diseinu esperimentala erabili denez, ASCA hurbilketa ere aplikatu da MetaboAnalyst 3.5 erabilita [44]. ASCA-k datuen bariantza osoa aldagai aske bakoitzak eta euren arteko elkarrekintzak eragindako bariantzetan banatzen du. ASCA-k bi aldagai askeentzat eta euren arteko elkarrekintzarentzat eraikitzen dituen azpiereduetan bi parametro erabiltzen ditu metabolitoen jokabidea aurresateko: eragina (*leverage* delakoa) eta aurresate-errorearen karratua (*squared prediction error* delakoa) [34]. Eraginak metabolito batek ASCA-ren ereduan duen garrantzia neurtzen duen bitartean, aurresate-errorearen karratuak metabolito jakin bakoitzarentzako ereduaren egokitasunaren berri ematen du. Hori kontuan izanda, metabolito esanguratsuak eragin altua (eraginaren muga > 0,85) eta aurresate-errorearen karratu baxua (alfa muga < 0,05) erakusten dutenak izango dira. Bestalde, kontzentrazioak nabarmen aldatu zaizkien metabolito horien egun bakoitzeko aldaketa-mailak (*fold change*, FC, delakoak) ere kalkulatu dira. Horretarako, 5.4 ekuazioan oinarrituta, kutsatutako laginetako *i* eguneko *j* metabolitoaren batezbesteko kontzentrazioa kontroleko laginetako egun bereko analito berdinaren batezbesteko kontzentrazioarekin zatitu da.

$$FC_{i\ \text{eguna},\ \ j\ \text{metabolitoa}} = \frac{j\text{−ren kontzentrazioa}_{\text{kutsatutako laginetan i egunean}}}{j\text{−ren kontzentrazioa}_{\text{kontroleko laginetan i egunean}}} \qquad \text{5.4 ekuazioa}$$

5.2.4.2. Analisi ez-bideratuko datuen tratamendua

Analisi ez-bideratuan lortutako kromatogramak Compound Discoverer 2.1 (Thermo-Fisher

Scientific) programa erabilita aztertu dira eta II. eranskinean ageri dira lan-fluxu horretan ezarritako baldintzak. Datuak prozesatu ondoren, metabolito endogenoekin bakarrik gelditzeko, datu-multzoak iragazi dira. Horretarako, datu-multzoko masa zehatzak 4400 konposatu endogeno dituen edo LipidMaps [45] datu-baseetan bilatu eta bat egiten ez dutenak baztertu dira.

Analisi bideratuaren antzera, bazterreko balioak PCA-ren bidez ezabatu dira, erauzketa-txanden artean ez da desberdintasunik behatu QC_{ext} laginetako emaitzen arabera, eta sekuentzian zeharreko seinaleen joera zuzendu behar izan da. Dena den, analisi bideratuan erabilitako hurbilketa (ikus 5.3 ekuazioa) analisi ez-bideratuaren kasuan ez da gai izan joera guztiz zuzentzeko eta, ondorioz, R software-eko intCor paketea [46] erabili behar izan da. Hori erabilita eredua eraikitzeko 3 talde definitu dira (kontrola, kutsatua eta QC_{seq}), eta, seinaleak zuzentzeko, osagai nagusi komunen analisia (*Common Principal Components Analysis*, CPCA, delakoa) eta erdiko balioen metodoa uztartzen dituen bi urratseko hurbilketa erabili da. Behin sekuentzia bakoitzeko seinaleak zuzenduta, analisi ez-bideratuko lau sekuentzietan ($HILIC_{pos}$, $HILIC_{neg}$, $C18_{pos}$ eta $C18_{neg}$) bildutako datuak elkartu eta batera analizatu dira. 5.2.4.1 atalean aipatu den bezala, MLR analisiaren bidez dosia·denbora elkarrekintzan p-balioa < 0,05 eta FDR < 0,05 irizpideak betetzen dituzten gailurrak edo ASCA-ren azpiereduetan eragina > 0,85 eta aurresate-erroreen karratu baxua < 0,05 dituztenak aukeratu dira analisi ez-bideratuan ere.

Analisi ez-bideratuko datuen kasuan, gailur esanguratsuak banaka aztertu dira, batetik, itxura eskaseko edota txarto integratutako gailurrak eta, bestetik, amitriptilinaren azpiproduktuei dagozkienak [38] kentzeko. Azken horiek kentzea funtsezkoa da okerreko ondorioak ekiditeko. Ondoren, FC balioak 5.4 ekuazioaren arabera kalkulatu eta metabolitoen identifikazioa [47] burutu da ondoko hurbilketa hau erabilita. Metabolitoen esleipenerako, masa zehatza, profil isotopikoa, apurketa-espektroa eta ugaritasunak mzCloud liburutegiko konposatuekin konparatu dira. Liburutegi horretan metabolitoa eskuragarri egon ez denean, behin behineko metabolitoen hautagaiak KEGG [48] eta LipidMaps [45] bezalako datu-baseetan bilatu dira eta, gero, lortutako apurketa-espektro esperimentalak MetFrag [49] programaren bidez eskuratutako *in silico* apurketekin erkatu dira adostasun handiena erakusten duen metabolitoa aukeratzeko.

5.3. Emaitzak eta eztabaida

5.3.1. Osasun-egoeraren ezaugarri orokorrak

Bizi-irauteari dagokionez, ez da arrainik hil esposizioak iraun duen tarte osoan eta, arrainen osasun orokorraren adierazgarri diren K eta HSI aldagai fisiologikoen balioak, zein arrainen luzera eta pisua aztertutako egun guztietan estatistikoki bereizi ezinak izan dira (p-balioa > 0,05) kontroleko eta kutsatutako arrainen artean.

5.3.2. Metabolomako aldaketak

MLR-aren bidez ez da FDR < 0,05 irizpidea betetzen duen metabolitorik egon, ez analisi bideratuan ezta analisi ez-bideratuan ere. Aldaketa metabolikoak MLR analisiaren bidez detektatu ahal izateko besteko nabarmenak ez izatearen arrazoia hain denbora laburreko esperimentuan amitriptilinaren kontzentrazioa baxua izan daiteke (0,2 ng/mL). Izan ere, antidepresiboekin bibliografian dauden beste lan batzuetan askoz kontzentrazio altuagoak (23-465 µg/L) aztertu dituzte [18,19,21]. Hala ere, ASCA hurbilketaren bidez asaldatze metaboliko esanguratsuak behatu dira bai analisi bideratuan eta baita ez-bideratuan ere.

5.3.2.1. Analisi bideratuko emaitzak

5.2 taulan ikus daitekeen bezala, burmuineko zein gibeleko emaitzetan dosia azpiereduak ez du permutazio-testa gainditu (p-balioa > 0,05). Aldiz, denbora eta dosia·denbora elkarrekintzaren azpiereduek 1000 permutaziotan oinarritutako testa gainditu (p-balioa < 0,05), eta lehenengo 2 osagai nagusiek (*principal component*, PC, delakoek) bariantzaren ia % 90-a azaldu dute bi azpiereduetan. ASCA-ren arabera, gibelean zein burmuinean metabolitoen mailan gehien eragin duen aldagaia esposizio-denbora da (denbora azpiereduek dute p-balio-rik baxuena). Aldaketa horren atzean dauden metabolitoak ondokoak dira: burmuinean lisina, glutamina, fenilalanina, adenina, tirosina, prolina, azido malikoa, C3, C18:2, C12:1-OH, C14, C16:2-OH, C16:1-OH, C12, C14:2, eta PCaeC38, eta gibelean lisina, glutamina, fenilalanina, aloisoleuzina, balina, arginina, PCaaC40:6 eta PCaeC38:1. Metabolito horiek kontroleko zein kutsatutako arrainetan denboraren menpeko joera erakustea baldintza esperimentalekin lotuta egon daiteke, hala nola esperimentuak aurrera egin ahala ontzi bietako arrain-kopurua gutxitzen joatearekin.

5.2 taula: *ASCA hurbilketaren emaitzak. Burmuineko eta gibeleko analisi bideratu eta ez-bideratuko emaitzekin eraikitako azpiereduen (dosia, denbora eta dosia·denbora elkarrekintza) lehenengo bi osagai nagusien (principal component, PC, delakoen) garrantzia eta azaldutako bariantza.*

Ehuna	Aldagaia	Analisi bideratua			Analisi ez-bideratua		
		Garrantzia (p-balioa)	*Scores azaldutako bariantza (%)*		*Garrantzia (p-balioa)*	*Scores azaldutako bariantza (%)*	
			PC1	PC2	PC1	PC1	PC2
Burmuina	dosia	0,95	-	-	0,70	-	-
	denbora	0,001	60,9	28,3	<0,001	50,1	30,7
	dosia·denbora	0,003	73,7	15,8	0,11	-	-
	Hondarrak		28,2	13,1		19,1	7,9
Gibela	dosia	0,53	-	-	0,48	-	-
	denbora	<0,001	73,9	19,1	0,002	53,8	27,2
	dosia·denbora	0,03	44,2	37,9	0,03	44,5	34,2
	Hondarrak		20,4	14,8		12,3	7,5

Horrez gain, amitriptilinaren dosiak eragindako albo-ondorioak dosia·denbora azpiereduetatik identifikatu dira. Azpieredu horietako lehenengo osagai nagusiaren *scores* diagramak 5.1 irudian beha daitezke, eta azpimarratzekoa da dosi-taldeen (kontrolaren eta kutsatuaren) arteko desberdintasun nabarmenenak esperimentuko azken egunean (7. egunean) behatu direla burmuinean zein gibelean. ASCA-ren arabera amitriptilinaren esposizioaren ondorioz esanguratsuki aldatu diren metabolito horien FC balioak 5.2 irudian ageri dira. Irudi berean, kontroleko eta kutsatutako laginen arteko desberdintasun-maila adierazi da, t-frogaren bidez kalkulatuta.



a) Burmuina / analisi bideratua b) Gibela / analisi bideratua c) Gibela / analisi ez-bideratua

5.1 irudia: *Burmuinen analisi bideratuan (a), gibelen analisi bideratuan (b) eta gibelen analisi ez-bideratuan (c) dosia·denbora azpiereduko 1.go osagai nagusiaren scores diagrama. Lerroek talde eta egun bakoitzeko batezbestekoak lotzen dituzte.*



5.2 irudia: *ASCA-ren arabera burmuinean (a) eta gibelean (b) kontzentrazioak nabarmen aldatu zaizkien analisi bideratuko metabolitoen 2., 4. eta 7. egunetako aldaketa-mailak (fold change, FC, delakoak). FC balioak kalkulatzeko kutsatutako laginetako metabolitoaren batezbesteko kontzentrazioa kontroleko laginetako egun bereko analito berdinaren batezbesteko kontzentrazioarekin zatitu da. *: p-balioa < 0,1; **: p-balioa < 0,05.*

Gibelaren kasuan, dosia·denbora azpiereduko emaitzen arabera, 13 metabolitoren kontzentrazioak aldatu dira esperimentuan zehar kontroleko eta kutsatutako arrainetan. Metabolito horien artean daude metionina, glutamatoa eta lipidoen metabolismoko beste 11 konposatu, hala nola azil karnitinak (C18, C17:1-COOH, C16:1-OH eta C5), fosfatidilkolinak (PCaaC30:2, PCaaC32:1, PCaaC32:2 eta PCaaC32:3), lisofosfatidilkolinak (lysoPCa20:3 eta lysoPCa24:1) eta esfingomielina bat (SM C18:1). Bestalde, burmuinean dosia·denbora azpiereduaren arabera ondorengo 10 metabolitoak aldatu dira: arginina, metionina, asparagina eta beste 7 metabolito lipidiko, hala nola C4 azil karnitina, 3 fosfatidilkolina (PCaeC34:1, PCae C36:3 eta PCae C38:2), 2 lisofosfatidilkolina (lysoPCa C16:0 eta lysoPCa C18:1) eta SM C18:0 esfingomielina.

5.3.2.2. Analisi ez-bideratuko emaitzak

Analisi bideratuan bezala, analisi ez-bideratuan ere ASCA-ko dosia azpiereduak ez du permutazio-testa gainditu (p-balioa > 0,05) eta p-balio baxuenak denbora azpiereduan lortu dira (ikus 5.2 taula). Emaitza horien arabera, amitriptilinarekin burututako esposizio-esperimentuan esposizio-denbora da aldagai esanguratsuena. Dosia·denbora azpiereduari dagokionez, permutazio-testa gibelean soilik gainditu da (ikus 5.2 taula). Gainera, 5.1c irudian ageri den bezala, eta analisi bideratuko emaitzekin bat etorrita, kontroleko eta kutsatutako tankeetako arrainen arteko desberdintasun nabarmenenak esposizioko azken egunean (7. egunean) behatu dira. Dosia·denbora azpiereduaren arabera (ikus 5.3 taula) 37 gailurrei dagozkien metabolitoen kontzentrazioak desberdin aldatu dira esperimentuan zehar kontroleko eta kutsatutako arrainetan. 37 metabolito horietatik 3 soilik esleitu ahal izan dira KEGG datu-basearen arabera eta, ondorioz, ezinezkoa izan da bide metabolikoen aberastea burutzea [50]. Izan ere, gainontzeko 34 gailurren masa zehatzak KEGG datu-basean sartuta ez dauden behin-behineko lipido gisa identifikatu dira. Gainera, kasu gehienetan isomeroak detektatu direnez ezin izan da lipidoaren egitura konkretua zehaztu baina posible izan da dagokion lipido-kategoria adieraztea. 5.3 taulan beha daitekeen bezala, behin behineko 34 lipido horietatik 1 gantz aziloa da, 3 esfingolipidoak, 2 esterol lipidoak, 25 glizerofosfolipidoak eta 3 glizerolipidoak dira. Gainera, taula berean amitriptilinaren ondorioz jokabidea esanguratsuki aldatu duten 37 metabolitoen 2., 4. eta 7. esposizio-egunetako FC balioak ageri dira.

Gibelaren kasuan, dosia·denbora azpiereduak analisi bideratuko eta ez-bideratuko emaitzetan izan dira esanguratsuak, eta bi analisi-hurbilketen arabera gehienbat eraldatu diren kontzentrazioak lipidoen metabolismoan barneratzen diren konposatuen kontzentrazioak dira. Hain zuzen, analisi bideratuan 13 metabolitotik 11 izan dira lipidoak, eta analisi ez-bideratuan 37 metabolitotik 34. Hala eta guztiz ere, bi hurbilketetako emaitzetatik identifikatu den metabolito bakarra C18 azil karnitina izan da, estearoilkarnitina gisa ezagutzen dena (ikus 5.3 irudia).

5.3 taula: *ASCA-ren arabera gibeleko mailak esanguratsuki aldatu zaizkien gailurren identifikazioa eta euren aldaketa-mailak (fold change, FC, delakoak) 2., 4. eta 7. egunetan.*

Gailurra	Masa molekularra	Izena edo Formula molekulara	Maila	Kodea (KEGG edo LipidMaps)	Aldaketa-maila (FC)		
					2.eguna	4.eguna	7.eguna
KEGG bidez identifikatuta							
HILICpos_Gailur286	219,1106	Pantotenatoa	2a	C00864	1,78	0,87	1,74
HILICneg_Gailur194	168,02765	Uratoa	2a	C00366	1,95	0,86	1,20
HILICpos_Gailur1	174,06401	Formilisoglutamina / N-Formimino-L-glutamatoa	3	C16674 / C00439	5,18	0,68	3,25
Gantz azilo kategoriako lipidoa (LMFA)							
C18pos_Gailur153	427,36586	C18:0 (Estearoilkarnitina)	2b	7070008	0,70	1,05	1,59
Esfingolipidoen kategoriako lipidoak (LMSP)							
C18pos_Gailur141	309,26659	(9Me;4E;8E;10E-d19:3) esfingosina	2b	1080014	0,94	1,05	0,66
C18pos_Gailur31	647,62106	Zer(d18:1\ /24:1(15Z))	2a	2010009	1,01	1,03	0,81
HILICpos_Gailur319	688,55202	$C_{38}H_{77}N_2O_6P$ (2 hautagai)	3	03010038; 03010037	1,11	1,05	1,44
Sterol lipidoen kategoriako lipidoak (LMST)							
HILICpos_Gailur264	444,36093	$C_{29}H_{48}O_3$ (6 hautagai)	3	01010175; 01010227; 01031087; 03020419; 03020420; 03020421	0,64	0,90	1,01
HILICpos_Gailur79	368,34463	3-Deoxibitamina D3	2b	3020618	0,73	1,14	0,95
Glizerolipidoen kategoriako lipidoak (LMGL)							
C18pos_Gailur42	402,2768	MG(0:0\/22:6 (4Z;7Z; 10Z;13Z;16Z;19Z)\/0:0)	3	1010027	1,54	1,04	0,61
C18pos_Gailur54	616,50614	$C_{39}H_{68}O_5$ (3 hautagai)	3	02010480; 02010064;02010063	1,24	1,15	0,63
C18pos_Gailur75	638,49114	$C_{41}H_{66}O_5$ (2 hautagai)	3	02010174; 02010143	1,17	1,16	0,57

5.3 taula: *(Jarraipena).*

Gailurra	Masa molekularra	Izena edo Formula molekulara	Maila	Kodea (KEGG edo LipidMaps)	Aldaketa-maila (FC)		
					2.eguna	4.eguna	7.eguna
Glizerofosfolipidoen kategoriako lipidoak (LMGP)							
C18neg_Gailur12	777,53107	$C_{44}H_{76}NO_8P$ (4 hautagai)	3	02011139; 02011210; 01012099; 01010512	0,51	0,90	1,09
C18neg_Gailur43	453,28577	$C_{21}H_{44}NO_7P$ (2 hautagai)	3	02050002; 01050001	0,72	1,35	1,18
C18neg_Gailur48	481,31683	$C_{23}H_{48}NO_7P$ (4 hautagai)	3	02050001; 01050016; 01080020; 01080029	0,82	1,12	1,20
C18neg_Gailur50	743,54682	$C_{41}H_{78}NO_8P$ (4 hautagai)	3	02011193; 02010044; 01011618; 01010543	0,95	1,00	1,49
C18neg_Gailur52	479,30127	$C_{23}H_{46}NO_7P$ (2 hautagai)	3	02050004; 01050125	0,78	1,15	1,09
C18neg_Gailur57	748,5257	$C_{40}H_{77}O_{10}P$ (8 hautagai)	3	04010149; 04010484; 04010457; 04010178; 04010127; 04010511; 04010102; 04010530	0,61	0,94	1,04
C18neg_Gailur6	765,53077	$C_{43}H_{76}NO_8P$ (4 hautagai)	3	02010973; 02011201; 01011425; 01011930	0,76	0,99	1,25
C18neg_Gailur70	708,47329	$C_{40}H_{69}O_8P$ (2 hautagai)	3	10010655; 10010240	0,75	1,34	1,74
C18neg_Gailur77	805,56258	$C_{46}H_{80}NO_8P$ (2 hautagai)	3	01011116; 01010650	0,73	1,02	1,10
C18pos_Gailur195	453,28546	$C_{21}H_{44}NO_7P$ (2 hautagai)	3	02050002; 01050001	0,66	1,24	1,35
C18pos_Gailur207	479,30089	PE(18:1(9Z)\/0:0)	2b	2050004	0,81	1,11	1,14
C18pos_Gailur6	763,51454	$C_{43}H_{74}NO_8P$ (13 hautagai)	3	02011161; 02010095; 20020014; 02011172; 02011195; 02010945; 02011192; 02010916; 02010917; 02010887; 02010759; 02010729; 02010701	0,84	1,14	1,21
C18pos_Gailur8	757,5615	$C_{42}H_{80}NO_8P$ (27 hautagai)	3	01010592; 01010585; 01010590; 01010920; 01010588; 01010586; 01010926; 01010932; 01010589; 01011559; 01011504; 01010687; 01010678; 01010887; 01012147; 01010688; 01010727; 01010728; 01010745; 01011398; 01011449; 01011808; 01011761; 01011373; 01011837; 01012035; 01011336	1,38	1,56	0,79
HILICneg_Gailur109	835,51614	PE(22:6(4Z;7Z;10Z;13Z;16Z;19Z) \/ 22:6 (4Z;7Z;10Z;13Z;16Z;19Z))	2b	2010093	1,14	0,95	0,77

5.3 taula: *(Jarraipen).*

Gailurra	Masa molekularra	Izena edo Formula molekulara	Maila	Kodea (KEGG edo LipidMaps)	Aldaketa-maila (FC)		
					2.eguna	4.eguna	7.eguna
HILICneg_Gailur38	803,56873	$C_{43}H_{82}NO_{10}P$ (15 hautagai)	3	00000048, 03010332, 03010462, 03010704, 03010187, 03010157, 03010729, 03010239, 03010536, 03010318, 03010491, 03010221, 03010681, 03010266, 03010516	1,25	1,02	0,80
HILICneg_Gailur58	479,30085	$C_{23}H_{46}NO_7P$ (2 hautagai)	3	02050004; 01050125	0,73	1,11	0,89
HILICpos_Gailur16	805,56144	$C_{46}H_{80}NO_8P$ (22 hautagai)	3	01010650; 01011116; 01012141; 01012140; 01012216; 01010844; 01012201; 01011909; 01012175; 01011880; 01012212; 01012179; 01010907; 01011851; 01012171; 01010943; 01012200; 01011721; 01011662; 01011057; 01011881; 01011691	1,03	1,00	1,42
HILICpos_Gailur17	783,57851	$C_{44}H_{82}NO_8P$ (19 hautagai)	3	01011589; 01011651; 01011588; 01011682; 01011624; 01010895; 01012168; 01010893; 01012149; 01011766; 01011568; 01012194; 01010622; 01011872; 01010624; 01012038; 01011842; 01011490; 01011406	1,03	0,84	1,27
HILICpos_Gailur187	467,30131	$C_{22}H_{46}NO_7P$ (3 hautagai)	3	01050073; 01050012; 01020009	1,28	1,04	1,20
HILICpos_Gailur193	787,51563	$C_{45}H_{74}NO_8P$ (7 hautagai)	3	02011144; 02011191; 02011118; 02010767; 02011173; 02010926; 02010983	1,19	1,04	1,45
HILICpos_Gailur458	819,61213	$C_{48}H_{86}NO_7P$ (3 hautagai)	3	01020110; 01090059; 01030098	1,55	1,17	1,27
HILICpos_Gailur53	769,56366	$C_{43}H_{80}NO_8P$ (24 hautagai)	3	01011602; 01011562; 01011423; 01011870; 02010913; 02011202; 01011533; 01011622; 01011452; 01011840; 02010647; 02010883; 01011507; 01011506; 01011679; 01011648; 02010854; 02010670; 02011078; 02010537; 02010832; 02010726; 02010831; 02010698	0,83	0,86	1,33
HILICpos_Gailur56	763,5154	$C_{43}H_{74}NO_8P$ (13 hautagai)	3	02011161; 02010095; 20020014; 02011172; 02011195; 02010945; 02011192; 02010916; 02010917; 02010887; 02010759; 02010729; 02010701	0,95	1,24	1,89
HILICpos_Gailur57	741,53203	$C_{41}H_{76}NO_8P$ (24 hautagai)	3	02010908; 02011222; 01011444; 01011619; 02010048; 02010663; 02010878; 02010531; 01011867; 01011355; 02010720; 02010629; 02010690; 02010628; 01011482; 01011558; 01011417; 01011416; 01011675; 01011644; 02010608; 02010803; 02011074; 02010449	0,94	1,19	1,83
HILICpos_Gailur87	803,54678	$C_{46}H_{78}NO_8P$ (11 hautagai)	3	01010696; 01012103; 01011306; 01011634; 01011938; 01011882; 01011722; 01011910; 01011663; 01011692; 01011911	1,07	1,07	1,53



a) Analisi bideratua b) Analisi ez-bideratua

5.3 irudia: *C18 azil karnitinaren gibeleko batezbesteko kontzentrazioak (a, analisi bideratuan) edo gailur-ugaritasunak (b, analisi ez-bideratuan) kontroleko eta kutsatutako arrainetan esperimentuko egun desberdinetan, eta % 95-eko konfiantza tarteak.*

5.3.3. Dosiari lotutako efektuen interpretazio biologikoa

Interpretazio biologikorako analisi bideratuan zein ez-bideratuan ASCA hurbilketatik identifikatutako metabolitoak erabili dira. Laburpen gisa, burmuin- eta gibel-metabolomako aldaketak kontuan izanda, amitriptilinaren dosiak eragindako albo-ondorioak argininan, metioninan, glutamatoan, asparaginan, pantotenatoan, azido urikoan, formilisoglutamina/N-formimino-L-glutamatoan eta lipidoen metabolismoko 51 metabolitotan behatu dira.

Burmuineko argininaren mailako aldaketak oxido nitrikoaren ekoizpena asaldatzearekin lotuta egon daitezke. Izan ere, oxido nitriko sintasak albo-produktu gisa oxido nitrikoa sortzen den argininatik zitrulinarako erreakzioa katalizatu eta, bibliografiaren arabera, antidepresiboen tratamenduak oxido nitrikoaren sistema orekatzen du [51]. Izatez, SSRI-ak entzima horretara lotu daitezke bibliografiaren arabera [23,52]. Horrez gain, beste ikertzaile batzuek zebra-arrainen enbrioietan oxido nitrikoaren edukiaren murriztea behatu dute amitriptilinaren presentzian (< 1 mg/L kontzentrazioan) [25]. Hori dela eta, lan honetan behatutako argininaren aldaketa estres oxidatiboaren kontrako babesaren seinalea izan daiteke, eta emaitza horrek bat egiten du arratoiekin burututako lan bateko ondorioekin, non fluoxetina antidepresiboak oxigeno-espezie erreaktiboen ekoizpena jaisten duela behatu duten [53].

5.2b irudian ikus daitekeen moduan, kutsatutako arrainen gibelean kate luzeko azil karnitinen metatzea behatu da (FC > 1,50). Behaketa hori, kutsatzaileen albo-ondorio nagusia den gibeleko estres oxidatiboaren seinalea izan daiteke [36,54] eta gibeleko zitokromo entzimen bidezko amitriptilinaren metabolizazioak [55] oxigeno-espezie erreaktiboen igoera hori azal dezake. Izatez, hipotesi horrek bat egiten du gure aurreko amitriptilinaren biotransformazio-laneko behaketekin, non amitriptilina nagusiki konposatu monohidroxilatuetara metabolizatu zen kutsatutako arrainen gibelean [38]. Gainera, Kotarsky-ren eta lankideen behaketen antzera [54], metatze hori ez da karnitinan edo kate laburreko azil karnitinetan behatu, baizik eta kutsatutako arrainen gibeleko kate-luzeko azil karnitinetan soilik. Oro har, 5.4 irudian ikus daitekeenez, korrelazio positibo esanguratsua behatu da azil karnitinen kate-luzeraren eta FC-en artean (r^2=0.76), eta horrek erreserba-lipidoen gainkontsumoa iradoki dezake [36].



***5.4 irudia**: Asetutako karnitinen kate-luzeraren eta 7. eguneko arrain-gibeleko aldaketa-mailen (fold change, FC, delakoen) arteko korrelazioa. FC balioak kalkulatzeko 7. eguneko kutsatutako laginetako metabolitoaren batezbesteko kontzentrazioa 7. eguneko kontroleko laginetako analito berdinaren batezbesteko kontzentrazioarekin zatitu da.*

Bestalde, amitriptilinak burmuineko eta gibeleko aminoazidoen metabolismoan aldaketak sortu dituela aditzera eman dute 5.2 irudiko eta 5.3 taulako emaitzek. Izan ere, burmuinean metionina eta asparagina aldatu dira, eta gibelean pantotenatoa, azido urikoa eta formilisoglutamina/N-formimino-L-glutamatoa. Karnitinaren aitzindaria den metionina eta asparagina metabolitoen mailetan behatutako aldaketek imipramina antidepresibo triziklikoa eman zaien arratoiekin egindako lanaren behaketekin bat egiten dute [56]. Izan ere, lan horretako

arratoien burmuinean metioninaren, asparaginaren, glutamatoaren eta beste aminoazido batzuen aldaketak behatu dira. Bibliografian, arratoietan, garuneko aminoazidoen metabolismoko perturbazioak estresarekiko duten ahultasunarekin lotu dira [57,58]. Gainera, gibeleko aminoazidoen metabolismoan ere aldaketak behatu ditugu, amitriptilinarekiko esposizioaren ondorioz β-alaninaren metabolismoko, purinen metabolismoko eta histidinaren metabolismoko metabolitoen kontzentrazioak aldatu baitira.

Glutamatoak funtzio garrantzitsua betetzen du gibeleko aminoazidoen metabolismoan. Izan ere, glutationaren aitzindari hau folato-koentzimen katabolismoan eta GABA-ren ezabatze-prozesuan ekoizten da [59]. Gibelean behatutako glutamatoaren kontzentrazio-aldaketak energia-metabolismoarekin lotuta egon daitezke, glutamatoa, glutamato deshidrogenasaren bidez, Krebs zikloko bitartekaria den α-ketoglutaratora eraldatzen delako. Beraz, emaitza horrek erakusten du amitriptilinak energia-metabolismoarekin lotutako aminoazidoen mailetan aldaketak sor ditzakeela, paroxetina SSRI-arekin behatutakoaren antzera [24] eta, ondorioz, antidepresiboek eragindako albo-ondorioak SSRI-ekin burututako lanetan sakon ikertutako monoaminetatik [18,19,21,22] haratago doazela.

Kontrolekin erkatuta, kutsatutako arrainen gibelean behatutako lisofosfatidilkolinen maila baxuagoek (FC < 1,00 esposizioko azken egunean) aditzera ematen dute amitriptilinak lisofosfatidilkolinen eraldatzea areagotzen duela. Izatez, Xia-k eta lankideek adierazi izan dute amitriptilina bezalako farmako anfifilikoek fosfolipidosia (hau da, lipidoen metatze-arazoak) eragin dezaketela organo gehienen zeluletan [60]. Gainera, farmakoek eragindako gibeleko fosfolipidosiaren odoleko adierazle gisa ere deskribatu izan dira lisofosfatidilkolinak [61]. Analisi bideratuko lisofosfatidilkolinez (lysoPCa20:3 eta lysoPCa24:1 metabolitoez) eta fosfatidilkolinez (PCaaC30:2, PCaaC32:1, PCaaC32:2 eta PCaaC32:3 metabolitoez) gain, gibeleko analisi ez-bideratuan beste 25 glizerofosfolipido, 3 glizerolipido, 2 esterol lipido eta 3 esfingolipido ere identifikatu dira kontzentrazioa esanguratsuki aldatuta izan dutenak (ikus 5.3 taula). Oro har, lan honetako emaitzek bat egiten dute metabolomikako ikerketa berriarekin, non lipidoen metabolismoko aldaketen eta estres oxidatiboaren arteko lotura aipatzen den [62].

Lipidoen metabolismoa garunean ere asaldatu da, lipido-klase guztietan (hau da, azil karnitinetan, lisofosfatidilkolinetan, fosfatidilkolinetan eta esfingomielinetan); kutsatutako

arrainetan kontzentrazioak kontrolekoak baino altuagoan izan dira esposizioko azken egunean (FC > 1,00 kasu guztietan). Adibidez, fosfatidilkolinen igoeraren arrazoia amitriptilina bezalako SSRI-ek fosfolipidoei lotzeko duten gaitasunari egotzi dakioke [60]. Izan ere, fosfolipasa entzimen substratu gisa lipidoak duen egokitasuna desberdina izan daiteke lipidoa aske edo SSRI-ari lotuta dagoenean. Bestalde, amitriptilina bezalako antidepresibo triziklikoek esfingomielinasen jarduera ere inhibitzen dutenez [63], horrek esfingomielinen metatzea eragin dezake. Izatez, bibliografian fosfatidilkolinen eta esfingolipidoen kontzentrazioaren eta gaixotasun neurologikoen (antsietatearen eta depresioaren) arteko alderantzizko korrelazioa behatu izan da [64].

5.4. Ondorioak

Lan honen arabera eta, nahiz eta arrainik ez den hil eta urraburu arrainen propietate fisiologiko orokorretan aldaketarik ez den behatu, amitriptilinak ingurumenean esanguratsua den kontzentrazioan 7 eguneko esposizioaren ostean arrainen burmuin- eta gibel-metaboloman aldaketak sortzen dituela ondorioztatu da. Behatutako kate luzeko azil karnitinen metatzeak eta lipidoen metabolismoko konposatuen aldaketek lipidoen gordetzea desorekatuta dagoela adierazten dute. Arazo hori aurretiaz deskribatu izan da SSRI-en albo-ondorio gisa eta kutsatzaileek sortu ohi duten estres oxidatiboarekin lotuta egon daiteke [36]. Dena den, beste mekanismo baten bidez, SSRI-ak estres oxidatiboaren kontrako babesleak ere badira, eta izatez, lan honetan behatutako argininaren kontzentrazio-aldaketak oxido nitrikoaren ekoizpenaren murriztearekin lotuta egon daitezke. Horrez gain, karnitinen aitzindaria den metionina ere gibelean eta burmuinean, bietan, asaldatu da. Izatez, metionina eta beste aminoazidoen aldaketek, bibliografiarekin bat etorrita [56], aminoazidoen metabolismoa perturbatu dela adierazten dute. Bestalde, gibeleko glutamatoaren mailen aldakuntzak energia-metabolismoko aldaketa iradoki dezake, beste antidepresibo batzuekin burututako lanetan behatu den antzera [24]. Behaketa guzti horiek kezkagarriak izan daitezke arrainekin ondorio kaltegarrien bidea (*adverse outcome pathway*, AOP, delakoa) aztertu duten ikerketetan arrainen ehunetan behatutako gertaera espezifikoak (adibidez, estres oxidatiboa eta energia-metabolismoaren aldaketa) indibiduo-mailako (hazte-atzerapena) eta populazio-mailako (biziraupenaren murriztea) albo-ondorioekin lotu baitituzte [65].

Oro har, datu horien arabera amitriptilinaren esposizioak ingurumenean esanguratsua den kontzentrazioan aldaketak sortzen ditu arrainen metaboloman. Gainera, aldaketa metabolikoak sakon aztertutako monoaminetatik haratago doaz. Lan honetako behaketekin, arrainak bezalako organismo ez-zuzenduetan amitriptilinak eragindako albo-ondorioen inguruko informazio mugatua areagotzen den arren, saiakuntza gehiago egitea erabaki da lan honetako emaitzetan oinarrituta. Hain zuzen, ikerketaren bigarren atalerako (ikus 6. Kapitulua) dosi altuagoko eta denbora luzeagoko esposizio-esperimentuak diseinatu dira organismo-mailako aldaketak behatzeko aukera handitzeko. Horrela, posible izango da maila molekularreko ekintza abiarazlearen eta arrisku ekologikorako (hau da, biziraupenerako, garapenerako edo ugalketarako) esanguratsua den organismo mailako behaketen arteko lotura frogatzea [65,66].

5.5. Erreferentziak

1. Bautista-Ferrufino MR, Cordero MD, Sánchez-Alcázar JA, Illanes M, Fernández-Rodríguez A, Navas P, de Miguel M. 2011. Amitriptyline induces coenzyme Q deficiency and oxidative damage in mouse lung and liver. *Toxicol. Lett.* 204:32–37.
2. Calisto V, Esteves VI. 2009. Psychiatric pharmaceuticals in the environment. *Chemosphere*. 77:1257–1274.
3. Lajeunesse A, Gagnon C, Sauvé S. 2008. Determination of Basic Antidepressants and Their N-Desmethyl Metabolites in Raw Sewage and Wastewater Using Solid-Phase Extraction and Liquid Chromatography−Tandem Mass Spectrometry. *Anal. Chem.* 80:5325–5333.
4. Kasprzyk-Hordern B, Dinsdale RM, Guwy AJ. 2008. The occurrence of pharmaceuticals, personal care products, endocrine disruptors and illicit drugs in surface water in South Wales, UK. *Water Res.* 42:3498–3518.
5. Togola A, Budzinski H. 2008. Multi-residue analysis of pharmaceutical compounds in aqueous samples. *J. Chromatogr. A*. 1177:150–158.
6. Klosterhaus SL, Grace R, Hamilton MC, Yee D. 2013. Method validation and reconnaissance of pharmaceuticals, personal care products, and alkylphenols in surface waters, sediments, and mussels in an urban estuary. *Environ. Int.* 54:92–99.
7. Ziarrusta H, Mijangos L, Prieto A, Etxebarria N, Zuloaga O, Olivares M. 2016. Determination of tricyclic antidepressants in biota tissue and environmental waters by liquid chromatography-tandem mass spectrometry. *Anal. Bioanal. Chem.* 408:1205–1216.
8. Moreno-Fernández AM, Cordero MD, de Miguel M, Delgado-Rufino MD, Sánchez-Alcázar JA,

Navas P. 2008. Cytotoxic effects of amitriptyline in human fibroblasts. *Toxicology*. 243:51–58.

9. Vismari L, Alves GJ, Muscará MN, Palermo-Neto J. 2012. A possible role to nitric oxide in the anti-inflammatory effects of amitriptyline. *Immunopharmacol. Immunotoxicol.* 34:578–585.

10. Lirk P, Haller I, Hausott B, Ingorokva S, Deibl M, Gerner P, Klimaschewski L. 2006. The neurotoxic effects of amitriptyline are mediated by apoptosis and are effectively blocked by inhibition of caspase activity. *Anesth. Analg.* 102:1728–1733.

11. Kitagawa N, Oda M, Nobutaka I, Satoh H, Totoki T, Morimoto M. 2006. A proposed mechanism for amitriptyline neurotoxicity based on its detergent nature. *Toxicol. Appl. Pharmacol.* 217:100–106.

12. Brooks BW, Foran CM, Richards SM, Weston J, Turner PK, Stanley JK, Solomon KR, Slattery M, La Point TW. 2003. Aquatic ecotoxicology of fluoxetine. *Toxicol. Lett.* 142:169–183.

13. Fong PP, Ford AT. 2014. The biological effects of antidepressants on the molluscs and crustaceans: A review. *Aquat. Toxicol.* 151:4–13.

14. Guler Y, Ford AT. 2010. Anti-depressants make amphipods see the light. *Aquat. Toxicol.* 99:397–404.

15. Johnson DJ, Sanderson H, Brain RA, Wilson CJ, Solomon KR. 2007. Toxicity and hazard of selective serotonin reuptake inhibitor antidepressants fluoxetine, fluvoxamine, and sertraline to algae. *Ecotoxicol. Environ. Saf.* 67:128–139.

16. Minagh E, Hernan R, O'Rourke K, Lyng FM, Davoren M. 2009. Aquatic ecotoxicity of the selective serotonin reuptake inhibitor sertraline hydrochloride in a battery of freshwater test species. *Ecotoxicol. Environ. Saf.* 72:434–440.

17. Styrishave B, Halling-Sørensen B, Ingerslev F. 2011. Environmental risk assessment of three selective serotonin reuptake inhibitors in the aquatic environment: A case study including a cocktail scenario. *Environ. Toxicol. Chem.* 30:254–261.

18. Bisesi JH, Sweet LE, van den Hurk P, Klaine SJ. 2016. Effects of an antidepressant mixture on the brain serotonin and predation behavior of hybrid striped bass. *Environ. Toxicol. Chem.* 35:938–945.

19. Bisesi Jr JH, Bridges W, Klaine SJ. 2014. Effects of the antidepressant venlafaxine on fish brain serotonin and predation behavior. *Aquat. Toxicol.* 148:130–138.

20. Clotfelter ED, O'Hare EP, McNitt MM, Carpenter RE, Summers CH. 2007. Serotonin decreases aggression via 5-HT1A receptors in the fighting fish Betta splendens. *Pharmacol. Biochem. Behav.* 87:222–231.

21. Gaworecki KM, Klaine SJ. 2008. Behavioral and biochemical responses of hybrid striped bass

during and after fluoxetine exposure. *Aquat. Toxicol.* 88:207–213.

22. Winder VL, Sapozhnikova Y, Pennington PL, Wirth EF. 2009. Effects of fluoxetine exposure on serotonin-related activity in the sheepshead minnow (Cyprinodon variegatus) using LC/MS/MS detection and quantitation. *Comp. Biochem. Physiol. Part C Toxicol. Pharmacol.* 149:559–565.

23. Stahl SM. 1998. Not So Selective Serotonin Reuptake Inhibitors. *J. Clin. Psychiatry*. 59:333–343.

24. Webhofer C, Gormanns P, Tolstikov V, Zieglgänsberger W, Sillaber I, Holsboer F, Turck CW. 2011. Metabolite profiling of antidepressant drug action reveals novel drug targets beyond monoamine elevation. *Transl. Psychiatry*. 1:e58.

25. Yang M, Qiu W, Chen J, Zhan J, Pan C, Lei X, Wu M. 2014. Growth inhibition and coordinated physiological regulation of zebrafish (Danio rerio) embryos upon sublethal exposure to antidepressant amitriptyline. *Aquat. Toxicol.* 151:68–76.

26. Viant MR. 2008. Recent developments in environmental metabolomics. *Mol. Biosyst.* 4:980–986.

27. Huang SSY, Benskin JP, Chandramouli B, Butler H, Helbing CC, Cosgrove JR. 2016. Xenobiotics Produce Distinct Metabolomic Responses in Zebrafish Larvae (Danio rerio). *Environ. Sci. Technol.* 50:6526–6535.

28. Aoki-Kinoshita KF. 2006. Overview of KEGG applications to omics-related research. *J. Pestic. Sci.* 31:296–299.

29. Wishart DS, Tzur D, Knox C, Eisner R, Guo AC, Young N, Cheng D, Jewell K, Arndt D, Sawhney S, Fung C, Nikolai L, Lewis M, Coutouly M-A, Forsythe I, Tang P, Shrivastava S, Jeroncic K, Stothard P, Amegbey G, Block D, Hau DD, Wagner J, Miniaci J, Clements M, Gebremedhin M, Guo N, Zhang Y, Duggan GE, MacInnis GD, Weljie AM, Dowlatabadi R, Bamforth F, Clive D, Greiner R, Li L, Marrie T, Sykes BD, Vogel HJ, Querengesser L. 2007. HMDB: the Human Metabolome Database. *Nucleic Acids Res.* 35:D521–D526.

30. Vinaixa M, Samino S, Saez I, Duran J, Guinovart JJ, Yanes O. 2012. A Guideline to Univariate Statistical Analysis for LC/MS-Based Untargeted Metabolomics-Derived Data. *Metabolites*. 2:775–795.

31. Shi B, Tian J, Xiang H, Guo X, Zhang L, Du G, Qin X. 2013. A 1H-NMR plasma metabonomic study of acute and chronic stress models of depression in rats. *Behav. Brain Res.* 241:86–91.

32. Worley B, Powers R. 2013. Multivariate Analysis in Metabolomics. *Curr. Metabolomics*. 1:92–107.

33. Jansen JJ, Hoefsloot HCJ, van der Greef J, Timmerman ME, Westerhuis JA, Smilde AK. 2005.

ASCA: analysis of multivariate data obtained from an experimental design. *J. Chemom.* 19:469–481.

34. Nueda MJ, Conesa A, Westerhuis JA, Hoefsloot HCJ, Smilde AK, Talón M, Ferrer A. 2007. Discovering gene expression patterns in time course microarray experiments by ANOVA–SCA. *Bioinformatics*. 23:1792–1800.

35. Malik A, Jordao R, Campos B, Casas J, Barata C, Tauler R. 2016. Exploring the disruptive effects of TBT on lipid homeostasis of Daphnia magna using chemometric methods. *Chemom. Intell. Lab. Syst.* 159:58–68.

36. Gómez-Canela C, Prats E, Piña B, Tauler R. 2017. Assessment of chlorpyrifos toxic effects in zebrafish (Danio rerio) metabolism. *Environ. Pollut.* 220, Part B:1231–1243.

37. Ribbenstedt A, Ziarrusta H, Benskin JP. 2018. A Multi-platform Targeted/Non-targeted (TNT) approach for quantitative and discovery-based metabolomics. *PLOS ONE (submitted)*.

38. Ziarrusta H, Mijangos L, Izagirre U, Plassmann MM, Benskin JP, Anakabe E, Olivares M, Zuloaga O. 2017. Bioconcentration and Biotransformation of Amitriptyline in Gilt-Head Bream. *Environ. Sci. Technol.* 51:2464–2471.

39. Fulton WT. 1904. The rate of growth of fishes. *22nd Annu. Rep. Fish. Board Scotl.* 3:141–241.

40. Hrydziuszko O, Viant MR. 2012. Missing values in mass spectrometry based metabolomics: an undervalued step in the data processing pipeline. *Metabolomics*. 8:161–174.

41. Kamleh MA, Ebbels TMD, Spagou K, Masson P, Want EJ. 2012. Optimizing the Use of Quality Control Samples for Signal Drift Correction in Large-Scale Urine Metabolic Profiling Studies. *Anal. Chem.* 84:2670–2677.

